
**Mendeurreneko
Kongresua**

**Eusko
Ikaskuntzaren
XVIII. Kongresua
Geroa Elkar-Ekin**

**XVIII Congreso
de Estudios Vascos
El futuro que nos (re)une**
Congreso del Centenario

**XVIIIe Congrès
d'Études Basques
Notre futur ensemble**
Congrès du Centenaire

Geroa Elkar-Ekin

1



ASMOZ TA JAKITEZ

Agurra

Ez dut uste euskal garaikidetasunean 1918.a baino urte erabakigarriagorik egon denik. Lau urteko gerra-hondamendiaren ondotik, armak isildu zirenean, bakea, askatasunak eta justizia soziala ekarriko zituen garai berri baten itxaropena piztu zen Europaren kontzientzian. Horrelako helburu zintzoen bidez lortuko omen zen Estaturik gabeko nazioek –Euskal Herriak, kasu– betidanik aldarrikatu dituzten eskubide historikoen onarpena. Ildo horretan lan egiteko elkartzea erabaki zuen gizon- eta emakume-talde zabal batek. Programa baten inguruan batu ziren, oinarri demokratikoei eta gizarte-harremanen ikuspegi dialogikoari atxikita, helburu jakin batzuk lortzeko nahiak eraginda (horien artean nabarmenenak autogobernua, unibertitate propioa eta euskararen defentsa eta sustapena). Gizon-emakume haiek etorkizunera begirako ikuspegia eta ikasketen eta ezagutzaren bidez hobetzeko grina zuten, eta elkarren arteko aldeak alde, lanerako bat egin zuten, bakoitzak bere lurraldea, identitatea, hizkuntza, ideologia edota pentsaera zuela.

Hala, 1918ko irailean, Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresua deitu zuten, batera, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Foru Aldundiek. Euskal modernitatearen sorreran mugarri izan zen, eta bat zetorren nazioarteko joerekin, zientzian, gizartearen, politikan eta kulturaren erabateko eraldaketak gertatzen ari ziren garai hartan. Aro berri baterako jauzia benetakoa izan zedin sortu zen Eusko Ikaskuntza - Sociedad de Estudios Vascos, “gure kulturaren pizkundera bateratzeko eta gidatzeko erakundera”. Ekintza- eta jarduera-egitarau zabala hartu zuen bere gain, aldizka Kongresuak antolatuzko ardurarekin batera. Modu horretan, Eusko Ikaskuntzak erakundeen, lurraldeen eta herritarren kezka bideratu eta mamitu zituen, Euskal Herriaren nortasuna sendotze aldera, betiere euskal munduko deklinazio guztiak kontuan hartuta, eta gizarte-erronka nagusietako batzuei ikuspegi prospektiboz aurre egiteko xedearekin.

1918ko lehen kongresuaren ondoren, eta penintsulan 1936. urtean ekimena bertan behera gelditu zen arte, Eusko Ikaskuntzak bost kongresu antolatu zituen. Francoren diktadurak iraun zuen bitartean eta Bigarren Mundu Gerraren amaieran, beste bi edizio antolatu ziren, erbestean zen jendearen eta Ipar Euskal Herriko talderik dinamikoenen ahalegin izugarriari esker. Gerora, 1978. urtean Eusko Ikaskuntza berrabiarazi zenetik 2018ra bitartean, hamar Kongresu egin dira.

1918ko sorrerako Kongresuan finkatutako norabideari fideltasunez eutsita –euskal kultura hedatzea eta “gure Herriko funtsezko eta gaurkotasuneko arazoak aztertzea” xede–, *Mendeurrenako Kongresuak* berezitasun garrantzitsuak izan ditu metodologiari eta helburuei erreparatuta. XVIII. Kongresuan adituak entzuteko eta haiengandik ikasteko aukera izan dugu, horrelako foroetan ohikoa denez, baina ez hori bakarrik. Eusko Ikaskuntzak 2013az geroztik duen sozietate-eredu berriarekin bat, arlo akademikoko eta erakundeetako ordezkariak gizarte-eragileekin eta herritarrekin elkartu ditu zenbait urtetan, guztien artean, pluraltasunetik eta konplexurik gabe, gure etorkizun kolektiboari lotutako gaiak aztertzeko: ekonomia, hizkuntza, kultura, gobernantza edota XXI. mendeko Euskal Herriaren nondik norakoak. *Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble* leloak ongi laburbiltzen du ahalegin hori.

Liburuki honen bidez, gizartearen esku jarri dira ahalegin jarraitu horren emaitzak. Orrialdeotan murgiltzen denak aukera izango du xehetasunetan sakontzeko, edo laburpen eta ondorio nagusiak ikusteko. Azken horiei dagokienez, bilduma- eta talde-lan eskerga laburbiltzen duen *Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria* eta Eusko Ikaskuntzaren mendeurrenako jardunaldian (Oñatin, azaroaren 24an) aurkeztutako *Adierazpen instituzionala* nabarmendu behar ditut. Horietan jasotako gogoetek eta proposamenek, diagnostikoei eta helburuei, Euskal Herriaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko irudi argia eta sakona islatzen dute, asmo handiko iradokizun ugari eskaintzeaz gain. Aldi berean, Eusko Ikaskuntzak ehun urteko ibilbidean zer egin duen eta aurrerantzean zer egiteko asmoa duen azaltzen dute.

Gure erakundeak, zientziaren, kulturaren eta aurrerapen kolektiboaren aldeko konpromisoaren ereduak, hasierako bokazio berberari tinko eusten dio, mendeurrena bete ondoren, sorrerakoarekin alderatuta oso bestelakoa den egungo testuinguruan, garai konplexu honetan. Izan ere, konplexutasunak aukerak ere badakartza berarekin. Euskal Herria eraikitzeke erronkari modu berritzailean erantzutea da Eusko Ikaskuntzaren zeregina; egiteko ederra etorkizunerako.

Iñaki Dorronsoro Plazaola
Eusko Ikaskuntzako lehendakaria

Aurkezpena

Ohore handia da niretzat argitalpen hau aurkeztea, XVIII. Kongresuari dagozkion jarduerak kronika modura jasotzeaz gain, Euskal Herriaren egungo egoeraz egin dugun irakurketa eta gure gizartearen oraingo eta geroko erronkei Eusko Ikaskuntzak eman dien erantzuna islatzen baititu, ikuspegi historikoari helduz eta etorkizunari erreparatuz.

Mendeurrenako Kongresuaren inguruko argitalpen-jardueraren osagarri dugu lan hau. Batez ere *Euskaldunon Mendea 1918-2018: Eusko Ikaskuntza 100 urte* eta *Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria* lanetan jaso dira Kongresuari buruzko jarduerak.

Oinarritzko hiru alderdi azpimarratuko ditut, egindako lanen izaera bereziki nabarmentzen dutelako.

Lehenik eta behin, Mendeurrenako Kongresua izaki, ospakizun horri eskainitako programa sortu eta Oñatiko ekitaldietan plazaratu dugu; era berean, gure elkartearen mendeurrenari buruzko antzerki-lana taularatu eta *Eusko Ikaskuntza, % 100* film laburra eta *Eusko Ikaskuntza, 100 urtean. Asmoz ta Jakitez* dokumentala egin dugu. Irakurleak esku artean duen liburuak ematen du horren guztiaren berri.

Bigarrenik, azken hiru urteotan Eusko Ikaskuntzak erabilitako lan-metodologia azpimarratu nahi dut. 2014-2015 epean gauzatutako gogoeta estrategikoari jarraikiz, helburuak, lehentasunezko jarduera-ardatzak eta lan egiteko erak zehaztu ziren, eta horiexek izan dira, hain zuzen, 2016-2018 epean Eusko Ikaskuntzaren oinarritzko jardunbideak eta XVIII. Kongresuaren saioak antolatzeo jarraibideak.

Hona hemen gure lanaren erreferentziazko elementuak: lehentasunezko arreta behar duten bost ardatzak (euskal gizartearentzako etorkizun jasangarri bat irudikatzea XXI. mendean, egoera soziokulturala, eredu sozioekonomikoak, euskaraz bizi nahi duen gizarte baten geroa, eta egituraketa soziopolitikoa), partaidetza bultzatzea (mila lagunetik gora bildu ditugu lan-prozesuan), adituen arteko elkarrizketa, herritartasuna, gizarte antolatua eta administrazioa, betiere Euskal Herria bere osotasunean munduan kokatzeko ikuspegitik begiratuta.

Azpimarratzekoa iruditzen zait, halaber, lurraldeetako zenbait eragileren arteko diziplina anitzeko sareak sendotzeko egin dugun ahalegina ere, ziur baikara erraztu egingo duela etorkizunean ezagutza eta esperientziak uztartzeko eta trukatzeko gure lana.

Hirugarrenik, azpimarratu nahi nuke jarduera-ekimen positibo gisara gauzatzera bideratu dugula gure lan guztia (*Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble* izan da goiburua), “Euskal Herriko lurraldeen arteko kohesioa eta elkartasuna” indartzeko nahiak eraginda, egoera hipotetiko desiragarriak identifikatuz eta haiei erantzuteko egutegi-proposamenak atxikiz.

Eskerrak ematen dizkiet, Eusko Ikaskuntzaren izenean, XVIII. Kongresuaren arrakasta bermatzen lagundu duten herritar, gizarte-erakunde, administrazio, hedabide eta babesle guztiei, haien laguntza eskerga izan ez bagenu ez baitziren lortuko topaketaren helburuak.

Orriotan irakurgai duzuen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua mugarri garrantzitsua dugu bide horretan. Jarraipena izango du datozen urteotan hemen eratu dugun lan-eremu anizkoitz horrek, eta baliagarria izango da bai aurkeztutako proposamenei erantzuteko, bai beste erronka batzuek hausnartzeko. Bere helburu nagusia lortzeko ahaleginean jarraituko du Eusko Ikaskuntzak: euskal gizarte geroz eta hobea eraikitzea, non denok hartuko baitugu parte gizarte bidezkoago, jantziago, integratzaileago eta aberatsago baten aldeko ekinean.

Mendebeteko ibilbidearen lekukoa duzue, beraz, XVIII. Kongresuari buruzko liburuki hau, bai eta Euskal Herriaren zerbitzura aritzeko gure konpromiso berrituaren adierazle ere.

Xabier Alkorta Andonegi

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua eta Mendeurrenako lehendakaria

**Eusko Ikaskuntzaren
Mendeurreneko
Adierazpena**

1.1.

H

Hitzaurrea

Duela ehun urte Oñatin egin zen lehen Kongresua mugarri bihurtu da gure historia garaikidean. Orduan finkatutako oinarrien gainean eraiki ahal izan ziren ondoko urteetan gure herriaren garapenak ezinbestean behar zituen hainbat estrategia eta egitura. Gainera, eta bulkada horri eusteko, kongresu berak erabaki zuen Eusko Ikaskuntza sortzea, bertan bil zitezten Euskal Herriko andre-gizonak, edozein izanik haien klase soziala, ikasketa maila edota atxikimendu ideologikoa; ikerketa bezainbat ekintza maite zuten pertsonak, eta ardura partekatua sentitzen zutenak, herriaren kohesioaz eta aurrerapenaz bezala, euskararen, euskal izaeraren nahiz kulturaren babesaz eta sustapenaz.

1918tik hona, Eusko Ikaskuntzaren egitekoa izan da bere sorrera eragin zuten kezka haiei edukia eta erantzuna ematea: alde batetik, ikerkuntza eta kultura zentzu zabalean sustatuz eta gurea unibertsaltasunean txertatuz; bestetik, gure komunitatearen garapenak etorkizunean izango dituen erronkak jorratuz.

Duela ehun urte bezala, gaur ere agertoki berriak eta irismen zabaleko ziurgabetasunak ditugu aurrerabidean. Eragin handiko aldaketa eta joerek ezarritako erronkei egin behar diegu aurre, hala nola: iraultza teknologikoak eta gorantz datozen makro-sektore produktiboak; globalizazioa eta gure

teknno-ekonomikoen lekualdaketa; digitalizazioa; bioaniztasuna urritzea eta klima aldaketa; migrazioak eta aniztasunaren kudeaketa; eragile-botere geopolitiko berriak; demokrazia ahultzeko joera globala eta Europako ongizate ereduaren neurri bateko akidura, besteak beste. Eta barrura begirako erronkak ere ez dira makalagoak: jaiotze-tasa apala eta bizitza luzatzea; euskararen nahiz euskal kulturaren biziberritzea; euskal lurraldeen kohesioa eta memoria historiko partekatua eraikitzea; Euskal Herria munduko periferian gelditzearen arriskuari aurre egitea, gure ehun produktiboa eta soziala ontzea edota gure bizi-kalitateari eustea.

Globalizazio prozesuak bultzatutako munduaren azkartze honek noraeza eta ziurgabetasuna sortzen ditu. Beldur kolektiboari erantzun dakioke ezkortasun antropologikoarekin, eta ondorioz etor daitezke itxikeria, xenofobia eta askatasunen murrizketa. Ez da hau gure herriak nahi duena; ez da Eusko Ikaskuntzak mende berrian defendatuko duen ikuspegia. Lurraldearen aldarrikapena eta Euskal Herriko lurretan bizi den komunitatearena, hori da egitasmo kolektibo itxaropentsua, kohesioan eta elkartasunean oinarritutako espazioa sortzeko, bertan bizitza duina izan dezan euskal hiritargoak, bai egungoak eta bai etorkizunean jaso dezakegunak.

Gure herriak malgutasun nabarmena erakutsi du aldaketei egokitzeke, eta hauei emandako erantzun proaktiboetan



bikaintasuna erdiesteko. Hobetzekoak ere baditugun arren, gizarte kapital esanguratsua metatu dugu, ondoko osagaiekin: gauzak ondo egiteko joera, gizarte-erantzukidetasuna, ekintzaitetasuna, lankidetzeta, gure kulturaren eta euskararen defentsa, barne elkartasuna, etorkinak bertakotzeko gaitasuna edota aniztasunari errespetua, osagai bakoitza bere neurrian. Ezaugarri hauek eman digute iraganean bizirauteko indarra, eta oinarri sendoa dira gaur, etorkizuneko erronkei aurre egiteko.

Dena den, balio kolektiboak ez dira aldaezinak, baldintza sozialen eta iraganeko historiaren ondorio dira. Horregatik, harro sentiarazten gaituena nabarmentzearekin batera, ezin aipatu gabe utzi aurrerantzean indartu beharreko balio batzuk: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, ezberdinekiko enpatia, ongi komunarekin konpromisioa eta lurrari errespetua.

Atzean geratzen da zalaparta handiko XX. mendea, zeinetan gure herriak ezagutu baitituen gertakari odoltsuak –gerrak, bortizkeria eta sufrimendua– eta baita ere kulturaren loratzea, garapen ekonomikoa eta aurrerapenak berdintasun sozialaren bidean. Gure herriak erakutsi du baduela erresistentzia- eta hausnarketa-gaitasun aski unerik gogorrenak gainditzeko, baita berradiskidetzeko eta bizikidetzarako esparrua eraikitzeko. Gogoan izan behar dugu iragana. Etorkizun baketsuaren bermerik onena da akats eta lorpen kolektiboak biltzen dituen oroimen integrala. Etorkizun horrek posible egin behar ditu herri egitasmo guztiak, justizia, elkarrekiko errespetua eta aitortza oinarri.

Duela ehun urte Oñatiko lehen kongresuak asmo handiko agenda finkatu zuen –neurri handian bete dena– eta gaur dagokigu utopia hura eguneratzea. Helburu horrekin, Eusko Ikaskuntzak hiru urtez bildu ditu –Geroa Elkar-Ekin lelopean– akademiako, gizarte antolatuko eta erakundeetako ehunka

pertsona, adituak eta arituak, Euskal Herria XXI. mendean artikulatzeko funtsezkoak diren bost aztergai lankidetzan jorratzeko: kohesioa euskal gizarte anitzean; garapen sozioekonomikoa; gobernantza demokratikoa; euskararen etorkizuna; eta iruditeria kolektiboa eta gizarte-agertoki desiratuak.

Adierazpena

Gaur, bere mendeurrena dela eta, euskal gizartearen eta bere ordezkarien aurrean, Eusko Ikaskuntzak ondokoa adierazi nahi du:

1918an Oñatin irudikatu ziren hainbat agertoki errealitate bihurtu dira neurri handian: lehen aldiz, euskal lurralde guztiek dituzte erakunde propioak, autogobernu maila ezberdinekin; baditugu kalitatezko sistemak hezkuntzan, osasunean eta gizarte babesean; nabarmen biziberritu dira euskara eta kultura; unibertsitateak sortu dira; euskal gizarteak bizi maila ona du eta bere erabakitze ahalmena areagotu egin da...

Oinarri honen gainean, eta jabetuta mende berriko erronka sakonei soilik aurre egin ahal izango diegula gure adimen kolektiboa aktibatuta, eta lankidetzan hausnartzeko eta erabakitze dugun gaitasuna indartuta, etorkizunerako egitasmo eta helburu berriak proposatzen ditugu, lan-ildoa hauen inguruan:

• Globalizazioaren eta aldaketa lasterraren abagunearen aurrean.

Beharrezkoa da hausnarketa partekatua eragitea Euskal Herriko hiritarren eta lurraldeen artean, herri ikuspegitik erantzuteko ondoko galdegaiei: non eta nola kokatuko garen munduan, nolako harremanak nahi eta behar ditugun Europarekin eta



estatuekin (Espainia eta Frantzia), nola demokrazian sakondu eta nola bultzatu euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkartasuna.

- **Euskal Herriaz hausnartzeko esparru bat artikulatzea.**

Esparru horrek ahalbidetu behar du egitasmo komuna sendotzea, harreman egonkor eta egiturazkoak finkatuz gizarte-, kultura-, politika- eta ekonomia-eragileen, udalen eta erakundeen artean, berdin esparru materialean zein sinbolikoan, konfiantza sareak sortuz.

- **Identitate partekatua eta komunitate egitasmoa eraikitzea.**

Hiritartasun kontzeptua sakontzea eta itun sozial berri baterako bidea bilatzea, aniztasuna onartuz eta nahi ez diren ezberdintasunei aurre eginez, interes komunak josiko dituzten egitasmo partekatuen bitartez.

Proposatzen dugu aniztasuna ehuntzea identitate partekatu batean, balio komunen inguruan, euskara eta euskal kultura ardatz ditugula. Ezagutzaren gizartea eta eztabaida soziala batuta, herritarren partaidetza aktiboa oinarri izango duen identitate solidarioa eraikitzea, horretarako modu aktiboan erabiliz hezkuntza sistema, kulturarena eta komunikatiboa.

- **Ekonomia sustatzea ingurumen- eta gizarte-garapen jasangarriaren mesedetan.**

Sinetsita gaude gizarte-babes zabala, eraginkorra eta jasangarria bermatuko dituen eredu herrialde egitasmoa dela Euskal Herriarentzat, eta gizartea trinkotzeko tresna; eredu inklusibo bat, oinarrian izango dituen belaunaldi arteko elkartasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta genero berdintasun egiazkoa. Horretarako funtsezkoa deritzogu erraztea ehun produktiboak kalitatezko enpleguaren sorrerari eta aberastasunari egiten dien ekarpena, eta lan-harreman marko egonkor bat ahalbidetzea, itunaren eta elkarriketaren gainean.

- **Gizarte ongizatera bideratutako gobernantza kolaboratiboa ezartzea.**

Euskal hiritar guztien bizitza duina bermatze aldera, beharrezko ikusten dugu bere erabaki-ahalmena sendotzea –gainontzeko herrialdeekin elkartasuneko harremanean– eta berau garatzea, gobernantza demokratikoan sakonduz, pertsonak gai izan daitezten adostasun zabalak eraikitzeko, eta saihestu ezin diren desadostasunak kudeatzeko.

Eusko Ikaskuntza, Mendeurreneko Kongresuan gure herriaren etorkizuneko galdera gakoan gainean hausnarketa sakona egin ondoren, zinez prestatuta dago –eta guztiz prest– lankidetzaz estuan jarduteko erakunde publikoekin, eragile politiko eta sozialekin, unibertsitateekin eta herritarrekin, tinko eutsiz bere sortze-egiteko gaurkotuari: herri garapenerako ikuspegi orokorra eta arnas luzekoa lantzea, politika publikoen eta gizarte beharren mesedetan.

Ilusioz, eta zuen babesaren konfiantzan, irekitzen dugu gaur mendeurren berri baten orrialdea. Mila esker!

**Euskal Herriko
lurralde(ar)en
Liburu Zuria**

1.2.

Oñati, 2018.11.23

E

1. Egindako ibilbidea

Eusko Ikaskuntzak, bere xedea eta helburu nagusiak oinarritzat hartuz, Denok Gai izeneko prozesu parte-hartzailea jarri zuen abian Euskal Herriko lurraldeen herritarrekin eta gizarte zibil antolatuarekin batera XXI. mendean agertuko zaizkigun erronka garrantzitsuenak eta lehenasunezkoak identifikatzeko.

Erdigunean “XXI. mendeko Euskal Herriaren gizarte iraunkorra” kokatuz eta etorkizuneko proiektzioa landuz, prozesu horren emaitza Eusko Ikaskuntzak epe ertain-luzean garatzeko eskatzen diren eremu desberdinen identifikazioa izan zen: errealitate sozio-kulturala, eredu sozioekonomikoak, euskararen etorkizuna, egituraketa sozio-politikoak. Horretaz gain, Eusko Ikaskuntzaren printzipioak gogoratu eta azpimarratu ziren: berme zientifikoa, independentzia ideologikoa, belaunaldien arteko harremana, genero ikuspegia, erakunde arteko elkarlana, herritarrekin harremana, euskara erdigunean, lurraldeen arteko zubigintza, disziplinartekotasuna.

Ziurgabetasunaz eta mehatxuz, baina era berean, aukeraz beteriko garaia bizi dugu. Euskal Herriko etorkizuna inguruabar globalean kokatu beharra dago, baina beti hausnarketa propioa, irekia eta deliberatibo batetik abiatuta Euskal Herriko lurraldeek eremu desberdinekin –eredu

politikoak, kulturalak eta sozioekonomikoak lotutako erronkei egokitzeko behar dituzten tresnak eskaintzeko.

Bestalde, giza garapena eta honekin lotutako gobernantza ezin uler daitezke kulturaren, kapitalaren, lurraldearen eta herritarren arteko mihiztaketa berrietan arreta jarri gabe. Horrela, prozesu hau ezin da ulertu gizarte zibilaren parte-hartzerik gabe. Lehenengo helburua, prozesu eta emaitza gisa, gure lurraldeen demokratizazioan sakontzea eta aurreratzea da.

Bigarrenik, **euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetz**a indartzea eta sendotzea jartzen da analisirako eta deliberaziorako ardatz gisa. Helburu honekin, lurralde narratiba eta errealitate desberdinen ezagutzatik abiatuta, sinergia sozial, kultural eta ekonomikoak, eta gobernantza demokratikoan oinarritutako lurralde baitako eta lurraldeen arteko eredu inklusibo berriak ahalbideratuko dituzten tresnak identifikatuko dira.

Lurraldea identitatea duen lur eremua den aldetik, komunitate baten eguneroko praxi kolektiboa gauzatzen den eremua den aldetik, bizitza gauatzeko espazioa da, gure ekonomia eta gure ongizatearen eremua da, auzokideekin harremanetan jartzen gaituena. Lurralde hori bertan gurutzatzen den jendeek egiten duten hura da, bizi praktiken elkarrekintza da finean.

Ez gara ezerezetik abiatzen. Euskal Herriko lurraldeen kohesiorako oinarriak munduan egoteko eta mundua begiratzeko berezko era osatzen duten historia komun batean, pertenezia zentzu batean, hizkuntza eta kultura batean daude finkatuak. Paisaia fisikoari paisaia emozionala gehitzen zaio, ukiezina agian, baina partekatzen den balio sistema batean detektagarria dena.

Ardatz sozioekonomiko eta kultural desberdinen arteko gurutzaketak harreman sare dentsuak eta anitzaz osatutako espazioa definitu du, mundu konplexuan eta gorabeheratsuan kokatzeko beharrezko den kapital sozialean bilakatzen dena. Horregatik, indartzea bilatzen dugun kohesioa eta elkarkidetzaz dagoenetik abiatzen da.

Mundu garaikidean, gero eta konplexuagoa dena, eskala territorial adimentsu, lehiakor, bidezko eta iraunkor horren bilaketa partekatua izango da edo ez.

Horretarako, Euskal Herriko lurralde guztietako akademia, erakundeak, eragile sozialak eta herritarrek biltzen dituen lan eremu kooperatiboa aktibatzea bilatzen duen hainbat urtetarako prozesua da abian duguna. Egungo mundu aldakorrean gure herriak behar duen hausnarketa estrategikoa gauzatzeko eremu kooperatiboa, alegia. Beste modu batera esanda, deliberazio-logika hedatzea nahi dugu, gizarte zibila eta akademia giltzarri hartuta, herritarren eta gizarte eragileen artean erabaki eta ezagutza kolektiboa sustatuz.

Kohesioan eta elkarkidetzan oinarritutako etorkizuna diseinatzea nahi bada, beharrezkoa genuen aurretik iragana ulertzea eta orainaren aukerak eta ahuleziak zedarritzea. Horregatik, lehenengo diagnostiko bat proposatzetik abiatu gara “Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Berdea”-n.

Liburu Berdeak euskal lurraldetasunaren askotariko dimentsioak zertan diren ezagutzen laguntzen du, geroan ere,

lurralde honen gainean euskal komunitateak garatzen duen jarduera kolektiboa emankorra izan dadin komunitatearentzat eta bertan bizi diren banakoentzat.

Gure lana ezagutza eta esperientzia anitzak biltzea izan da. Ikuskera ezberdinetako pertsonak mahai baten bueltan eseri gara eta ikusi dugu uste baino gehiago partekatzen dugula, eta herri honen lurraldetasunaren inguruan ideia kontsentsuatuak eraikitzeke elkarrizketan jarraitu behar dela.

Hau abiapuntu hartuta, diagnosian identifikatu diren joera eta erronken arabera, adostasunen eta desadostasunen arabera, behar dugun eta nahi dugun etorkizuna eratzeko agertoki egokien aukerak eskaintzen ditugu pronostiko gisa eta horiei erantzuteko agendak eta proposamenak (bide-orriak). Honela, sortzen ari garen lankidetzaz espazioak jarraipena izango du datozen urteotan planteatutako agendei erantzuteko eta identifikatu diren berriak sortzeko.

2. Testuingurua

Urteotan, XVIII. Kongresua funtsezko mugarririk izan delarik, landutako gaiak buruzko laburpenen aurkezpena testuinguruan jartzeko, bi begirada gehitu ditugu sarrera moduan: lehena, kanpokoak, gizarte moduan eragiten dituzten eta gure lanaren edukiekin zerikusi handiagoa duten aldaketarik garrantzitsuenetara bideratzen da; eta bigarrena, berriz, barrukoa, Euskal Herriko lurraldeen arteko trinkotasuna eta elkartasuna bilatzen dituen etorkizuneko proiektu baten oinarria izan daitezkeen balioak eta muin komuna biltzen ditu.

2.1. Munduaren egoerari buruzko oharra

Oharrok gure gizartearen orainari eta geroari eragiten dieten hamar joera hautatzen dituzte. Eraldaketa-agendak garatzea



ahalbidetzen dute ohar horiek. Baina agendak desberdinak dira, joerak nolakoak diren. Hiru joera mota iradoki daitezke: **eraldatzaileak**, gizarteetan egiturazko aldaketak eragiten dituztenak; **orekatzaileak**, joera eraldatzaileen eragina leuntzen ahalegintzen direnak; **iraultzaileak**, etorkizunean, garatu ahala, joera eraldatzaileak taxutuko dituzten dinamikak.

Joera eraldatzaileak

Populazioak: Europako gizarteetan joera demografikoak adierazten du populazioa gero eta gehiago zahartzeko prozesua gertatzen ari dela. Biztanleriaren piramidea alderantzizkatzeak funtsezko ondorioak ditu ongizatearen estatuaren etorkizuneko garapenean (pentsioen krisia, lan-merkatuen krisia, osasun-sistemen krisia, migrazio-krisiak, eremu urriko hizkuntzak, besteak beste).

Digitalizazioa: Azken 30 urteetako garapen teknologikoak teknologia digitalen garapenari esker bultzatuta egin du bidea. Berrikuntza digitalak ondorio sakonak ditu enpresen, gobernuen eta gizartearen beraren funtzionamenduan, pertsonen elkarrekin komunikatzeko eta elkarri eragiteko dituzten moduak eraldatzeraino. Egun, teknologia digitalek osatzen dute gizarte-loturaren DNA.

Energiak eta ingurumena: Azken 100 urteetako garapen ekonomikoaren bidea energia fosilean oinarrituta bultzatu da. Energia mota horrek ingurumenean eragiten duen kutsadura-maila handia ekosistema osoak hondatzen ari da atzerakorik gabeko moduan. Teknologia berrietan oinarritutako energia garbien erabileraranzko trantsizio energetikoa sustatzea da energia fosilak erabiltzearen aurkako joera.

Globalizazioa: Orain dela 40 urtetik, nazioartekotzea globalizazio bihurtu da; hau da, merkatuen, teknologien,

finantzen, kulturen arteko interrelazioa eta elkarrekiko mendekotasuna, integrazio bidezko eraldaketa sortuz. Egun, jokaleku geopolitiko berri bat finkatu da, non Mendebaldeko herrialdeek nagusitasun estrategikoa galdu duten. Interrelazio bidezko integrazio-prozesu horren ifrentzu moduan, zatikatzeko-prozesuak azaleratzen ari dira, eta kultura fokalak, tokian tokiko autogobernuak eta lurralde-eraketa berriak sustatzen.

Joera orekatzaileak

Ezagutza: Ezagutzaren gizartea joera argia eta finkatua da jada. Terminoa iradokitzen du ezagutza gizartean banatuta dagoela. Horrek esan nahi du ezagutza esparru sozialeko zenbait lekutan sortzen dela. Orekatze-joera bat da, globalizazioak berekin dakartzan zentralizazioen aurrean. Ezagutzaren gizarteak bizialdian zeharreko hezkuntzan oinarritutako konpentsazioak bultzatzen ditu, bai eta zientziaren, teknologiaren eta gizartearen arteko erlazio-ereduak ere.

Gobernuak: Azken 25 urteetan, gobernamendu-ereduak aldatzeko joera argia sortu da sektore publikoan. Orekatze-joera bat da, aliantza publiko eta pribatu berriak sustatzen dituen hainbat sektore ekonomikotan, eta gobernamendu parte-hartzaile berria ere sustatzen du, zeinean politika publikoek gero eta gehiago integratu nahi dituzten herritarrak beren garapen-prozesuetan.

Erakundeak: Duela 20 urtetik, indarrez azaleratu da gizarte-erantzukizun korporatiboaren eta berrikuntza arduratsuen bulkada, erakundeek (ekonomikoak, sozialak edo teknologikoak izan) izandako eragina konpentsatu eta orekatzeko mekanismo moduan. Gizarte-erantzukizuna inpaktu negatiboari aurrea hartzeari eta zuhurtasun-printzipioak aplikatzeari lotuta dago.



Joera iraultzaileak

Adimen artifiziala: Adimen artifiziala da makinei giza adimenak egiten dituenen antzeko eragiketak egitea ahalbidetzen dieten programak garatzea. Adimen artifiziala industrian aplikatzen da jada (batez ere autopropulsatuan), baina bere aplikazioek, besteak beste, hizkuntza naturala sortzeak, *machine learning* plataformek, autoikaskuntza sakoneko plataformek eta automatizazioak (robotak), gizakien arteko harremanak aldatuko dituzte, bai eta gizakiek makinekin dituztenak ere.

Biogenetika: Genetikan eta biogenetikan egiten diren aurrerapen zientifiko eta teknologiko izugarri handiek geneak progresiboki aldatzea ahalbidetzen dute, berorien funtzionaltasuna mudatzeko. Biogenetikak aplikazio zabalak ditu eritasun infekziosoetan, kancerigenoetan eta abar, eta ez du soilik irekitzen eremu berri bat diseinu genetikoan, bai eta eztabaida etiko eta filosofiko handi bat ere giza kondizioaz eta gizaki naturalen eta diseinuzko gizakien arteko erlazioez.

Konputazio kuantikoa: Konputazio kuantikoak informazioaren eta datuen prozesamendu esponenziala ahalbidetuko du. Konputazio kuantikoaren etorkizuneko aplikazioak asko eta askotarikoak dira; besteak beste, komunikazio-sare eta zifratze-sistema menderaezinak (zibersegurtasuna), eritasunak sendatzeko eredu zelularren testatzea eta abar. Oso etorkizun hurbilean, datuen eta eguneroko bizitzaren arteko erlazioak errotik eraldatuko dira.

2.2. Lankidetzan eraiki beharreko etorkizuneko balioak eta kapital soziala

Ezin dira ulertu gure herriaren nortasuna eta balioak, herrian izandako gako historikoak kontuan hartu gabe; besteak beste: bere espezifikotasun juridiko eta politikoa; bandoen arteko

borroak; Karlista-gerrateen ondorengo foru-galera; muga izatea; XX. mendeko asaldurak; bi mundu-gerrak; diktadura frankista; aurreko mendeko bigarren erdialdeko gizarte-erlaldaketa; langile-mugimendua; Espainiako Estatuko trantsizio politikoa, eta izan zituen ondorio politikoa eta sozialak; emigrazio eta inmigratio-prozesuak; emakumeen parekotasunaren aldeko borroka; indarkeria politikoa eragindako tentsioak; autogobernuaren eta erakunde propioen garapena.

Hori guztia nortasun kolektiboa taxutuz joan da, gure herriak bere historian zehar izan dituen egoera zailak gainditzeko erresistentzia-ahalmenean adierazia; euskal gizartearen osagai aktibista hori balio handienetako bat da, eta, kultura-alderdiekin, geure hizkuntzarekin eta pertinentzia-zentzuarekin batera, gure nortasuna zizelkatu du.

Auzo-jardueraren kultura, elkarrekikotasuna, berdintasuna, trukea eta elkartasuna nabarmenak ziren euskal gizartean, eta, garai hurbilagoetan, ekonomia soziala eta kooperatibismoa asko garatzea ekarri dute berekin, bai eta gizartea, nazioartean beste gizarte batzuekin alderatuta, egoera hobean egotea ere honako indize hauetan: prekariotasuna, desparekotasun erlatiboa eta giza garapena.

Lanaren zentzuak, hartutako konpromisoarenak eta berori bete behar delakoak balio kolektiboa izaten jarraitzen du, eta, gainera, negoziatzeko ahalmena ez ezik, eragileen arteko konfiantza ere sustatzen du, eragileok banakoak edo kolektiboak izan.

Euskal Herriak etorkinak nahiko ongi integratzen asmatu du, bai industriaren garapen-urteetan, bai berrikiago iritsitako atzeritarrei dagokienez; barne-dibertsitatea, eta gazteek dibertsitate hori onartzeko jarrera irekia izatea aldaketara egokitzeko ahalmena sustatzen duten elementuak dira.



Gizarte zuzenagoa eta berdinzaleagoa eraikitzea oztopatzen duten elementuak ere aipatu behar dira; besteak beste: zatiketa ideologiko eta politikoa gaindituta kohesio-elementuak aurkitzeko zailtasuna; polarizazio-arriskua; kontsumismoaren ondorioz, ingurumen-arriskuaren mehatxua; gizartearen maskulinizazioa oraindik gehiegizkoa izatea; individualismo lehiakorra; gehiegizko “probintzialismoa”; lurralde-desorekak; eta desperekotasuna handitzeko arriskua.

Euskal Herriak, gainera, munduko jaiotza-ratio apalenetako bat dauka. Datu hori, txarra baita, funtsezko arazoa da gure etorkizunerako, eta herri moduan erantzun behar zaio, baina oraindik ez da erantzunik izan, eta oso ondorio garrantzitsuak izango ditu epe ertainean eta luzean. Etorkinak integratzeko beharra, hori ez ezik, ezinbesteko baldintza ere bada gure kulturak iraun dezan, eta gure gizartea etorkizunean kohesionatuta egon dadin.

Kapital sozial garrantzitsua dugu, gure herriaren garapen ekonomikoa, sozial eta kulturalaren alde konpromisoa hartu duten “militante”, elkarte eta enpresa asko eta askok eraikia denboran zehar. Horretan, lagungarriak izan dira, besteak beste, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak eta pertsonen, familia-sareen eta lurraldeen arteko kohesio handi samarra, oinarritzko aktiboa baitira garapen- eta elkartasun-programak eta proiektuak ezartzeko.

Gure mundua oso azkar aldatzen ari da, eta, besteak beste, globalizazioaren, migrazio-mugimenduen, ingurumen-jasangarritasunaren, digitalizazioaren, multinazional handien boterearen, Europar Batasunaren eraikuntza problematikoaren eta nazio-estatuaren krisiaren eraginpean dago; bai eta, orain, tentsio birzentralizatzaile berrien eraginpean ere, horren ondorioz burujabetzaren kontzeptuan gertatzen ari den berrikuspenarekin.

Nazioartean esparru askotan eta askotarikoetan (industriari, ekonomia sozialean, gastronomian, arte plastikoetan, literaturan, zinemari, dantzan, musikan...) lortutako arrakastek erakusten digute posible dela tokian tokikotik abiatuta leku bat aurkitzea mundu globalean eta, gainera, tradizionala (edukia) modernotasunarekin (testuingurua) integratzea. Kalitatea da gakoa.

Horretarako, etorkizunerako taxutu behar dugun proiektuak partekatuta izan behar du, eredu demokratiko eta parte-hartzaile batean oinarrituta egon behar du, bai eta planetarekin konprometituta ere; eta lankidetzak, bestelakotasunarekiko errespetua, adostasuna, tolerantzia eta berrikuntza –soziala ere bai– izan behar ditu oinarri, aberastasuna sortzearekin batera desperekotasunak murriztu behar ditu, eta bere egin garapen kulturala, bizialdi osoan zeharreko hezkuntza eta euskara, barne-kohesioa handiagoa izateko elementu moduan.

3. Jendartea: nortasun anitza

Migrazioak, teknologia berriak eta, oro har, globalizazio fenomenoak dela eta, gaurko gizarteari buruz hitz egitean, aniztasuna aipatzen da ezaugarri nagusietako gisa. Hala ere, gizarteak beti izan dira anitzak, gizakiak berak ezaugarri, nahi eta beharrezan desberdinak dituen neurrian. Aniztasun hori oso modu desberdinean kudeatu da historian zehar: aniztasuna arazo bihurtu gabe onartu, eta modu baketsuan elkarbizitza gertatu da askotan, hainbat hiritako **burgoetan** bezala; desberdintasuna kaltegarritzat jo, eta eraso bortitzak gertatu dira beste askotan; eta desberdintasuna Jainkoaren edo Naturaren arau gisa hartu da beste askotan, eta gizakien arteko mailaketa **naturalak** ezartzeko erabili da, orduan, gizon-emakumeen arteko harremanetan edo esklabismoan bezala.



Aniztasuna, hortaz, ez da gertakari berria, baina gaur egun etengabe aipatzen dugu, elkarbizitza helburu hartuta, modu demokratikoan landu nahi dugulako, desberdinen kontrako erasoak baztertuta. Aldiz, gizaki guztien berdintasun unibertsa aldarrikatzen dugu, baina gure arteko berezitasunak onartuta.

Gauza askotan gara desberdin, txirikordaten diren desberdintasunak dira eta arazo bihur litezkeenak; hemen batzuk bakarrik aipatuko ditugu: sexu-generoa eta sexubidea, klase soziala, jatorria, nazio sentimendua, hizkuntza, kultura eta erlijioa... Eta hortik horrenbeste arazo sortzen da: sexu-genero diskriminazioa, sexubideagatik jazarpena, desberdintasun ekonomiko eta sozialak, desberdintasun politikoak, bazterkeria, xenofobia, nazio gatazka, hizkuntza gatazka...

Tirabira horiek isla dute gizartearen hainbat arlotan eta momentutan, baina Euskal Herrian oso nabariak dira hurrengoak: hezkuntza, hizkuntza politikak, komunikabideak, gizarte zerbitzuen kudeaketa, nazio gatazka eta gatazka politikoa (biolentzia, memoria historikoa, sinboloak, autodeterminazio/erabakitze eskubidea...), eta abar.

Horietako batzuk Liburu Zuri honen beste atal batzuetan landuko dira eta atal honetan modu orokorrean hartu nahi dugu aniztasuna aztergai gisa, Euskal Herriaren eta euskal herritarren perspektiban jarrita, gure arteko adostasunak bilatzeko helburuarekin. Adostasun mugatua izango da, ezinbestean, bereizten gaituzten arlo batzuk egiturazkoak direlako, kapitalismoa eta patriarkalismoa, kasu, zeharka landu beharrekoak. Hala ere, Euskal Herriaren kohesioa eta herritartasuna lantzen saiatuko gara, eta garrantzi berezia emango diogu Hezkuntzari, uste baitugu funtsezko papera betetzen duela kohesio lanean, bai eta komunikabideen paperari zein hizkuntzari. Honetaz guztiaz mintzatzeko,

aurreko bi urteotan izandako mintegi, foro eta jardunalditako iritziak hartuko ditugu oinarri.

Bestalde, mendeurreneko Kongresuan garapen propioa izan badu ere, egoki ikusi dugu 'Jendartea' izeneko esparru honetan kokatzea Euskararen Etorbizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen edo e5 deituriko dinamikaren emaitza. Azken atalean dago egindako lanaren azalpena.

3.1. Aniztasunaren kudeaketa: kohesioaren bila

Hasierako Liburu Berdean zein herritarren mahai eta gizarte foroetan, honako gai nagusiak izan ditugu eztabaidagai: kohesioaren definizioa, identitatea eta herritartasuna, lurraldea eta herritarrak, kohesiorako balio komunak, eta hezkuntza, eskola eta kohesioa. Ildo honen abiapuntua, Liburu Berdean agertutako diagnostiko partekatua eta egungo testuinguruak eskaintzen dituen aukera berrien irakurketa izan da, eta horri herritarren mahaietan zein gizarte foroetan egindako ekarpenak gehitu zaizkio atal honetan:

Joera ezkorrak

Euskal Herrian dugun aniztasunak liskarrak sortu ditu noizbait. Sarritan **etsaia sortuz** eraiki dira identitateak: ezberdintasunetan sakonduta, ghettoak sortu dira, eta hortik sektore sozial eta kultural ezberdinen arteko harreman eza eta mesfidantza handitu dira. Ghetto horien sorreran, funtsezko papera bete dute ezberdintasun sozialek, eta gizarte justu eta orekatu bat lortzeko oztopo nagusi gisa agertu dira.

Gaur egungo gizarteetan muga politikoek banatzen dituzte giza-taldeak, nazio-Estatu deritzonak zehazten du lurralde hori, eta bakoitzaren barruan bizi direnak herritarrak dira, nahiz eta herritar nor den edo nor izan daitekeen itxita ez dagoen eztabaida den. Jaiotzak erabakitzen du askotan, baina erlijioak,



kulturak, hizkuntzak edo beste elementu batzuek ere jokatzeko dute. Nazio-Estatu bateko herritar izateak eskubide eta betebeharrak multzo bat dakar berarekin, eta ondorioz, herrialde garatuetakoa herritartasuna lortzea pribilegio bihurtu daiteke.

Euskal Herria administratiboki bi estatu eta hiru esparru administratibotan banatuta egoteak zailtasun handiak sortzen ditu elkarlanerako. Euskal lurralde guztien kohesio proiektuak garatzeko oztoporik garbiena dugu banaketa administratiboa.

Identitate lokala gara mundu globalizatuan. Globalizazioak dakartzan onurak ukatu gabe, ezin diogu gure identitate lokalak ematen digun aberastasunari uko egin. Alabaina, kohesioaren mesedetan ezin dezakegu homogeneizazioan erori.

Historiari so eginez, ezaugarri asko ditugu komunean euskal lurraldeetako biztanleok: berdintasuna, zintzotasuna, lankidetzak, lanerako gaitasuna, elkartasuna... Horrez gain, baina omen dugu herri sentimendu sendoa eta auto-eraketarako gaitasuna: munduko herri txikien artean hizkuntza propioa zabaltzen ari den bakarretakoak gara. Alabaina, horrela aritzeak topikoetan jausteko arriskua dakar.

Elkarlana asko goraiatzeko dugu, baina gaur oztopo handia du indibidualismoan: norbanakoen arteko harremanak gero eta urriagoak eta ahulagoak dira, eta horrek gizarte hobea lortzeko elkarlana zailtzen du.

Joera baikorrak

Hizkuntza, kultura, gu eta besteen arteko bereizketa... Identifikazio sinboliko bat behar dugu, zentzu bat, eta identitatea da zentzu horren iturria. Identitatea, kultura –zentzu zabalean ulertuta– ezaugarri bat edo multzo bat aintzat hartuta zentzua eraikitzen duen prozesua da, autodefinizio prozesu bat. Autodefinizio horretan identitate ugari elkar litezke, bai norbanako batean, bai kolektibo batean. Aniztasun

hori maiz tentsio eta kontraesan iturri izanda ere, zaindu beharreko elementu oso positiboa dugu.

Anitzak gara gure lurralde honetan. Aniztasunaz baina, aniztasunez hitz egin beharko genuke: kultur-aniztasuna, jatorri-aniztasuna, nazio-aniztasuna, sexu-genero aniztasuna... Hortaz, aniztasunaren dimentsio askotarikoez hitz egin behar dugu, eta horren aurrean, aniztasunaren afirmazioa egin behar da. Aniztasun horiek kudeatzeko modu bakarra topatzea ezinezkoa da. Hain justu, hauxe izan liteke eskolaren buruhausteen jatorri bat: aniztasunaren dimentsio askotarikoei erantzun beharra. Aniztasunaz aritzean ere, erronka bat planteatu da: aniztasunaren kontzeptuaren problematizazioaren beharra. Aniztasuna kontzeptua erabiliegia da eta, askotan, jendearen arteko bereizkeria harremanak ezkatzen ditu.

Lurralde gehientsuenak nazio identifikazioari dagokionez anitzak dira. Nazio aniztasun horrek, agerikoa denez, intentsitate edota esanahi politiko desberdina eskura dezake, eta eragin desberdina izan lurraldearen kohesioan. Euskal Herria ere ez da salbuespena horretan, eta euren burua nazio desberdinarekin –edo desberdinekin– identifikatzen duten herritarrak ditugu bertan.

Helburu komunak lortzeko, elkarren arteko indarrak biltzea ohikoa izan da gizarte guztietan, eta Euskal Herrian ere adibide ugari ditugu (auzolana, kasu). Kohesioaren bidean, herrialde bateko biztanleen helburu komun eta zabal horiek bideratzeko, ezinbestekoa da giro egokia sortzea (konfiantzazko giroa, batik bat), denen arteko indarrak batu eta aurrera egin ahal izateko. Indarrak batzeko prozesu horretan, ordea, desadostasunak agertu eta gatazkak sortzen dira; baina gatazkak ere aurrera egiteko izaera eraikitzailea har dezake. Alabaina, gatazkek aparte, beste erronka bat kohesioaren beharra ikustaraztea da: jende guztiak ez du kohesioaren beharra ikusten, horrek bere proiektuaren osotasunari uko egitea ekarriko bailuke. Horren



aurrean errespetuz eta kontsensuz sorturiko proiektu adostuen beharren onurak ikusarazi behar dira.

Euskal gizartearen aniztasun kulturalaz jabetuta eta bazterkeriak albo batera utzita, euskara tresna garrantzitsua izan daiteke identitate partekatutako horren eraikuntzan eta, ondorioz, gizartearen kohesioan. Euskal Herriko zazpi herrialdeetako bizilagunek euskara izan dezakete lotura sinboliko gisa, biztanle guztiek euskaraz hitz egiten jakin ez arren. Hartara, euskal hiztun izan edo ez, euskara maitatzea eta denon ondareztat hartzea lortu beharko litzateke. Zeregin hori euskal gizarte osoari dagokio, baina eskolari dagokionez, euskal hizkuntza erabiltzeko gaitasuna eta motibazioa eskuartean duen erronka garrantzitsuenetariko bat dugu.

Hezkuntzak berebiziko papera du kontzientzia kritikoaren sustapenean eta, bide horretan, gizartearen norabideaz irizpide propioak izateko gai diren pertsonak hezi behar ditu. Familiari edota komunikabideei erantzukizunik kendu gabe, hezkuntza sistemak, unibertsitatez besteko mailetan batez ere, inork baino ahalmen handiagoa du herritar arduratsuk –hots, gainerako herritarrei lotzen dituzten helburu komunez jabetzen direnak– sortzeko eta, beraz, gizarte kohesionatuaren eraikuntzan rol garrantzitsua jokatzeko. Horrez gain, hezkuntza sistemak gizartearen norabideaz modu arrazionalen hausnartzeko eta bertako erakundeetan aktiboki parte hartzeko baliabideak ematen dizkio ikasleari. Era horretara, estereotipoetan oinarritutako xenofobia eta mesfidantza uxatzeko tresnarik eraginkorrena eskolak bideratutako dogmarik gabeko eta eztabaida zabalean oinarritutako heziketa da. Baina identitate zibikoa transmititzeak berarekin dakar nolabaiteko identitate partekatua egotea. Hezkuntzak gaitasuna du iragana, orainaldia eta etorkizuna lotzeko, etengabe berriztatzen den komunitateko kide sentiaraziz herritarrak haurtzarotik bertatik.

Agertokiak

Eusko Ikaskuntzak garatutako gogoeta prozesu osoan zehar diagnosi partekatua osatuz joan da eta aditu, eragile zein herritarren kezka, nahi eta proposamenekin batera, hainbat agertoki azaldu dira. Tartean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- **Herritartasun eredu berri bati forma emateko aukera.** Hau da, gaur egungo gizarteak dituen erronka berriei aurre eginez, herritartasunaren eredu inklusiboago baterantz abiatzeko aukera antzematen da, tartean inmigrazioak eta globalizazioak dakarten erronka berriak gaindituz.
- **Kontratu sozial berri bat sortzeko aukera.** Ezberdinen arteko indarrak biltzeko sinergia eta indar nahikoa ikusi da, bai eta kohesioaren bidean ager daitezkeen oztopoak auzolan eta elkarlanean gainditzeko borondatea.
- **Hezkuntzaren ekarpena.** Hezkuntza sistemak inork baino ahalmen handiagoa du herritar arduratsuk sortzeko eta, beraz, gizarte kohesionatuaren eraikuntzan rol garrantzitsua jokatzeko. Hezkuntzaren bitartez aniztasunaren kudeaketa inklusiboa garatzeko aukera dago.

Agenda

Aipatutako agertokiak garatzeko eta erronkei aurre egiteko, hauek dira planteatutako ildoak:

- **Herritartasun eredu berri bati forma emateko.**
 - Errealitate “ez propioen” onarpena bultzatu behar da, hori baita zer edo zer amankomunean sortzeko lehenengo urratsa: bestearen errealitatearen zilegitasuna onartzea, aniztasuna balioan jarritz. Indibidualismoa eta proiektu kolektibo komunak



garatzeko ahalmena bideratzeko, norberaren eta komunitateen ahalduntzea beharrezkoa da.


Horretarako, ahalduntzea bultzatzeko tresnak eskatzen zaizkie erakundeei, bai eta eragileei ere.

- Berdintasunaren bidean, oinarritzko behar eta eskubideei berehalako erantzuna (hezkuntza, osasuna, etxebizitza...) ematea beharrezkotzat jotzen dute, ezberdintasun sozialak leundu eta gizarte orekatuago bat lortzeko biderako lehenengo urrats gisa. Honen bidean, kalitatezko hezkuntza zerbitzu publiko gisa eta ekonomiaren demokratizazioa ezinbesteko elementuak dira. Horrez gain, Giza Eskubideak, giza balio unibertsal bihurtzea ere erronka bezala agertzen da, horien aurkako jarreraren igoera sumatzen baita gizartearen zenbait sektoretan.
- Gizarte zibilaren antolaketa handitzea ezinbestekotzat jotzen da. Gizarte mailan eragitea oso garrantzitsua da eta horrela ikusi da, adibidez, pentsioen gaian, euskalgintzan, auto-eraketarako mugimenduetan, ekologian... edo mugimendu feministaren borroketan. Gizarte antolatuak sistema eraldatzeko duen potentziala ikusarazi behar da. Horretarako, abiapuntua parte-hartzearen kultura berri bat sustatzea litzateke: gizarteko periferien ikusgarritasunak eta “bottom-up” parte-hartze eskemek berebiziko garrantzia dute.
- Euskal Herriak nazio sentimendu anitzak ditu. Herritartasunaren kontzepzio zabalak eta oinarritzko eskubideen bermeak kohesioa bultzatu behar du. Euskal Herrian dauden mundu ikuskera zein identitate ezberdinen onarpena zein zilegitasunaren aitortzea egin eta nazio-sentimendu anitza sortu behar da. Nafarroaren kasuan, identitate nafarraren bultzada ikusten da beharrezko, adjektibo gehiagorik gabe.

Nafarren arteko kohesioa euskal lurralde guztien arteko kohesiorako lehenengo urratsa izan daiteke.

• **Kontratu sozial berri baten sorreran laguntzeko.**

- Aniztasunaren kudeaketa integratzailea behar da: aniztasunaren balio positiboak nabarmenduz, komunitatea eraiki behar da, monolitismo eta homogeneizaziotik aldentuz. Horretarako, etorkizuneko proiektu partekatuak bilatu behar dira, eta horren bidean, talka sortzen duten espazioetatik aldentu, eta berriak sortzea proposatzen da.
- Konfiantza birsortzeko sareak ehundu behar ditugu. Gizarte/herri baten kohesiorako funtsezko elementu den heinean, norbanakoen eta giza-taldearen arteko konfiantzazko harremanak lortzeko espazioak sortu behar dira. Finean, kontratu sozial berria beharko genuke, eskuzabaltasunean, umiltasunean eta eztabaidan oinarritua. Horren hasiera balio komunak izan litezke (balio minimo komunak).
- Aipatutako kontratu sozialaren zutabeetako bat aniztasunaren onarpena eta kudeaketa egokia izan beharko litzateke, eta horretarako herritarren oniritzi aktiboa behar da. Ezinbestekoa da etengabeke heziketa ariketa gizartearen formazio esparru guztietatik: familia, administrazioa, komunikabideak, hezkuntza sistema, ...
- Inposaketarik gabeko herri proiektua behar dugula ondorioztatu da. Akordio zabalak lortzeko ahaleginak eskatu behar zaizkie eragile politiko, sozial zein ekonomikoei. Euskal lurraldeen arteko elkarlan eta kohesioa akordio zabal eta kontsensuaren bidetik etorriko da, bestearen errekonozimendu eta errespetutik.




- Beharko litzateke denontzako proiektu kolektiboa, maila sinbolikoa eta materiala bil litzakeena. Sinbolikoa, Euskal Herriko marko geografikoak nolabaiteko batasun eta komunitate sentimendua ematen digulako; baita materiala ere, agerian geratu beharko litzatekeelako proiektu horrek nolabaiteko onura ekarriko diela denei, nahiz eta euren interesak oso bestelakoak izan beste maila batzuetan. Hau gauzatzeko, prozesu konstituziogile inklusiboa proposatzen da. Prozesu konstituziogile honek lidergo sendo bat beharko luke, interes komunen artikulazioa (gehiengo mentalitatea gaindituz eta konfiantza sareak sortzearen ondorioz etorritakoa) eta parte-hartzerako tresnen gaitzea maila lokalean.
- Euskal lurraldeen kohesioaren bidean, erakunde partekatutak bultzatzea ikusten da beharrezko, ez soilik instituzio formalen mailan, euskalgintza edo kulturgintza erakundeei dagokienez ere. Euskal lurralde ezberdinen elkarlanerako ere Euroregiona aukera bezala ikusten da, behintzat mapa bat bezala (nahiz eta guztiz zehatza ez izan, Ipar Euskal Herria Akitania Berriko Errejiotan sartuta baitago) kokatzen gaituen heinean. Konkretutik hasten den elkarlana proposatzen da. Hona zenbait proposamen zehatz:
 - > Euskal “Erasmus” proiektu baten garapena, euskal gazteek Euskal Herria ezagutu dezaten.
 - > Osasunaren arloan elkarlanaren sakontzea osasun-erakunde biteraketa lortze bidean.
 - > Euskalgintzak eta kulturgintzak osatzen dituzten espazio partekatutak areagotzea.
 - > Euskal Herri mailako elkargo profesionalak bultzatzea.
 - > Hezkuntza eta Lanbide Heziketa alorreko espazio partekatutak bultzatzea.

• Hezkuntza sistematik ekarpena egiteko.

- Pertsona askeak, autonomoak eta kritikoak hezitzeko helburuarekin, Hezkuntza-Itunak egin beharko litzateke tresnak eta baliabideak finkatzearekin batera gutxienez honako ezaugarriak izango litzukeena:
 - > Bizitzan zehar beharrezko diren kompetentziak garatu.
 - > Berdintasunaren paper zentrala.
 - > Aniztasunaren onarpena eta kudeaketa.
 - > Kritikotasuna sustatzea, hots, irizpide argiekin gaiak aztertzeko gaitasuna.
 - > Parte-hartze kritikorako heziketa.
 - > Aniztasun sexualean, zein emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
 - > Eleaniztasuna euskara ardatz izanik.
 - > Osasun hezkuntza eta ohitura egokiak.
 - > Inguruarekiko zaintza eta errespetua.
 - > Partaidetzaren eta gatazkak konpontzeko gaitasuna.
 - > Bizitzan zeharreko ikasteko eta egokitzeko tresnak.
- Testuinguru honetan goi ikasketei begira, beharrezkoa da pertsonen autonomia indartuko duten programak sustatzea, partaidetzaren eta gatazkak konpontzearen inguruan; eta hezkuntza erakunde kudeaketan nahiz zientzia ikerketaren jomugan gizarte eragileei eta interes lokalei lehentasunezko tokia ematea. Finean, gizarte transformaziorako ikasleek eragile aktiboak bihurtuz.

3.2. Komunikabideak

Ildo honen abiapuntua, Liburu Berdean agertutako diagnostiko partekatua eta egungo testuinguruak eskaintzen dituen aukera berrien irakurketa izan da. Komunikabideen paperaz herriaren eta jendartearen ekoizpen gisa, honako ideiak azpimarratu daitezke:



Joera ezkorrak

Euskal Herria ez da, gaur gaurkoz, komunikaziozko herria. Masa komunikazio egitura sendoenak, alde handiarekin, Espainia edo Frantzia mailakoak dira. Eta horri komunikazioaren globalizazioak ekarritako uholdea gehitu behar zaio. Euskal Herriko komunikabideei dagokienez, gutxi dira Euskal Herriko zazpi herrialdeetara zabaltzen direnak edota Euskal Herria erreferente gisa dutenak; hortaz bertakoek islatzen duten irudia, orobat, zatiketa autonomikotik datorrena da, oso aukera gutxitan agertuz zazpi lurraldeetako errealtatea. Bestetik komunikabide hegemonikoetan birsortzen den errealtateak ez du benetan garena islatzen. Boterearen gainagerpena dago (izan politikoa, ekonomikoa, generokoa, kulturala, linguistikoa edo bestelakoa), eta jendartearen sektore askoren azpiagerpena. Merkatuak gehiegizko presentzia du (publizitate zuzen eta zeharkakoaren bidez), eta kultur balio batzuk baztertzen dira, beste batzuen mesedetan. Hau da, Euskal Herria komunikabide gehienentzat ez da errealtate bat; Estatu-espazioak informatzen gaitu eta gehien batzen gaituzten informazio eta kultur erreferenteak Euskal Herrikan kanpo daude.

Nazioa ez da behin lortu eta betirako daukazun titulua. Egunero-egunero elikatu behar da; beste batzuek beren nazioa eta beren jendartea egunero elikatzen dituztelako. Eta komunikabideek berebiziko garrantzia dute hor.

Aniztasuna ere hizpide dugularik, aniztasun informatibo falta sumatzen da Euskal Herrian. Prentsan, oso egunkari gutxiren eskutan dago irakurleriaren % 75-80 inguru, lurralde guztietan. Telebistan, Nafarroan dagoen telebista propio bakarrak ez du ia presentziarik, eta Ipar Euskal Herrian ez dago lurralde osorako kanalik. Aniztasun falta honi gehitu behar zaio hedabide nagusiak esku pribatuetan daudela; eta publikoen kasuan pribatizaziorako joera hartzen ari dira. Honen aurrean, herri ekimeneko medioak beharrezkoak lirateke.

XXI. mendean, oraindik ere, estatuak dira kohesio nazional, kultural eta hizkuntzazkoa jorratzen dutenak. Hortaz, kohesioaren bidean lagungarri diren tresna eta baliabideen falta oso nabaria da.

Espazio digitalak aukerak dituen bezala, arriskuak ere baditu. Horieta bat kritikotasun eza izan daiteke. Espazio honek definitzen duen ezaugarrietako bat da bat-batekotasuna eta honek kritikotasun eza sortzen du. Honen aurrean, kritikotasuna sustatzen duten hedabideak inoiz baino beharrezkoago ditugu.

Euskal Herrian ditugun hizkuntzek agenda komunikatibo ezberdinak sortzen dituzte. Honi aurre eginez, hizkuntza ezberdinek agenda desberdinak sortu beharrean, agenda bakarraren puzzlea osatzen lagundu behar dute. Honetan ere, badu pisu garrantzitsua euskararen presentzia urriak komunikabideetan (Nafarroaren kasuan are larriago suertatzen dena). Euskararen kohesio-generadore aukerak baliatu eta euskararen presentzia publikoa handitu behar da, batik bat, komunikabideen bitartez.

Joera baikorrak

Komunikabideek ez dute errealtatea islatzen soilik: errealtatea eraiki ere egiten dute. Herri bat zer den eta zer ez den esaten dute, 'gure' eta 'beste' zer diren definitzen dute. Nazioaren eguneroko bizipen zuzena oso mugatua dute nazio kideek: beste nazio kide gutxi batzuekiko harremana, espazio fisiko gutxi batzuen esperientzia zuzena, eta abar. Alabaina, bitartekotutako komunikazioaren bidez, pertsonak nazio osoaren errepresentazioa jasotzen eta esperientziatzen du: lurraldea irudikatzen duen eguraldi mapa, nazio horren ordezkari eta erakunde politikoen jarduna, gizarteko erreferenteen presentzia, edota jende soilak ordezkatzeko duen 'beste kidea'. Nazioak, neurri handi batean, komunikabideen bitartez bizi gaitu nazio kideok.



Nazioa bezala, jendartea ere ekoizten dute komunikabideek. Haietan imajinatzen da komunitatea, bertan markatzen dira kanpoa eta barrua, araua eta bazterra, hegemonikoa eta subalternoa, ohikoa eta exotikoa. Alegia, hor ere jokutzen da komunitatearen izaeraren eta gaitasunen irudikapena. Zer garen, nortzuk garen eta ba ote garen. Horregatik da garrantzitsua, gainontzeko eremu guztietan legez, hemen ere interseksionalitatearen kontzeptua aintzat hartzea: hau da, gurutzatu adina elkartzen garen izate, identitate, praktika eta diskurtsoak harilkatzea, elkar jostea. Eta, beti, aliantzak indartzea eta menderakuntza mailak bereiztea.

Azken urteetako aldaketa garrantzitsuek euskarri eta aztura berriak ekarri dituzte. Medio tradizionalaz gain medio eta rol berriak sortu dira, eta denak dira landu beharrekoak herri eraikuntzaren ikuspegitik. Produktuen eskaintza, igorle-hartzaile harremana, kontsumo esperientzia eta bizimoduarekin txirikordatzeko modua bera aldatu dira. Iraultza handi bat suertatu da. Kontuan hartu behar da ere komunikazioa ez dela informazioaren arlora mugatzen soilik, berdin hartu behar dira errealitatearen eraikitzailetzat aisialdira zuzendutako zein fikziozko edukiak, jendartea horrela ere eraikitzen baita, mendeetan zehar kondairekin eraiki den moduan.

Aipatu da Euskal Herria ez dela komunikaziozko herria, baina egoera hau ez da patua. Inguruan ditugun estatuak ondo asko arduratu dira beren komunikaziozko nazioa eta beren irudiko jendartea ekoizten. Gurean egiteke dago zeregin hau, nahiz azken hamarkadetan tresna baliotsuak sortu diren –nagusiki herri ekimenetik- gure kulturaren tradizioari segida eman diotenak. Baina saio horiek ez dira nahikoak izan euskal komunikazio sistema propio eta sendo bat eraikitzeko. Hala ere, esperientzia haietatik ikasi eta martxan jartzeko aukerak daude.


Komunikabideak lanabes ezinbestekoak dira egungo munduan gutxitutako hizkuntzen berreskurapen, sustapen eta normalizaziorako. Euskara izanik gure lurraldearen kohesio elementu funtsezkoetakoa eta, halaber, gutxitua egonik, komunikabide sistema oso eta lehiakorra ezinbestekoa du etorkizunean bizitzeko.

Ingurune digitalean (tresnez gain, espazio gisa ere ulertuta), hedabide klasikoetan ez bezala, herritarrek aurrez-aurre egoteko espazio partekatua dute: herri bereko biztanleek bertan aurkitu, ezagutu, elkar ikusi, edo hitz egin dezakete. Euskal Herriaren kasuan, distantzia geografiko zein banaketa administratiboak gaintuz, euskal herritarrek, euskal hiztunak, biltzeko espazio partekatua daukagu. Egunkariak, Telebista eta Irratiaren haria jarraituz, historian zehar lehen aldiz, zazpi herrialdeetako eta Diasporako (zortzigarren lurraldea) herritarrok batzeko aukera daukagu. Finean, espazio digitalak aukera handiak eskaintzen ditu kohesio generadore bezala, komunitatea eratzeke: komunikazioa errazten du eta parte-hartzea bultzatzeko aukera paregabea eskaintzen du, denon eskura dagoen heinean. Gainera, potentzial izugarria du euskararen sustapenerako eta euskal kulturaren ikusgarritasunerako.

Agertokiak

Eusko Ikaskuntzak garatutako gogoeta prozesu osoan zehar diagnosi partekatua osatuz joan da eta aditu, eragile zein herritarren kezka, nahi eta proposamenekin batera, hainbat agertoki azaldu dira. Hauen artean, honako hauek nabarmendu daitezke:

- **Euskal komunikazio sistema indartzeko aukera.** Eragile, norbanako zein erakundeen elkarlanaz, euskal komunikazio sistema indartzeko aukera ikusten da. Honekin batera, informazioaren kalitatean erreferente bihurtzeko aukerak ere ikusten dira.



- Komunikazio modu berriak baliatuz, euskara komunikazio sistemaren zentralitatera eramateko aukera.
- Espazio digitalean euskal lurraldeak kokatzeko aukera. Espazio digitala hutsik dagoen espazio dela kontuan izanda, euskal lurraldeak bertan kokatzeko aukera ezinhobea da.

Agenda

- Euskal komunikazio sistema indartzeko.
 - Egungo komunikabideen fragmentazioa dela eta, sistema gisa jokatu beharra dago, eta horretarako politikak eta jarrerak diseinatu behar dira. Euskal Herri osoa bere baitan hartuko duen espazio bat eratzeko, dimentsio anitzak eduki beharko ditu sistema horrek: hizkuntza (euskara, gaztelania, frantsesa), maila (tokikoa, herrialdekoa, nazionala) medio mota (medio tradizionalak, medio berriak, zinema, publizitatea...), eta eragileak (herri ekimena, ekimen publikoa, ekimen pribatua).
 - Premisa horretatik abiatuta, premiazkoa da Euskal Herrirako Komunikazio Plan Estrategiko bat adostea eta abian jartzea. Beste sektore batzuetan jadanik egin den bezala (industriar edo zientzian esaterako), komunikazioa arlo estrategikotzat definitu eta hurrengo urteetarako helburuak, ekintzak, baliabideak eta ebaluazioak ezarri behar dira. Plan horrek ahalik eta eragile gehien artean adostua behar du izan.
 - Euskal Informazio Agentzia bat da komunikazio sistema indartu, espazio propioa sendotu eta puntu mankomuna eragiteko bide garrantzitsuenetako bat.
 - Azkenik, Euskal lurraldeen kohesioaren bidean, Euskal Herri mailako Telebistaren sorrera proposatzen da, hiru egitura administratiboen artekoa.

- Euskara komunikazio sistemaren zentralitatera eramateko.
 - Euskara izango da, etorkizunera begira, euskal komunikazio espazio propio eta amankomuna eraikitze euskarri nagusia. Horretarako ezinbestekoa da gure hizkuntza historikoa komunikazioaren zentralitatera eramatea, oraingo errealitatea ahaztu gabe baina gertatzen ari diren aldaketa soziolinguistikoak gogoan izanik.
 - Jadanik euskaraz aritzen diren komunikabideak indartzeko politikak garatu behar dira, eta haien arteko elkarlana bultzatu.
 - Oraindik euskara gutxi erabiltzen duten edota batere erabiltzen ez duten komunikabideak hizkuntzara erakartzeko politikak ezarri behar dira, arauketaren eta laguntzaren bitartez.
 - Komunikazio politikak hezkuntza politikarekin adostu beharra dago, komunikabideen bitartez eskolak abiatutako euskalduntze politikari osagarritasuna eta jarraikortasuna emanez. Beti ere euskaldundu berriak euskaraz sozializatzen laguntzeko helburuarekin.
- Espazio digitalak dakartzan aukerak probesteko.
 - Euskal espazio komunikatiboa sortzeko edo indartzeko, sinergiak sortu behar dira komunikazioan dabilzan eragile eta norbanakoen artean. Honetarako, espazio digitalerako think-tank baten sorrera proposatzen da, komunikazioan dabilzan eragileez osatua, eta erakunde publikoen inplikazioarekin.
 - Espazio digitalak parte-hartzerako aukerak ere zabaltzen ditu. Gurean, ordea, ez da erabiliegia momentuz; erakundeei, beraz, erabaki politikoetan parte-hartze digitala bultzatzeko plana eskatzen zaie.



- Creative Commons-en erabileraren sustapena, bakoitzak bere jakintza modu librean parteka dezan.

3.3. Euskaraz garatu nahi duen komunitatea

Hizkuntza gorako bidea egiten ari den arren eta aurrerapauso handiak eman diren arren, Unescoren Arriskuan dauden Munduko Hizkuntzen Atlas-ak dio euskara egoera zaurgarrian dagoela oraindik ere, eta hizkuntzaren aldeko ekimena indartu eta hobetu beharra dago.

Munduan ez dago hizkuntza gutxituak biziberritzeko joera orokorrik, gehienak daude biziraupen ahaleginetan murgilduta. Aldiz, euskararen biziberritze prozesua harago doa eta hazkunde nabarmenak lortu ditu. Horregatik, esparru honetan hobetsi da begirada jartzea biziberritze prozesuan eta bere eragileetan, munduko joeretan eta haien baitan nola jokatu antzematean baino.

Era berean, euskararen biziberritze prozesuari begira jarrita, euskararen egoera aztertu baino euskaraz garatu nahi duen komunitateak dituen kapital eta aktiboetan jarri da fokua. Proiektuaren helburu nagusia da datozen hamarkadetarako euskalgintzaren aro berria konfiguratzeko laguntzea; eta horretarako:

- Marko interpretatibo berria lantzea, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen kapitalen analisisan oinarrituta.
- Komunitatearen kapiletatik abiatuta, etorkizunerako amestutako eszenarioen konstelazioa irudikatzea.
- Desiratutako eszenarioen konstelaziora iristeko bide-orriaren arkitektura lantzea, ezagutza eta praktika mailako ekarpen anitzak jasoz.

Analisia ondoko indar-idea nagusi hauetan oinarritzen da:

- Konplexutasuna. Egungo gizartea errealitate sistemikoa eta konplexua da.
- Polizentrismoa. Gizarte indarrak anitzak dira, polizentrikoak.
- Sinkronizazioa. Polizentrismoaren konplexutasunean, bateratasun uniformeak baino heterogeneidateen sinkronizazioak har dezake balioa.
- Komunitatea. Fokua ez da euskararen egoeran jartzen, euskaraz garatu nahi duen komunitatean baizik, bere egungo baliabideetan eta etorkizuneko proiektioetan.

Proiektuaren eredu metodologikoa Arakatzeko apreziatiboaren ikuspegian oinarritutako eraldaketa-hausnarketan fokalizatu da. Sistemaren muiin positiboan zentratzen da arakatzeko eta eraikitze prozesu kolaboratzailea, dauden indarrak apreziatuz eta balioan jarriz.

Joera ezkorrak

Nazioarteko joeren arabera baino, euskararen etorkizuna eraikitzen ari da biziberritze prozesu endogeno baten gainean. Prozesuaren hasiera duela 50 urte inguru kokatzen da, euskara batua, ikastolak eta gau eskolak 60ko hamarkadan sortu bai ziren. Denbora honetan lorpen handiak izan dira, baina higadurak ere nabari dira: euskararen erabilera ez da ezagutzaren erritmoan hazten, arnaguneetan galerak ere agertu dira, gizarteko euskalgintza eraginkortasuna galtzen ari da prekaritatearen eta berrikuntza ezaren ondorioz... Egoera honi krisi aktiboa deitu izan zaio: krisian dago prozesua, orain artekoak bere horretan ez duelako balio iraganeko erritmoak lortzeko; haatik, eragileak oso aktibo daude berrikuntza palanken bila.



Bigarren arazoa politikoa da: 80ko hamarkadan, Espainiako trantsizioaren aurrean euskal politikan arrakala sakona sortu zen, erakunde berrien aldeko apustua egin zutenen eta erakunde horiek borrokatzea hobetsi zutenen artean. Arrakala honek erakundeak vs. herri mugimendua konfrontazio nabarmena eragin du euskararen biziberritze prozesuan, energia asko zurrupatuz prozesuari berari.

Joera baikorrak

2010eko hamarkadan 'aro politiko berria' deitu izan denak distentsioa eragin du euskal gizartean eta inflexioa ekarri du euskararen gizarte erakunde eta herri erakundeen arteko harremanera. Inflexioaren adierazle dira, esaterako, 2017ko Korrikan bi aldeetako ordezkari guztiak kilometro bat elkarri eskua emanda egin izana Hendaia eta Behobia arteko zubi gainean; edota Euskaraldia ekimena, lankidetzako publiko-sozialaren emaitza itxaropentsua; edo, zergatik ez, e5 dinamika honen baitan oso agerikoak izan diren enpatia eta bateratasuna partaide guztien artean, iraganeko konfrontazioaren orde. Euskalgintza berria sortzen ari da, enpatikoa eta lankidetzazkoa.

Bestalde, Nafarroan aldaketa politikoa gertatu da azken gobernuan eta Ipar Euskal Herrian hiru lurralde historikoak biltzen dituen Euskal Hirigune Elkargoa sortu da. Ondorioz, aspaldiko mendeetan lehen aldiz Euskal Herri osoa hartzen duten erakunde publikoetan badaude hizkuntza politika aktiboak euskararen alde; are gehiago, hiru administrazio nagusiak badute lankidetzako marko bat politika horiek elkarri begira jartzeko, osagarritasunen eta interes komunen bila. Tokian tokiko egoera errespetatuko lukeen hizkuntza politika eta estrategia bateratua finkatzeko oinarria izan daiteke. Bestela esanda, euskararen herria eraikitzen hasteko aukera dago.

Agertokiak

Sei kapital identifikatu dira eta bakoitzean honela irudikatu da etorkizuna 2040an:

• Giza kapitala

- Egungo joeretan nagusi da euskararen aldeko jarrera baikorra; gero eta gehiago dira euskara ikasten, ezagutzen eta ulertzen duten herritarrak; badago euskaltzale multzo indartsua eta nabaria da herri ekimenean antolatzeke ahalmena.
- Oinarri horren gainean irudikatu da gizartearen zati handi bat euskaldun aktibo, koherente eta ahaldunduz osatua egotea, sare formal zein informaletan asertibitatez eta enpatiaz euskaraz hitz egingo duena; halaber, erdaldunen artean gehiengo aliatua izatea eta, euskara jakin ez arren, euskarari eta euskaraz bizi nahi duten herritarrei babesa ematea.

• Kapital soziala

- Irudikatu dugu hizkuntza arauak, erreferentziak eta marko erakargarriak baliatuta, euskarak erakunde publiko zein pribatuetan presentzia handia irabaztea eta hizkuntza hautua benetako aukera bihurtzea; baita, euskalgintza sendoa eta eraginkorra eraikitzea, eta hiztun ahaldunduak kokatzea dinamika sozialen erdigunean eta boterearen erabakiguneetan; azkenik, euskararen komunitateari gizarte babesa handitzea, normaltasunez garatzeko ekosistema egokia izan dezan.

• Kapital kulturala

- Eszenario desiragarria litzateke uniformizazio joerei aurre eginda, euskarak eskaintzen duen singularitasuna gizartean hedatzea, aldi berean kultura eta hizkuntza



aniztasunaren joko zelaian kohesiorako tresna bihurtuta; euskal sortzaileak eta hartzaileak aktibo egotea, kontsumo txiki eta masiboetan euskarazkoek tokia izan dezaten; eta kulturaren transmisioan baliabideak erabiltzea euskarazko edukiek lehentasunezko tokia har dezaten.

- **Azpiegitura kapitala**

- Irudikatu dugu 2040an administrazio publikoak osorik prestatuta egotea euskal hiztunaren eskubideak bermatzeko eta biziberritze prozesuaren motorra izateko, gizarteko erakundeekin lankidetzan; baita euskarazko komunikabideen sistema garatuta egotea, hau ere lankidetzan publiko-sozialean oinarrituta; ingurune digitalean estrategia bateratuaz jokatzeko, euskararentzat dauden aukerak baliatzeko, eta ezagutza kudeatzea gizartean euskarazko ekimenek eragin ahalmen handia izan dezaten.

- **Kapital ekonomikoa**

- Datozen bi hamarkadetan, behar genuke euskarak lan hizkuntzaren funtzioa bereganatzea, eskolak egindako ekarpena garatu dadin gazteen ibilbide profesionalean; baita euskararen industria lehentasunen artean kokatzea, biziberritze prozesuari dagokionean abanguardian gauden aldetik; eta, oro har, baliabide nahiko eta modu egonkorrean esleitzea euskararentzat, justiziazkoa izateaz gain, euskararen komunitateak gizartean duen pisu erlatiboa handitzeko.

- **Kapital politikoa**

- Akordio egokietan oinarrituta, irudikatu dugu euskarak 2040an legezko estatus nahikoa izatea, eskubide urraketarik egon ez dadin bere hiztunentzat; baita ere lankidetzan egituratuta egotea euskararen erakunde

publikoen eta sozialen artean, eta baita lurralde guztien artean; azkenik, euskararen komunitateak dagokion tokia eta ardura hartzea munduko hizkuntza gutxituen eta txikien artean.

Agenda

Liburu Zurian jasoko diren proposamenen artean hauek dira ideia nagusienak:

Giza kapitala handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Hizkuntza ezagutza**

- **Ulermen unibertsala:** ezagutza hedatzeko bidean, hiztunen arteko hizkuntza gatazkak gaintze aldera eta elkarbizitza linguistikoaren berme gisa, ulermen unibertsala lortzeko estrategia ezartzea, hizkuntza libreki hautatzea posible izan dadin berdintasun baldintzetan.

- **Hizkuntza gaitasuna**

- **Nahikotasuna:** alde batetik, biziberritze prozesua elikatze hezkuntza sistema eraldatzea, hizkuntza nahikotasuna berma dezan; eta, bestetik, euskalduntze sistema malgu. Bi ildo hauetan lortu beharrekoa da hiztun funtzionala, euskaraz gutxienez gaztelaniaz edo frantsesez bezain ondo moldatuko dena.

- **Portaera aktiboak**

- **Aktibazioa eta jarrerak:** euskara hedatzearekin batera hizkuntzaren balioen kontzientzia garatzea, hiztunaren atxikimendua eta jarrera aktiboa eragiteko.

Kapital soziala handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Arauk**

- **Hizkuntza eskubideak eta arauak:** gizartean euskarak duen presentzia areagotzeko eta hizkuntza berdintasuna



bermatzeko, hizkuntza eskubideak jartzea beste eskubide sozialen pare, legedian eta esparru guztietako arauetan txertatuta. Bide horretan, aintzat hartzekoa da 2016an Donostian sinatutako Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa.

- **Euskalgintza**

- **Euskalgintza:** euskararen komunitatean autoeratu den euskalgintza biziberritzea, eraldatzea eta indartzea, baliabide eta funtzio egokiak esleituta, eta modu eraginkorrean koordinatuta, esparru estrategikoetan eragin-ahalmena izan dezan, euskararen mesedetan.

- **Aliantzak**

- **Aliantzak:** euskara biziberritzeko dinamika gizartearen bizkarrezurra diren beste hainbat dinamika sozio-ekonomiko eta kulturekin uztartzea, elkar indartzeko.

- **Atxikimendua**

- **Gizarte babesa:** euskararekiko atxikimendua gizartearen ere elikatzea eta garatzea, horretarako behar diren mezuak eta ezagutza hedatu.

Kultura kapitala handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Identitatea**

- **Euskal identitatea, euskaraz:** gizartearen esparru guztietan euskarazko ereduak hedatuko dituen proposamen multimodala lantzea, kanal guztietan, errejistro formalak eta informalak erabilia.

- **Sorkuntza**

- **Sorkuntza eta kontsumoa:** euskal edukien sorkuntza eta kontsumoa sustatzeko, sortzaileen auto-antolaketa eta babes publikoa areagotzea, eta masa kontsumoko produktuen artean euskarazkoei tokia egitea.

- **Ezagutza**

- **Ezagutzaren kudeaketa:** kulturaren transmisioa gero eta gehiago egiten denez Internet bidez, euskarazko edo euskararen inguruko edukiak sistematikoki jasotzea, gordetzea eta modurik erabilgarrienean eskaintzea, Euskal Liburutegi Nazionalak lituzkeen funtzioen baitan.

Azpiegitura kapitala handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Plangintza**

- **Administrazioa eta zerbitzuak euskalduntzeko plangintza:** epe luzeko plangintza adostea eragile publiko eta sozialen artean, administrazioak, irakaskuntza eta zerbitzuak euskalduntzeko, euskal hiztunaren hautua eroso bihur dadin eta bere eskubideak bermatu daitezten.

- **Komunikabideak**

- **Komunikabideen sistema:** euskarazko komunikabideen garapena bermatuko eta gidatuko duen lankidetzaren publiko-soziala eraikitzea, komunikabideok sistema gisa funtzionatuz euskararentzat hegemonia esparruak irabaz ditzaten.

- **Ezagutza**

- **Soziolinguistikaren ezagutza:** euskararen biziberritze prozesuaren gaineko ikerketa sistematikoa eta praktikari lotua egituratzea soziolinguistika zentru batean, jakinduria gune guztien sarea osatuta eta ekintzarekin uztartuta.

- **Ingurune digitala**

- **Euskararen estrategia digitala:** euskara erdigunean kokatuko duen estrategia digital berritzailea indarrean



jartzea, gidaritzat bateratua eta teknologia garapena modu eraginkorrean antolatuta.

Kapital ekonomikoa handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Lan hizkuntza**
 - **Euskara lan hizkuntza, bereziki gazteentzat:** arauak, diskurtsoak eta bultzadak metatzea enpresa nagusietan hizkuntza eskakizunak sistematikoki ezarri daitezen lanpostuak betetzeko, eta euskarazko lan zirkuituak sortzeko.
- **Industria**
 - **Euskararen industria:** hizkuntzaren industria artikulatzea eta bideratzea ekonomia esparruetan gero eta eragin handiagoa izatera, euskararen sektore politiko-ekonomikoak pisua izan dezan estrategia eta erabaki nagusietan.
- **Baliabideak**
 - **Baliabideak euskararentzat:** lankidetzat publiko-soziala eta arauen eragina areagotzeko estrategiak baliabidez ondo hornitzea, prekaritatea gainditzeko eta lehiakortasuna areagotzeko.

Kapital politikoa handitzeko aktiboak eta ekinbideak

- **Legedia**
 - **Euskara eta legea:** errealitate soziolinguistiko ezberdinek eskatzen duten malgutasuna aintzat hartuta, legearen eragin-ahalmena erabiltzea euskara beharrezkoa izan dadin gero eta esparru gehiagotan, ulermen mailatik hasita.
- **Lankidetzat**
 - **Hizkuntza lankidetzat publiko-soziala eta lurraldeen artekoa:** euskararen lurralde guztietako erakunde

publikoek eta gizartekoek elkar hartuta jardutea hizkuntza politikak eta estrategiak bateratzen eta betearazten, lankidetzari lehentasuna emanda.

• Kooperazioa

- **Hizkuntza elkartasuna:** nazioarteko harreman sarea osatzea eta garatzea munduko hizkuntza gutxitu eta txikiekin, interes komunen alde elkarrekin lan egiteko eta batura horri esker eragin-ahalmena irabazteko.

4. Lurralde dinamikak: atomizaziotik lankidetzara, iraunkortasunaren bidean

Lurraldea aztergai hartuta, Liburu Zuria osatzeko burutu ditugun parte hartze ariketek hiru eratako auziak azaleratu dituzte, hala nola, 1) lurralde arteko lankidetzari dagozkionak; 2) ondare naturalaren zaintza eta lurralde antolamenduari dagozkionak; eta 3) lurraldearen gainean egin beharreko estrategia ekonomikoari dagozkionak (zertan jarri lehentasuna, non kokatu eraginkorrak izateko, nola berritu jarduera ekonomikoak ondare naturalari ez erasateko...). Aipa ditzagun lehenik joerak:

Joera ezkorrak

Eremu metropolitarrak gero eta zabalagoak dira, landa eremuak, berriz, gero eta ahulagoak eta mendialdearen periferizazioa erabatekoa. Fenomeno kate luzea dator joera honetatik. Metropolizazioak baliabide kontzentrazio handiak ditu, segregazio gradu altuak eta kohesio sozialean erasaten du. Landa gunea husteak, berriz, herri txiki zein bailarek aurre egiteko behar duten masa kritikoaren ahultzea dakar.

Indarrean dagoen eredu ekonomikoak eraginkortasun ekonomiko handia bilatzen du, lurralde mailan oso

Garapen
sozioekonomikoa:
euskal gizartea eta
enpresa (Donostia,
2016-05-12).



kontzentratua da eta kualifikazio handiko enplegu kopuru mugatua sortzen du. Honekin batera lurraldearen luze zabalean ekonomia indartuko duen eredu bat, enplegua sortuko duena, tokian tokiko indarguneak bultzatuko dituena.

Lurraldea desorekatzen duten prozesuen artean ondare naturala erasaten duen artifizializazioa dago. Azken hamarkadetako artifizializazio maila oso handia izan da, horrezaz gain, joera sozial eta ekonomiko kaltegarriak ez dira murriztu.

Lurralde erresilienteak lankidetzan eta osagarritasunean garatu behar badu, gurean kultura administratiboa eta organizazio sozioekonomiko eta soziokultural gehienek lankidetzan maila oso apalak dituzte auzoko euskal lurraldeekin. Atomizazioaren erdian erakundetze komunaren aldeko dinamikak ahulak dira.

Identitate komuna ahultzen ari da, ez baitira existitzen Euskal Herri mailako sare sektorial sendoak.

Munduan Euskal Lurraldeek duten ikusgaitasuna mugatua da, atzerritarrek euskal lurraldeen, euskal herriaren identitate berezitua nekez ikusten dute.

Joerak baikorrak

Lurraldea izan da ardatza euskal komunitatearen kohesiorako, historian zehar eta lurralde ardatz historikoak mantendu dira arlo guztietan. Gaur egun erakundetze maila jakin bat lortu da euskal lurralde osoan eta lankidetzan material eta funtzionala modu sinergikoan burutzeko aukera badago.

Euskal herritargoan iraunkortasunarekiko kezka nabaria da, esan daiteke iraunkortasunaren bidean pausoak ematen hasteko adostasun gradua handia dela. Xede hau bat dator herri txiki eta bailarak gordetzeko xedearekin, bai eta baserritar eta laborarien jardueraren balioan jartzearekin ere.

Ekonomiari eragiten dioten ekosistema indartsuak ditugu hainbat eskualdetan eta hainbat sektoretan. Enpresa berritzaileak, formazio sare indartsua, berrikuntzara emandako organizazioak, eta abar. Euskal ekonomiak indartzen eta dibertsifikatzen jarraitzeko oinarri egokia du bere geografiaren hainbat puntutan.

Lurralde egitura polinuklearra dugu, lurraldea orekatzen laguntzen duena. Euskal gizartea hiriburu eta eskualde buruen inguruan egituratutako komunitate lokaletan gorpuztu izan da. Gaur gaurko Euskal Herria identitate handiko lurraldeek osatzen dute; **kapital sozial** garrantzitsuz osatuak, eta **ekinzailetzara, autoeraketara eta lankidetzara** emanak.

Horri esker, behetik gora ekiteko joera indartsua dugu. Iraganean ikusi dugu euskararen biziberritzearekin edo krisi industriala gainditzearekin, berrikiago ikusten ari gara Ipar Euskal Herrirako agenda eta instituzionalizazio propio bat garatzearekin.

Bertako instituzioek konfiantza maila handia jasotzen dute herritarrek osatutako sare horietatik. **Bertako instituzioek eta bere eskumenen defentsak**, zein bertan erabakitzeo eskubideak, gehiengoak biltzen dituzte. Formulazio aukera bat baino gehiago dago mahai gainean.

Begi onez ikusten gaituzte munduan: euskal markak salmenta ona du. Zenbait esparruetan eredugarritzat jotzen gaituzte. Euskal Komunitate globala berraktibatzen ari den aldetik, munduan geu garen moduan agertzeko parada egokia dator.

Agertokiak

- **Lurralde oreka bilatzen duten ekimen estrategikoak abian jartzea.** Ikuspuntu honek landa gunea identifikatu eta funtzio aitortuak ematea eskatzen du, ondoren eremu urbano eta metropolizatuekin osagarritasunean



Hiri sortzaileak: hiri
sortzaileen garapena
(Donostia, 2016-06-23).

jardun dadin. Jorratu beharreko arloak bat baino gehiago dira. Besteak beste, udalerrri txikietako biztanleria, ekonomia edo ongizatea indartzen lagunduko duten planak abian jartzea (inguru menditsuenetan batez ere). Lehen sektoreak protagonismo berezia izan beharko du horretan. Udalerrri txikietan bezala, eremu urbano eta metropolizatuetan ongizatea bermatu eta oreka segregazioak gainditzeko egitasmoak beharko dira.

- **Iraunkortasun paradigma berriak** indarrean sartuko dira baldin eta ondare hori gorde eta belaunaldi berrien esku jartzera iritsi nahi badugu, baina horrek egungo joerak aldatzea eskatzen du, besteak beste, inguru naturalaren artifizializazioan edo atmosfera kutsatzen duten jardueretan. Esandakoaz gain, lurraldean eragiten duten hainbat portaera berbideratu beharko dugu.
- **Lurraldea biziberritzeak egitasmo ekonomiko** dibertsifikatua, **osagarria eta eraginkorra** eskatzen du. Hau da, eraginkortasun handieneko jarduerak ekosistema egokiak behar dituzten bezala, enplegu gehien eragiten duten sektoreek, onura soziala dakarten egitasmoek edo tokian tokiko indarguneak balioan jartzeko ekimenek sustapen berezia beharko dute lurraldea bere luze zabalean indartzeko.
- **Euskal lurraldeen eta euskal komunitatearen iruditegi komuna** landu eta banatzen gaituenean baino batzen gaituen elementuetan oinarritzeko aukera. Edozein giza talde kohesionatzeko komunitate sentimendua sustatzea ezinbestekoa da. Hala, identitate sentimendu desberdinak ulertu, azaleratu eta bideratuko dituen iruditegi komuna eztabaidatu eta eraikitzea proposatzen da, Euskal komunitate globalaz gain, etorkinak eta haien seme-alabak barneratuko dituen.

- **Euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetzari dagokion zoru komuna** sozialki, ekonomikoki eta politikoki eraiki beharko litzateke, euskal lurraldeetako aniztasuna aberastasun bezala barneratuz. Euskal lurraldeak kohesionatzeko, guztion bizitza duina garatzeko oinarritzeko baldintzak partekatuko dituen herritargo ahaldundua ezinbestekoa da. Hau da, funtsean, euskal herritartasuna sendotzeko aukera aintzat hartzea.
- **Euskal Herri mailako egitura partekatuak** eraikitzeko aukera; horrenbestez, elkarkidetzaren gakoa den Euskal lurraldeen arteko lankidetzeta eta kohesioa sustatzeko egitura partekatuak bultzatzea garrantzitsua da. Egitura hauek arlo eta jendarte eremu desberdinetan sustatu beharko lirategela pentsatzen da. Bai eta erakunde publikoen esparruan ere. Lankidetzeta eta osagarritasunak Euskal Herria garapen sozial handiko lurralde erresiliente izatera eramán dezakete, eta gaur egungo atomizazio artifiziala gainditzera, Europako Batasunak daraman erregionalizazio bideak aukera interesgarriak eskainiko ditu, baldin eta bide horretan jarriko gaituzten adostasunak eraikitzeko gai bagara.

Agenda

Geure buruari galdetzen diogu, ordea, zein da lurralde estrategia eraginkorrena? Agenda betea dugu aurrean:

- **Lurralde oreka gauzatzeko bidean jartze aldera.**
 - Landa gunea identifikatu eta funtzio aitortuak emango dizkion ekimen instituzionala abian jarri, Landa ingurunearen estatutua zehaztu.
 - Udalerrri txikietako biztanleria, ekonomia edo ongizatea indartzen lagunduko duten planak abian jartzea.



- Metropolizazioak eragindako lurralde segregazioak aitortzen dituen ekimen instituzionala abiatu.
- Lehen sektorea indartzeko balio izan dezakeen ekintza ildo estrategikoa abian jartzea eskualdez eskualde (herritarren elikadura kulturalan eragin, landa lurak gorde, ekoizpena handitu, bertako produktuen merkaturatzea indartu...).
- Tokian tokiko egitasmoak sustatzea, bertako kapital sozialean eta adostasun sendoetan oinarrituz, beti ere erabakitakoa errespetatuz (subsidiaritatea).
- **Iraunkortasun paradigma berria indarrean jartze aldera.**
 - Landa lurra artifizializazioetatik legez babestea (ondare naturala gordetzea, elikagaiz autohornitzeko oinarria baita), inguru urbanoetatik hurbil daudenak batez ere.
 - Ingurua kaltetzen duten jarduerak ahalik eta gehien murriztea eta ordezeko praktikak indarrean jarri. Adostasun soziala eraiki eta ordenamendu juridikoan txertatu.
 - Etorbizuneko Euskal Herriaren irudi konpartitua eraiki ezaugarri hauek balioan jarriaz: ondare naturala eta landa gunen dinamikoa, trantsizioa helburu duten iraunkortasun paradigmak; jarduera ekonomiko aurreratuak eta erresilienteak lurralde osoan.
 - Zirkuitu laburra duten salgaien kontsumoa sustatzea, bertako elikagaiena batez ere. Besteak beste, eskualdeetako elikadura kontseiluak sortu, bai eta elikaduraren behategia ere.
- **Lurraldea luze-zabalean indartuko duen egitasmo ekonomikoa garatze aldera.**
 - Espezializazio inteligenteko estrategiatik kanpo geratu diren sektoreen azterketa egin eta hauen balizko onurak zehaztu.
- Landa eremuetan jarduera endogenoak sustatzeko egitasmo komunitarioei eta tokiko sektore ekonomikoei zuzendutako programak indarrean jarri.
- Xede soziala duten jarduerak eta enpresa moldeak sustatu, besteak beste, zaugarritasun handiko sektoreei zuzendutako arloetan.
- Gune metropolizatuetan, segregazio egoera larriena duten zonaldeak biziberritu eta indartzeko egitasmoak abian jarri.
- **Euskal komunitatearen iruditegi eta osagai komunak sendotze aldera.**
 - Euskararen eta kulturaren balio kohesionatzaileak ekarriko lituzkeen abantailak irudikatu eta zabaltzeko proposamena. Hizkuntz politikari, eta bereziki euskalduntze prozesuari, garrantzia eman elementu kohesionatzaile gisa.
 - Euskal hezkuntza-sistema, sare profesionalak eta enpresarialak zein komunitate zientifikoa artikulatzeko aukera lantzen hastea.
 - Euskal lurraldeen mapa mentala indartzeko tresnen inguruan deliberazio publikoa abian jarri: euskal markatik (barnera/kanpora begira), gure historiaren ezagutzara edo euskal sistema komunikatibora.
- **Euskal herritartasun komuna bultzatze aldera.**
 - Prozesu deliberatibo eta demokratikoen bidez, behetik gorako dinamikak sustatuz euskal herritarren bizitza duina bermatuko duten zutabe edo estandar komunak ezarri, “euskal ongizate sistema” lurralde guztietan partekatzeko.
 - Euskal lurralde guztietako jendarte kohesioan laguntzen duten politika publikoak martxan jartzeko

proposamenak landu, lurraldeen arteko oreka soziala, ekonomikoa eta politikoa lortzeko.

- Europar Batasuneko gobernantza demokratikoko egiturak erabili eta balioetsi herritartasun komunera begira: batik bat, Europar Batasuneko lankidetzak eta integrazio tresnak.
- **Kultura politiko eta demokratiko komun berria sustatze aldera.**
 - Jasandako gatazka egoeratik eta bizipenetatik ikaspenak balioetsi. Gatazka gainditzeko sortutako tresna eta ekimenak –Ipar Euskal Herriko eta hegoaldeko jendarte ekimenak uztartu dituztenak–, ezagutarazi eta “euskal balio sistema” sendotzeko erabili.
 - Euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzan sakontzea jomuga izango duen prozesu eratzailerako parte hartzailea abian jartzea.
 - Euskal lurraldeen arteko esperientzia elkartrukeak ahalbidetu ekimen zehatzen bitartez: eragile sozioekonomiko, kultural eta lokalen artean, bereziki.
- **Euskal Lurraldeen egituratzeko partekatua bideratzeko aldera.**
 - Elkar ezagutzarako eta lankidetzarako estrategia bati lotutako euskal lurraldeen kohesioa sendotzeko tresnen, eskumenen eta “baliabideen mapa” irudikatu.
 - Euskal erakundearen eskumen partekatzeari, ardatzen trinkotzeari eta egituratzeko partekatua eraginkorrari buruzko gogoeta lan-ildoak abiatu euskal erakundeetan.
 - Finantza tresna propioak eratu euskal lurraldeen arteko kohesioa sendotzei begira. Ildo beretik, euskal lurraldeen kohesioaren mesedetan emateko diru funtsa egituratu.

- Eusko Ikaskuntzari eginkizun berezia esleitu euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzari buruzko eztabaidan, erakunde aholku emaileak eta eztabaida sozialaren kudeatzaile gisa.

5. Ongizate ereduak: bizitza zaindu, aberastasuna sortu eta banatu

Gogoeta-prozesu honen abiapuntua izandako Liburu Berdeak, honako hau dio: “...mundu planetario, globalizatu, estatu propiorik gabeko eta zenbait administrazioen mendeko dagoen herri honek, proiektu komun bat behar du, are gutxienekoa bada ere, edo, bestela, gizarte planetarioan desagertuko gara”. Egindako gogoeta-prozesuak ondorio nagusi bat du, kapitulu honen ardatza den ideia: gizarte inklusioaren alde egitea eta herritar guztien bizi-kalitatea proiektu komun horren oinarria izan daitekeela, alegia. Beste herri txiki batzuetan bezala –Eskozia, Quebec, Finlandia...–, gizarte-babeseko eredu zabal, eraginkor eta jasangarri bat garatzea herri-proiektu moduan uler daiteke Euskal Herrian, barne-kohesioa eta -antolaketa- tresna moduan.

Gizarte, komunitate horrek pertsona guztien bizitza eta duintasuna zaindu behar ditu, bai eta belaunaldien arteko loturak ere; gizarte horretan, belaunaldiarteko elkartasunak aukerak eman behar dizkie gazteei, biztanle adintsuen jakinduria gutxietsi gabe, eta hurrengo belaunaldiei kapital kultural, natural, ekonomiko eta soziala uzten ahalegindu behar du.

Herri-proiektu hori lortzeko, funtsezkotzat jotzen da aitortzea euskal enpresek eta produkzio-egiturak enpleguaren eta aberastasunaren sorreran egindako ekarpena. Noranzko bikoa da produkzio-ereduaren eta gizarte-ongizatearen arteko erlazioa. Ez dago gizarte-ongizaterik produkzio-eredu



sendorik gabe, baina alderantzizkoa ere gertatzen da: babes sozialeko sistemek, ondo diseinatuta daudenean, jarduera ekonomikoa sustatzen duen itzulera ekonomiko bat sortzen dute.

Testu honen oinarrian dagoen funtsezko beste premisa bat da kalitateko enplegua inklusiorako lehentasunezko mekanismotzat hartzea, bai eta aberastasunaren oinarritzko banaketa egiteko mekanismoak lehenestea ere.

5.1. Diagnostikoa

Prozesuan zehar, euskal ekonomia eta gizartearen indarguneak identifikatu dira.

Moldagarritasuna, berritzeko ahalmena eta ekiteko bokazioa. Euskal ekonomiaren indarguneak eta ezaugarri bereizgarriak dira, batez ere, ingurune aldakorrera egokitzeko gaitasuna eta pertsonen ekiteko eta eraldatzeko duten ahalmena, pertsonak baitira enpresa-proiektuak sustatu eta mantentzen dituztenak.

Etekin hertsiki ekonomikoa lortzea gainditzen duten balioetan oinarritutako erakunde-jardunbideak.

Lankidetzeta-jardunbideak ardatz dituzten edo bokazio sozial argiko proiektu ekonomikoak eta hirugarren sektorekoak sustatu dituzten balio jakin batzuk egotea ez da bakarrik esperientzia arrakastatsu zehatz batzuen ezaugarri berezia, bai eta ekimen eta proiektu askoren ezaugarri komun esplizitu edo inplizitu bat ere. Guzti-guztiek lagundu dute euskal lurraldeen orain arteko garapen sozioekonomikoan, eta hazkunde ekonomikoa zentzuzki orekatua izaten.

Lanbide-heziketako sistema aurreratua, heziketari buruzko ikuspegi oso baten testuinguruan, pertsonen bizialdi osoan zeharreko prozesu dinamiko eta etengabe moduan. Heziketa funtsezko elementua da lan-merkatuko polarizazio- eta

prekariotze-tentsioen aurrean. Alderdi horrek oso adostasun-maila handia biltzen du pertsonen, eragileen eta erakundeen artean, eta egungo sistemak berrikusi eta perfektionatu behar direlako beharra sortzen du, zeina, era berean, gehienek bere egiten baitute. Hala ere, kontuan hartu beharreko egiazko indargunea da gure lanbide-heziketako sistemaren kalitatea, bai eta ekimen arau-emaile batzuk izatea ere, ekimenok ikuspegi oso eta bizialdi osoan zeharreko batetik erreparatzen baitiote prestakuntza-prozesuari.

Produkzio-egitura finkatua eta askotariko esperientziak, enpresa-kultura sendo eta egin beharreko eraldaketei aurre egiteko ahalmena duena. Ziur asko, euskal lurraldeen indargune nagusietako bat da produkzio-egitura sendoa dela, eta, gure inguruko beste herrialde eta eskualde batzuekin alderatuta, aberastasun- eta berdintasun-maila handiak sortzeko gai dela. Egia da horri dagokionez oso handiak direla eskualdeen eta lurraldeen arteko aldeak –egoera ez da bera Lapurdiko kostaldean, Debagoienean, Nafarroako Erriberan, Ezkerraldean edo Arabako Lautadan–, baina, oro har, esan daiteke Euskal Herriko produkzio-egitura lehiakorra dela, nahiko ongi txertatuta dagoela ekonomia globalizatuan, eta, bateko, beste produkzio-eredu batzuek baino desparekotasun eta pobrezia txikiagoa sortzen duela, eta, besteko, politika sozialak finantzatzea ahalbidetzen duela.

Bereziki, euskal errealitatean, gainera, zenbait egitura juridikok eusten diote batera produkzio-jarduerari, eta, horren laguntzari esker, oso esperientzia garrantzitsuak sortu eta finkatu dira lan kooperatiboaren eta ekonomia sozialaren esparruan, eta, era berean, irabazi-asmorik gabeko ekimenen sare zabal bat eratu da, aktibo gehigarria ere badena.

Herritarren babes zabala ongizate-estatuari, nahiz eta anibalentea ere izan. Esan daiteke euskal herritarrek babes



sozialeko eredu baliosten dutela, eta ez daudela eskubide sozialetan murrizketak edo atzera egitearen alde. Gai honetan aditu direnek, ordea, adierazten digute euskal gizarteak jarrera ambibalentea duela arlo honetan: alde batetik, herritarrak ongizate-estatuaren aldeko sutsu moduan agertzen dira, baina, bestetik, uste dute makineria erraldoi eta erabilgaitza bihurtu dela.

Euskal Herriko lurralde askotan, arkitektura instituzionalak gutxi-asko ahalbidetzen du zerga-politika propioak zehaztea, garatzeko eta baliabideak banatzeko eredu orekatuago eta zuzenagoetarantz bideratuta. Zerga-autonomian edo -burujabetzan izan beharko edo nahiko litzatekeen mailari buruzko desadostasun ideologiko eta kontzeptualetatik harago, EAEn eta Nafarroan kontzertu ekonomikoa Estatuarekin harremana izateko bide moduan eta bitarteko publikoak eskuratu, banatu eta esleitzeko finkatu izana ezin uko eginezko tresna da politika propioak egiteko eta mantentzeko.

Legegintza-esparru sendoa arlo sozialean. Era berean, nabarmendu behar da –erakundeetan, antolaketan eta arauetan Iparralde, EAE eta Nafarroaren artean dauden aldeak kontuan hartzeari utzi gabe– gizarte-politikei dagokienez esparru arauemaile aurreratu samarrak daudela hiru lurralde-eremu horietan. Nafarroan eta EAEn gizarte-zerbitzuen eta diru-sarrerak bermatzearen alde dauden legeak, familiei laguntzeko Frantziako politikak –estatu-esparrukoak–, Etxebizitzari buruzko EAeko Legea... adibide batzuk baino ez dira, baina beste batzuekin batera adierazten dute Euskal Herria osatzen duten lurraldeetan gizarte-erakundearen esparrua nahiko ongi garatuta dagoela, eta eskuzabalagoa eta sendoagoa dela Europako beste eskualde askotan dutena baino.

Hala ere, gogoeta-prozesuan parte hartu duten pertsonen nabarmendu dute aurrera egin behar dela pertsona guztiei

eskubideak egiazki aitortzeko bidean, aitortze teoriko soila gaingiduta.

Gaitasun teknikoa eta berritzeko ahalmena gizarte-zerbitzuen esparruan. Espainiako Estatuaren barruan, behintzat, euskal lurraldeek ezaugarri izan dute nolabaiteko aitzindari izatea gizarte-politiken garapenean, eta esan daiteke Euskal Herrian berritzeko gaitasun- eta ahalmen-maila handia dagoela gizarte-zerbitzuen esparruan.

Gizarte-egitura aktiboa, mobilizatua eta konprometitua. Liburu Berdean adierazten den bezala, euskal lurraldeak kooperatiboak izan ohi dira. Izan ere, euskal gizarteak, lehen bezala orain ere, gizarte-egitura zabala, askotarikoa eta aktiboa dauka. Alde horretatik, Euskal Herriko lurraldeek babesaren eta gizarte-ongizatearen esparruan dituzten indarguneen artean azpimarratzekoa da, halaber, hirugarren sektoreko erakundeek kapital soziala, bereziki aktiboak baitira Nafarroan, Iparraldean eta EAEn, bai eta ekonomia sozialaren garrantzia eta esparru honetan arlo publikoaren eta pribatuaren artean dagoen lankidetzeta-maila ere.

5.2. Joerak

Zalantza- eta arazo-iturri diren honako joera hauek ikusten dira:

Digitalizazioak eta robotizazioak lan-merkatuan duten eragina. Gizarte eta ekonomia globalizatuaren testuinguruan, zalantza-maila handia dago, enpleguaren ezaugarrien eta kopuruen bilakaerari buruz, gizarte eta ekonomia horiek oso lehiakorak direlako, eta digitalizatzeko, robotizatzeko eta adimen artifiziala gero eta gehiago erabiltzeko prozesuan baitaude.

Merkatua polarizatzeko eta prekariotzeko arriskua, eta desorekak sortzea epe laburrean eta ertainean

enplegu-eskatzaileek egiaztatutako kualifikazioen eta lan-eskaintzaileek eskatutakoen artean. Enpleguaz ikuspuntu kuantitatibo batetik aurreikus daitekeen bilakaerari buruzko desadostasun horietatik harago, hurrengo hamarkadan desoreka handiak izan genitzake euskal lurraldeetan (non handiagoak, non txikiagoak). Baina ez kuantitatiboak bakarrik, biztanleria aktiboa txikiegia izateagatik okupazioen eskaintzari erantzuteko ekonomiaren hazkundearen eta zahartzte demografikoaren testuinguruan, bai eta kualitatiboak ere, eskatzaileak ez egokitzeagatik eskaintako okupazioaren profilerak, lan-prozesuen eraldatze eta teknifikatze azkar-azkarra eta lan-eskakizun berrien etengabeko sorrera ikusita.

Soldataren krisia gizartean gora egiteko bide moduan, eta prekariatuaren agerpena. Lan-merkatua prekariotzea eta gizarte-kategoria bezala prekariatua agertzea dira gure babes sozialeko ereduak aurre egin behar dieten oinarritzko arazoetako bat. Enplegua prekario bihurtzeak babes- eta gizarteratze-ereduetan daukan eragin nagusiak zerikusia du orain arte enpleguaren eta gizarteratzearen artean izandako lotura haustearekin. Soldatapeko enpleguak jada ez du behar adina babesten pobreziatik eta bazterketatik, eta zentzua galtzen du neurri batean ondoko ideia honek, gizarte-politikarik onena enplegua dela, alegia.

Desparekotasunak handitzea eta mugikortasun sozialerako arazoak. Testuinguru horretan, desparekotasuna, batez ere diru-sarreretan dagoena, handitzeari buruzko kezka areagotu da gure inguruko herrialdeetan, bai eta euskal lurraldeetan ere. Desparekotasuna neurtzen duten adierazleen oraintsuko hobekuntzak eta euskal lurraldeek gure inguruko beste lurralde batzuekin alderatuta duten egoera hobek ezin ezkuta dezakete oraindik ere pobrezia-poltsak daudela, neurritz gaineko eragina dutenak kolektibo espezifikoki batzuetan (seme-alabak dituzten familiak, ugariak bereziki, eta guraso bakarrekoak; gazteak;

etorkinak; prestakuntza gutxiko pertsonak...), pobrezia-egoera larrienak kroniko bihurtzen ari direla, eta, batez ere, ongizate-egoeran bizi diren biztanleen (ehuneko handi bat) eta prekarietatean murgilduta dagoen sektore txiki baina garrantzitsuaren arteko arrakala finkatzen ari dela.

Erronka demografikoa. Euskal lurraldeek (Ipar Euskal Herriak neurri txikiagoan) ezaugarri dute jaiotza- eta ugalkortasun-tasak txikiak izatea, neurri handi batean lan- eta bizitegi-prekarietateari lotutako baldintza sozioekonomikoen eta familiei laguntzeko politikak aski ez izatearen ondorioz, baina baldintza kulturalen ondorioz ere bai. Testuinguru horretan, pertsona askok nahi baino gehiago atzeratzen dute familia izateko unea eta/edo benetan nahi baino seme-alaba gutxiago dituzte. Egoera hori, aipatu lan- eta bizitegi-prekarietate mailen ondorio ez ezik, euskal gizartea Europako gizarteen arazo nagusietako bat konpontzeko gauza izan ez izanaren ondorio ere bada: emakumeak soldatapeko lanetan aritzen hastearekin batera ez da gertatu gizarte-egiturak errealitate berri horretara egokitzea, eta gizonek ugaltze- eta zaintze-lanetan beren gain hartutako erantzunkidetasuna oraindik apala da.

Gazteak prekario bihurtzeko arriskuan. Belaunaldi berriek aurrean duten mundua aldakorra, digitalizatua eta globalizatua da, eta bestelako hezkuntza- eta ikaskuntza-paradigma bat behar du. Gizartearen eta hezkuntzaren arteko arrakala sakontzen ari da, eta gazteena inoizko belaunaldirik prestatuena izan arren, nolabaiteko konpetentzia-desoreka bat dago. Prekarietatea eta aukerarik eza gero eta handiagoa izateak, porrot egiten duten gazte-ekintzailtza sustatzeko politikekin batera, etorkizunaren deskapitalizazio-egoeraren aurrean jartzen gaitu, baina saihestu behar dugu.

Zahartzea eta zaintzen krisia. Euskal lurraldeek duten arazo demografikoa biztanleen zahartzeari lotua dago, baita



Garapen sozioekonomikoa:
ekonomia berriak
(Bilbao, 2016-09-29).

adindunek biztanle-egituran gero eta pisu handiagoa izateari ere; gainera, pisu hori areagotuz joango da hurrengo urteetan. Bizi-itzaropena handitzeak –lehen mailako gizarte-lorpena– berekin dakar, halaber, erantzun jasagarria eman behar izatea zaintzen krisia deritzonari, eta bideak bilatzea produkzio- eta ugalketa-zereginak batera egin ahal izateko, biztanleen zahartze-testuinguruan. Hausnartu behar da zer-nolako arreta eman behar zaien adindunei pertsona ardatz duen arretaren ikuspegitik.

Aniztasunaren erronka. Azkenik, euskal lurraldeetara gero eta atzerritar jatorriko pertsona gehiago iristen direla eta, funtsezko arazo moduan jarri behar da mahai gainean aniztasunaren kudeaketa, eta oso jatorri desberdinak dituzten pertsonak balio partekatu batzuen gainean integratzeko beharra. Aniztasunaren auzi honek are garrantzi handiagoa hartzen du kontuan hartzen bada migrazio-saldo positiboa izan behar dela biztanleak zahartzearen ondoriozko beharrei erantzuteko, eta, aditu askoren ustez, ongizate-estatu tradizionalak etnien, kulturen eta erlijioen ikuspuntutik homogeneous diren testuinguruetan funtzionatzeko diseinatu zirela. Aniztasun kulturalak, diote teorikoek, elkartasun kolektiboa ahalbidetzen duten loturak ahultzen ditu.

5.3. Agertokiak eta proposamenak

Bide honetan, egindako gogoeta-prozesuaren ondorioz, honako hauek dira aurrera egiteko ildo posibleetako batzuk:

Ongizatea, proiektu komuna

- Aurrera egitea inbertsio sozialaren paradigman; aurrebanaketa eta birbanaketa uztartzea.
 - Gizarte-ongizatearen eredu klasikoa eguneratzea, elkarri estu lotutako bi ikuspuntu edo paradigma sustatzea oinarri hartuta: aurrebanaketa eta inbertsio

soziala. Gure oinarritzko ideia da hobe dela *ex ante* jokatzea (hezkuntzaren, lan-merkatua arautzearen edo oinarritzko diru-sarrera bat ematearen bidez), *ex post* jokatzea bainoa (pizgarri zitalak eta nahi ez diren ondorioak sortzen dituzten kostu handiko neurri birbanatzaileen bidez).

• Aurrera egitea diru-sarrerak bermatzeko sistema sendo baten finkapenean.

- Diru-sarrerak bermatzeko bana-banakoagoak, azkarragoak, normalizatuagoak eta baldintza gutxiagokoak diren moduetarantz aurrera egitea.
- Foru-ogasunak baliatzea aurrera egiteko zerga-politika eta diru-sarreraren bermea gehiago integratzeko bidean. Biztanle-kolektibo jakin batzuei zerga negatiboa ezartzea litzateke aplikazio posible bat.
- Eta neurriak hartzea pentsioen sistema publikoak ongi funtzionatzeko: borondatezko aurreikuspen-sistemak zabaltzea eta Gizarte Segurantzaren kudeaketa eskualdatzea tresna baliagarriak izan litezke sistema hobetzeko.

• Kalitateko enplegua sortzeko modu berriak.

- Kalitateko enplegua sortzea gizarte-zerbitzuen eta mendekotasunaren arretaren esparruan. Enplegu mota horrek zerbitzuak eta arreta hobetuko lituzke, bai eta egoera irregularrean lan egiten duten emakumezko migratzaile askoren bizi-kalitatea ere. Zaintza-kooperatibak sortzea izan liteke zentzuzko aukera bat.
- Gizarte Kontzertua sustatzea, hirugarren sektoreko erakundeen jarduna zaindu eta nabarmentzeko.
- Enpleguaren sorrera sustatzea, belaunaldiak txandakatzeko programen bidez, bai administrazio publikoan, bai produkzio-egitura osoan.



– Ekonomia soziala eta gizarteratze-enpresak sustatzeko neurriak, eta bermatutako enplegu-formulak probatzea kolektibo behartsuenekin.

• **Fiskalitatea birpentsatzea.**

– Bilketa-ahalmena handitzeko bideak aztertzea, jakinda zerga-politikek eragin bikoitza dutela (lehiakortasun erlatiboan duten eragina).

– Zerga eta kotizazio finalistak ezartzea mendekotasuna finantzatzeko. Oinordetzen gaineko zerga zentzuzko tresna izan liteke, mendekotasuna finantzatzeari zuzenean lotuta.

• **Gizarte Zerbitzuen eskumen-egitura eta lurralde-antolaketa berrikustea.**

– Eginkizunak gizarte-zerbitzuen eta enplegu-, osasun-, hezkuntza- edo etxebizitza-zerbitzuen artean nola banatu zehaztu eta mugatzea.

– Sistemaren batasuna eta herritarren berdintasuna zaintzea, eta, horretarako, mekanismo komunak indartzea; esaterako, EAEn: Gizarte Zerbitzuen Erakundearteko Organoa, Gizarte Zerbitzuen Informazio Sistema eta Behatokia eta, bereziki, Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritza.

• **Ezagutzaren eta I+G+b-aren kudeaketa hobetzea gizarte-politiken arloan.**

– Arlo honetan ezagutza berritzeko eta kudeatzeko ekimenak garatzea. I+G+b-ari dagokionez gaitasuna duten zentroak eta ekimenak antolatzea, gizarte-premiak identifikatzeko, kalitateko arreta bermatzeko, prestakuntza eta profesionalizazioa hobetzeko eta politika publikoen eragina ebaluatzeko.

Norberaren autonomia, bizitzaren zaintza eta belaunaldi-txandakatzea

• **Norberaren autonomiarako politikak sustatzea.**

– Mendekotasunaren aurrean, norberaren autonomia bultzatzea agertzen da aktibo gisa. Eszenatoki desiragarria honakoa da, ahalduntzea bilatzen da, norberaren autonomia handitzeko, hurbileko sare sozialetan integratzeko (konfiantza-sareak) eta bakardadearen dinamikak eteteko. Eta, horrenbestez, gizartean autonomiazkoa eta autoestimuzkoa den eta berekin eginkizun emankorra betetzea dakarren ziklo bertutetsu batera aldatzeko. Egin beharrekoen artean hauek daude:

> Norberaren autonomia sustatzeko programak garatzea (mendekotasuna atzeratzea).

Komunitate-zerbitzuak eta etxez etxeko arreta-zerbitzuak indartzea, eta, horrenbestez, etxean zahartu ahal izatea.

> Gizarte- eta osasun-zerbitzuen integrazio hobea sustatzea.

> Boluntariora sustatzea gizarte-jarduera emankor moduan (zahartze aktiborako boluntariora-programak).

> Adineko pertsonak kide aktibo moduan inplikatzeko gizarte-berrikuntzako proiektuetan.

> Zahartzaroaren gizarte-irudia aldatzea, eta, horretarako, zahartze aktiboari buruzko termino, metafora eta kontzeptu berriak azaleratzea.

• **Pertsona adintsuenek metatutako ezagutza eta esperientzia nabarmentzea.**

– Adinekoek bizialdi osoan zehar ikasi dutena aplikatzeko eta garatzeko lekurik ez dutenean gertatzen den



deskapitalizazioa saihestea da xedea. Horretarako, honako hauek proposatzen dira:

- > Harreman berriak bilatzea ezagutza adituaren eta ez-adituaren artean: metatutako ikaskuntza soziala, ezagutza-iturrien dibertsitatea, metatutako esperientzia eta abar balioestea. Hartara, adibidez, esperientziaren gelek eta gisako programek noranzko biko dinamikak izan beharko lituzkete. Adinekoek, ikasle ez ezik, irakasle ere izan beharko lukete, balioa emateko dakitenari eta beren profesionalizazioari.
- **Familia-, haur- eta gazte-politikak sustatzea eta belaunaldien arteko elkartasun-itun berri bat lortzea.**
 - Kontua da aurrera egitea inbertsio sozialaren paradigman, biztanleak zahartzeak berekin dakartzan beharrei erantzuteari utzi gabe. Aurrerapausoetako batzuk hauek lirakeke:
 - > Ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko prestazio ekonomiko unibertsal bat sortzea Nafarroan eta EAEn, Iparraldean dagoenaren antzekoa.
 - > Heziketa doakoa izatea 0 urtetik 3 urtera bitarte.
 - > Egungo amatasun- eta aitatasun-baimenak luzatzea –bai amentzat bai, batez ere, aitentzat–.
- **Gazteei, dauden aukerak topatzen laguntzea.**
 - Gazteak egoera prekarioan dauden, aukerarik ez duten eta gizarte-, teknologia- eta enpresa-ekintzailtzarako kompetentzia gutxi dituzten honetan, ahalduntzea, lan-egonkortasuna, kompetentzia handiak eta egokitzeko gaitasuna nagusi diren egoera baterantz jo behar da.
 - Belaunaldien arteko elkartasun-dinamikak sustatu behar dira, ardura-mailetan txandakatzea sustatzeko politika publikoekin eta merkatuari eta gizarte-arazoei

lotuta dauden kompetentziak garatzeko, ikasteko eta berritzeko dinamikekin batera.

- **Pertsonak erdigunean jartzea eta gizarteratzearen oinarriak birpentsatzea: aktibazio inklusiboa eta pertsona ardatz duen arreta.**
 - Gizarte-zerbitzuen esparru zehatzean, kontua da sistema pertsonen beharretara egokitzea eta ez, gaur egun neurri batean gertatzen den bezala, pertsonak sistemaren beharretara egokitu behar izatea. Hitz batean, pertsonak erdigunean jartzea.
 - > Esku hartzeko programetan aplikatzen diren baldintzazkotasun-irizpideak berrikustea.
 - > Erabiltzaileen autodeterminazioa eta jasotzen dituzten zerbitzuen gaineko kontrola sustatzea.
 - > Esku-hartze sozialean ikuspegi harremanezkoagoa eta helburuzkoagoa izatea, pertsona bakoitzaren biografian, balioetan, premietan, nahietan eta itxaropenetan gehiago oinarritzen dena.
- **Berrikuntza soziala, teknologikoa eta politika publikoen arlokoa sustatzea.**
 - Zahartzearen arazoa arazo gazte bat da, eta konponbide berriak eta sortzaileak behar ditu. Konponbide estandarizatuetatik berritzaileetara aldatu behar dugu, gizarte- eta komunitate-esparruan bezala teknologiaren eta politika publikoen esparruan ere. Alde horretatik, honako hauek dira funtsezkotzat jotako politiketako batzuk:
 - > **Etxebizitza-politikak.** Adinekoentzako etxebizitza-eredu berriak sustatzea. Beste zenbait estrategiarekin batera, *co-housing* delakoa sustatzea aipa daiteke, aukera baita bakarrik bizitzen moldatzen diren pertsonentzat, elkarri lagun egiteko, gastuak

partekatzeko eta elkar zaintzeko. Gazteekin helburu berarekin partekatutako etxebizitzak. Teknologia berriak (etxebizitzetan) eta euskarri-zerbitzuak sustatzea autonomia urriko adinekoentzat. Eta kolektibo behartsuek etxebizitza eskuratzeko politikak.

- > **Teknologia berriak.** Teknologia irekiaren sarrera bultzatzea, adinekoen komunikazioa, zaintza eta diagnostikoa hobetzeko. Teknologia berriek eginkizun garrantzitsua bete dezakete adinekoen arteko komunikazioaren eta informazioaren hobekuntzan (bakartze sozialaren aurkako borroka). Bestalde, teknologiak belaunaldiak elkarren artean konektatzeko giltzarri bat dira, elkarri eragiteko esparru komun bat; adibidez, IKTetan oinarritutako belaunaldiarteko hezkuntza-programetan. Azkenik, teknologiak etxebizitzan osasun-zaintza egiteko, eritasunak goiz diagnostikatzeko eta zerbitzu soziosanitarioak emateko bultzatzeak eginkizun garrantzitsua betetzen du adinekoen bizi-kalitatearen hobekuntzan.
- > **Berrikuntza soziala.** Boluntariorarako eta herritartasun aktiborako modu berriak, komunitateak autoantolatzeke sareak eta auzo-elkartasuna garatzea. Adostasun zabala dago gizarte-ekimen horien balioari dagokionez, baina arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren esparruan eta erantzukizun publikoaren printzipioan oinarrituta.

Eredu ekonomikoa

- Askotariko jasangarritasunaren bermea, ekonomia garatzeko ereduaren ardatz.
 - Euskal lurraldeen arazo nagusia mundu garatu osoak duenaren oso antzekoa da: zentzuzko denbora-epe

batean eraginkortasunez aldatzea ekonomiaren egungo hazkunde-eredutik (zeina lineala izan eta mugagabea balitz bezala sortu eta kudeatzen baita) paradigma berrietara. Proposamen ugari daude paradigma horiei buruz, zehaztasun- eta eraldatzeko ahalmen-maila desberdinekoak, baina abiapuntu bera dute: onartzea jasangarritasuna, dauzkan alderdi asko eta askotarikoetan, garapenerako oinarritzko premisa dela.

- **Aberastasunaren lehen mailako banaketaren eta bigarren mailakoaren artean zentzuzko oreka-maila bilatzea.**
 - Garapen-eredu berri horren oinarrian egon beharko lukeen sistema ekonomikoak ordain zuzen eta nahikoa bermatu beharko lieke pertsonen balioa sortzeko prozesuetan parte hartzeagatik (lehen mailako banaketa behar adinako soldata eta ordainsarien bidez) eta, aldi berean, bitarteko hornitzaile aritu beharko luke gizarte osoarentzat, aukera emanda aberastasuna banatzeko sistemak abian jarri eta iraunkorrak izateko (bigarren mailako banaketa), desparekotasunak gainditu, kohesio-maila onargarriak lortu eta herritarrek ongizatean parte-hartze orokortua izan dezaten.

Enpleguaren zentraltasuna eta etorkizuna

- **Benetako genero-berdintasuna eta emakumeen eta gizonen artean enplegu-baldintzetan dauden arrakalak gainditzea helburu nagusi moduan, etxeko nahiz zaintzako lanetan erantzunkidetasuna handitzearekin batera, ezinbesteko premisa moduan.**
 - Emakumeek sartze masiboa izan dute lan-merkatuan, baina, aldi berean, etxeko eta zaintzako lanen zamak ia haien gain soilik egoten jarraitu du. Egoera horrek emakumeen karrera profesionalak trabatu ohi ditu, eta



arrakala nabarmena sortu du lan-baldintzetan gizonekin alderatuta; hortaz, ezinbestekoa da egoera hori gaintzea, eta gizarte moduan bidea egitea sexuen arteko guztizko erantzunkidetasuneko kultura baterantz. Eraldaketa kultural horri bizitza profesionala eta pertsonala bateratu ahal izateko mekanismoak hobetzearekin batera heldu behar zaio.

- **Enplegu ordaindua eta egiazko lan-baldintzak behar bezain ongi babesteko mailak lortu, mantendu eta bermatzea.**
 - Gizarte demokratikoetan eta kohesionatuetan, enplegu ordainduaren kalitateak eta baldintza materialek ez lukete soil-soilik egon behar egiten den lanak berezko dituen faktoreen mende, hala nola produktibitatearen edo prestakuntzaren mende, eta sistema juridikoek ere eragina izan beharko lukete, lan-baldintzak negoziatuta ezarri ahal izateko eta bermatzeko, landun guztientzat eskubideen gutxieneko onargarri bat finkatzeko legezko edo arauzko beste mekanismo batzuekin batera.
- **Prestakuntza pertsonen bizialdi osoan zeharreko prozesu integrala eta integratua delako ikuspegia mantentzea, eta bestetik talentua atxikitzea, eta ahal egokituz gero, berreskuratzea ahalbidetzen duten ekimenak burutzea, gure gizartearen funtsezko aktiboa delako.**
 - Prestakuntzak eginkizun nagusia betetzen du lan-merkatuko tentsio gero eta handiagoen aurrean, eta funtsezkoa da enplegu ordainduan sartzeko, enplegarritasuna mantentzeko, lanbidean aurrera egiteko eta herritartasuna guztiz baliatzeko.
- **Zerikusia duten eragile guztien arteko elkarrizketa irekiak bultzatzea, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren esparru egonkor batean eta**

metodologia komunetan oinarrituta, diagnostiko partekatuak egiteko eta prospekzio fidagarrien gainean lan egiteko.

- Ekimen horien barruan egon litezke, besteak beste, zelula prospektiboak abian jartzea eta erakundearteko batzorde bat sortzea, lanaren eta ekonomiaren etorkizunarekin zerikusia duten jarduerak kontrolatu eta koordinatzeko.

Enpresen eta lan-harremanen eredu berriak

- **Lan-harremanetarako eredu kooperatiboagoetaranzko trantsizioa.**
 - Euskal enpresek hazkunde ekonomikoan, enpleguaren sorreran eta, horrenbestez, herritarren ongizatean egin duten ekarpena esplizituki aintzatestea ezinbesteko premisa da enpresen eta lan-harremanen ereduie buruzko edozein gogoetari arrakasta-berme gutxieneko batekin ekiteko.
 - Nolanahi ere, borroka izan da orain arte enpresetan lan-harremanen oinarrian egon den paradigma nagusia. Lan-harremanetan nagusi den eredu soldataren eta lanaldiaren arteko unean uneko oreken bilaketan oinarritu da, enpresaren bilakaerarekin eta emaitzekin oro har loturarik ez duen kontraprestazio moduan.
- **Elkarrizketa- eta ituntze-prozesu zabal eta irekien bidez elementu partekatuak bilatzea eta zehaztea, funtsean aldatu ahal izateko, alde batetik, enpresen ikuspegia eta, bestetik, pertsonen haietan duten lekua eta balioa.**
 - Enpresetan zenbait mailatako interesak gurutzatzen dira, batez ere lortutako emaitzen esleipenari



dagokionez, eta, horrenbestez, enpresak sortutako balioaren banaketaz eta enpresa-jarduerari berari lotutako arriskuak egozteaz den bezainbatean.

- Testuinguru oraindik ere nagusi horretan, eta enpresari buruz, helburu lehentasunezko eta partekatu bat, balioa sortzea, lortzearekin konprometituta dauden pertsona batzuen multzo moduan, ikuspegi integratuagoak eta inklusiboagoak izateko bidean aurrera egiteko behar eta komenigarritasunaz egin daitezkeen gogoeta eta proposamen teorikoetatik haratago, ezinbestekoa da bilakaera hori ahalbidetuko duten transakzio berriak negoziatu eta aurkitzea.
- Beraz, nahitaezkoa da benetako paradigma-aldaketa ahalbidetzeko behar diren elementuak eta transakzioak identifikatu eta objektibatzea. Eta, hartara, enpresetan diskurtsotik harreman-egoera eta -esparru berrien negoziazio eraginkorrera aurreratzea.
- **Ordezkaritza duten sindikatuen eta enpresa-erakundeen jarreran funtsezko aldaketa sustatzeko beharra, lan-harremanen esparru egonkor baten barruan eta ituntzea eta hitz egitea oinarri hartuta.**
 - Egun, gizarte-, enpresa- eta sindikatu-eragileek ez dituzte inola ere maila uniformearen onartzen diskurtsu berri horiek, aldetaren aldekoagoak diren planteamendu formalekin batera, paradigma tradizionalak, funtsean behintzat, aldatzeko erresistentzia irekiak daudelako. Hortaz, egoera hori gainditzea ez da bakarrik lehentasunezko kontu bat, bai eta harreman-eredu berrietarantz aurrera egiteko abiapuntuko premisa bat ere.
- **Enpresa inklusiboaren sorrera eta iraunkortasuna oinarritzeko lan-harremanetarako eredu berrietarantz**

egitea, gizarte-mintzaideen helburu esplizitu eta partekatu moduan.

- Globalizazioaren testuinguru ekonomikoan, eta lan-merkatuaren egungo egoeran, azkar eraldatzen ari baita, polarizatuta baitago eta nolabaiteko egiturazko prekaritate-maila bat jasaten ari baita, enpresen eta lan-harremanen eredu tradizionalak eraldatu nahi izateak ez du aitzakia izan behar inola ere ukatzeko edo ahalik gehiena gutxitzeko ordezkaritza duten enpresa-erakundeek eta sindikatuek, eraldaketaren aldeko bultzada horretan gizarte-eragile instituzionalizatuak izaki, betetzen duten eginkizun garrantzitsua kontutan izanik.
- **Askotariko ekimen publikoak, hala nola arauemaileak, sustapen-arlokoak, laguntza finantzarioa ematekoak, fiskalak eta abar, finkatzea eta, hala egokituz gero, abian jartzea, enpresa inklusiboago eta parte-hartzaileagoetarantzko trantsizioan laguntzeko.**
 - Ezinbestekoa da neurri publikoak eta zeharkakoak ezartzea, ikuspegi instrumental batetik erraz dezaten enpresa-paradigma parte-hartzaileago berrietarantzko bidea, lan-harreman kooperatiboagoen testuinguruan.
- **Konfiantza balio nagusi moduan enpresen bizitzan, eta egoera gardenagoa eta informazio-jario iraunkorra bermatzeko egiturak eta prozesuak abian jartzea.**
 - Trantsizio hori egiteko ezinbesteko elementuetako batzuek zerikusia dute konfiantza enpresen bizitzan balio nagusia izatearekin. Konfiantza-ingurune horretarako, nahitaezkoa da aurrez premisa bat betetzea, hau da, gizarte-eragileek berriz ere elkarri aitortzea legitimitatea, eta lankidetzaren eta ituntze-testuingurua izatea botere publikoekin.



Kokapen teoriko orokorra:
Euskal Lurraldea(k)
mundu garaikidean
(Donostia, 2016-11-05).

6. Gobernantza, demokratizazioa ardatz

Eusko Ikaskuntza sortu zenean euskal lurraldeetako erakundeak sendotzeko beharra nabarmena zen. Orduko Foru-Aldundiek nekez eusten zioten gure herriak behar zuen gobernantzari, ziztu bizian aldatzen ari zen mundu nahasi hartan. Alabaina, kemenaz eta, batez ere, abaguneak eskatzen zuen ausardiaz, gai izan ziren aurten 100 urte bete dituen ekimena abian jartzeko: Eusko Ikaskuntza. Hastapenetik heldu zion gabezia instituzional horri Eusko Ikaskuntzak, eta hamarkada baten bueltan, -1931an, alegia-, euskal autogobernuaren lehen mugarrria izan zen “Euskal Estatuaren Estatutu Orokorra” eskaini zion gure jendarteari, XX. mendean zehar, hegoaldean bereziki, garatu den ibilbide autonomiko guztiaren egitasmo eredugarria izan zen estatutu-proposamena.

Ia mende oso bat igaro da ordutik hona eta euskal lurraldeen beharrak antzekoak diren arren, gure erakundeak artean zeudenak baino sendoagoak dira, ezbairik gabe. Mugak-muga, euskal jendartearen erabakitzeko ahalmena zabaldu da eta, aro modernoan lehen aldiz, erakundetuta ditugu euskal lurralde guztiak. Gure erakundeen eskumen maila desberdina da, gehiengo politikoak aldagarriak dira, baina Euskal Herriaren mapa instituzionala zedarrituta dago jada.

Ilusioz eta ardurez beteriko abagune honetatik abiatuta, XXI. mendean piztu zaizkigun kezka berriei erantzun adostua eman nahiak mugitzen du gaurko Eusko Ikaskuntzaren lana. Gobernantza demokratikoaren arloan hiru dira Liburu Zuriaren jasota geldituko diren hausnarketa lerroak.

Lehenik, kanpora begira jarri gara. Globalizazio prozesuak sortu dituen aukerak eta eragin duen anabasaren ezaugarriak bildu genituen Liburu Berdean, eta erantzun partekatua emateko asmoz, hainbat galdera luzatu dugu Liburu Zuriaren

aitzakian: mundu mailan bizitzen ari garen eztabaida ideologiko bizian, nola eta non kokatuko gara euskal lurraldeak eta herritarrak? Ze harreman mota garatu nahi dugu inguruan ditugun lurraldeekin, Espainiarekin eta Frantziarekin? Zein da gure tokia Europan? Eta Munduan? Galdera hauen erantzuna, gure kokapena munduan, ezin gauzatu daitezke (izan) garena ahaztuta. Gure jendartearen errotu diren balioak aintzat hartu gabe, hain zuzen. Balio aldakorrak, etengabe eraberritzen eta aberasten ari direnak, baina aldi berean, nortasun berezituaren muina izan direnak eta mundu globalean modu egokian kokatzeko ezinbestekoak ditugunak.

Bigarrenik, globalizazio horrek berak ekarritako “erabakiaren desjabetzaz” jakitun, euskal lurralde eta herritarron erabakimenean jarri dugu arreta. Munduan edozein modutan kokatzea ez baita helburua, ez bada maila globalean jokatzeko ari den lehian argi edukita zein den gure papera: gurean eta edonon demokratizazioan aurrera egitea. Esan nahi baita, gai guztien inguruan herritarron erabakitzeko gaitasuna areagotzea, herritartasun ahalik eta zabalena eta berdinen bermatzea eta, azkenik, arbitrarietate ororen arbuioa erdigunean jartzea, eskubide eta askatasunen izenean. Izan ere, ez dugu edozein gobernantza mota nahi. Aitzitik, eragile eta ahots guztiak bilduko dituen gobernantza eredu hobesten dugu, alegia, gobernantza “demokratikoa”. Bide hori jorratzeko proposamen zehatzak jaso ditugu Liburu Zuriaren lehen edizio honetan.

Azkenik, aipatu dugu euskal lurralde guztiak ditugula gaur erakundetuta. Ez da kontu makala. Alabaina, lurralde, erakunde eta herritarron arteko kohesioan urratsak eman behar direla argi dago, betidanik izan ditugun harreman-ardatzak sendotzeko aldera. Kultura, hizkuntza, ohiturak, eremu sozioekonomikoa, balioak... bizitzeko modu bat eta, agian, bizitza bera ulertzeko ikusmolde bat partekatzen dugu euskal herritarrok eta gobernantzak gure nortasunaren garapena kudeatzeko tresnak



eskaini beharko lizkiguke. Irekitasuna, malgutasuna eta, aldi berean, elkarkidetza eta kohesioa uztartzeko moduak antolatzea politikari ere baitagokio.

Oro har, demokratizazioa baldin bada gure lanaren itsasargi nagusia, Liburu Zuriak jasoko duen diagnosis, joera eta erronken zerrenda eta, batez ere, desio ditugun agertokiak eta beroriek gauzatzeko beharko genukeen erabakien agenda, modu parte hartzailean garatu dugu hemen. Jarraian irakurriko dituzuen edukiak ez dira pertsona bakan batzuen burutazioak edota jakintsuen hausnarketa sakonak. Horiek ere bilduko ditugu, noski, baina horiekin batera, ehundaka herritarren, eragile anitzen eta gure erakundeetako ordezkarien iritziak eta ekarpenak jaso ditugu, euskal lurralde eta herritarren artean hemendik aurrera garatu beharko genukeen eztabaida eratzaileren hazia jarritz.

Hemendik aurrera ardura horri lotuko gatzazkio, sortze uanean bezala, euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetza jomuga izango duen herri-mailako eztabaida eratzaileri, hain zuzen ere. Horixe baita edozein gobernantza demokratikoaren oinarria eta abiapuntua: nahi dugun herriaz guztion artean hausnartzea eta adostu dugun ametsa gauzatzeko tresnak indarrean jartzea.

6.1. Euskal lurraldeak globalizazioan

XXI. mendean baldintza berrietan gauzatu beharko dugu euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetza. Mundu globalizatuan bizi gara eta horrek aukera eta arrisku berriak zabaltzen dizkigu, gure egokitzapenerako gaitasuna erdigunean jarritz.

Honakoak dira diagnostiko partekatu baten ondorioz –adituak, herritarrak eta gizarte eragileak bilduta–, globalizazioari buruz osatu den diagnostikoaren gakoak:

Joera ezkorrak

Modernizazioaren azkartze honek –globalizazioak–, eta honekin batera datorren iraultza teknologikoak ezagutu dugun munduaren zutabeak kolokan jarri ditu eta aldaketen abiadurak zaildu egiten du euskal lurraldeen egokitzapenerako gaitasun historikoa.

Nagusitzen ari den globalizazio ereduak demokrazia kaltetzen du. Herri eta herritarren erabakitze gaitasunaren desjabetza nabarmena da, eta erabakiak non hartzen diren eta nork hartzen dituen ez dago argi, defizit demokratikoa handitzen delarik. Ziurtasun eza eta zalantza bizitzako esparru guztietara zabaltzen ari da, eta honen aurreko erantzunak ez dira maiz egokienak: gotorkeria, xenofobia...

Kultura globalizatu estandarizatuak gure tokiko kultura ito dezake. Asimilazio kulturalerako arriskua sumatzen da. Etekin ekonomikoa politikari eta kulturari gailentzen bazaie, herri, kultura eta hizkuntz txiki baten iraunkortasuna kolokan egon daiteke. Kultura indartsuz inguratuta baitago euskal kultura: ingelesa, frantsesa eta espainola.

Mundu globalaren erdigunea gugandik urruntzen ari da eta euskal lurraldeen periferizazioak arriskuan jarri dezake gure lehiakortasuna. Krisi ekonomiko ziklikoei aurre egiteko gaitasunari eustea zaila izan daiteke etorkizunean.

Joera baikorrak

Munduaren abiadurak berak eta honekin lotutako konektibitateak merkatu globalean parte hartzeko aukera zabaltzen dute, informazioa eta ezagutza globala eskura jarritz. Dinamika honek komunikazio eta harremanak errazten ditu, erronka globalak eta aliantza bideragarriak hobeto identifikatzeko moduan.



Lotura komunitario sendoak dituzten herrietan globalizazioaren alde ezkorrei aurre egiteko logikak indartzea posible da: giza garapenaren balioa, oinarrizko eskubideen eta ongizatearen babesa, ezagutzaren gizartea eta kultura propioaren garapena, lurralde adimendu eta ahaldunduaren aldeko apostua, erabakitze eskubidearen aldarrikapena... finean, herri-burujabetzaren defentsa.

Globalizazioak ezagutzen dugun jendartearen zutabe guztiak kolokan jarri ditu –politikan, ekonomian, kulturaren, ingurumenean...–, eta anabasa horrek mundua beste modu batean, duinagoan, birpentsatzeko aukera ematen du: zabalik dago European eta gurean aro “konstituziogile” bat, zentzu zabalenean ulertuta.

Diagnostiko honetatik abiatuta, hainbat galdera mahaigaineratzen zaigu: Globalizazioak dakarren fluxu kontrolaezinen baitan –ideiak, pertsonak, finantzak, kulturak...–, zeintzuk izan beharko lirateke gure lurraldeen berezitasuna babesteko eta garatzeko neurriak? Zertan izan gintezke aitzindari edo lehiakor mundu globalean? Zein da marrazten dugun etorkizuneko “euskal agertokia” munduan? Non eta nola kokatuko gara munduan?

Agertokiak

- Ezin zaizkio mugak jarri globalizazio prozesuari, baina **kanpoko eraginak barneratzeko eta gurera egokitze gaitasuna sendotzea** ezinbesteko ardurak da. Euskal identitateaz hausnartu beharra daukagu, irekitasuna, malgutasuna eta nortasunaren arteko tentsioak aztertuz. Historikoki euskal lurraldeek munduan gertatzen zenari egokitze gaitasuna izan dute, nortasun berezituari eutsiz. Gaitasun horren gakoak aztertu eta sendotu beharko dira aldaketei aurre egiteko.

- Bigarren erronka eta heldu beharreko agertokia, **euskal lurraldeak munduan kokatzea** litzateke. Kokapen horren oinarria herri-narratiba bat osatzea litzateke, euskal nortasunaren berezitasuna adieraziko duena, eta baita ere gure herriaren berezko aniztasuna. Kokapen horrek kontuan hartu beharko ditu gure lurraldeen berezitasunak eta, bereziki, batzen gaituzten elementuak.
- Azkenik, aurreko bi agertokietan arrakasta lortzeko –mundu globalizatuan kokatzeko eta nortasuna ez galtzeko–, **arlotan desberdinetan aitzindari izatea** beharrezkoa ikusten da, erreferentzialtasuna hartzea, alegia.

Agenda

Hausnarketa horiek kontutan izanda, proposamen zehatz sorta bat luzatu da hausnarketa partekatu honen eskutik:

- **Gure nortasunari eutsiz, kanpoko eraginak barneratze aldera.**
 - Euskal lurraldeen arteko lankidetzaren sistemak eratu hizkuntza, kultura eta hezkuntza arlotan.
 - Euskal hezkuntza-sistemaren berrikuntza abian jartzeko proposamena, epe luzera begirako plangintzari ekinez. Euskal unibertsitate eta jakintza-sistemaren inguruko hausnarketa zabaldu eta sendotzeko neurriak hartu: osagarritasuna, mugikortasuna, ebaluazio sistema propioa bultzatu, ikerkuntza sendotu eta lerroak gizartearen zerbitzura jarri.
 - Informazioaren gizarte hutsaren aurrean, ezagutzaren gizartea eta euskal kultura sendotzeko neurriak abian jarri.



- **Munduan modu egokian kokatze aldera.**
 - Herri-narratiba propioa eraikitzeko ekimena: herri-gogoeta zabalak, kritikoa eta anitza burutzeko proposamena.
 - Euskal estatu burujabearen inguruko hausnarketa zabaltzeko proposamena, globalizazioari aurre egiteko tresna, ez nahikoa, baina bai beharrezko gisa.
 - Euskal komunitate globalak eskaintzen dituen aukerak lantzeko proposamena, paradiploiaz ekimenak sendotuz.
- **Mundu globalean aitzindari eta lehiakor izate aldera.**
 - Jendarte-berrikuntzari lehentasuna emateko proposamena: kolektiboki adimenduak (ezagutza) eta ahaldunduak (demokrazia) egongo diren euskal lurraldeen aldeko hautua.
 - Euskal giza-garapenaren eredu baliotsi eta sendotzeko neurriak hartzea, barnetik eta kanpotik begiratuta gure lurraldeen ezaugarri egokiak izan diren elementuetan sakonduz –Ongizate eredu, auzolana eta kooperatibismoa, beste herrienganako elkartasuna, kultura eta hizkuntza propioaren garapena, gizarte zibil aktiboa eta komunaren aldeko hautua, ekintzailetasuna...–, eta, orohar, bizitza duina (buen vivir) izateko ezinbestekoak direnak bultzatuz: berdintasuna arlo guztietan, ingurumenaren errespetoa, etab.
 - Globalizazioarekin batera datozen eremu kritikoetan inbertsioa biderkatu eta enpresen arteko sinergiak bultzatu: ingurune digitalean, energia berriztagarrietan edota bioteknologian, esaterako.

6.2. Euskal lurraldeak munduan, Europan eta Estatuetan

Euskal lurraldeek instantzia zabalagoekin –Estatuarekin zein Europarekin– dituzten harremanei buruz partekatu den diagnosiaren ideia nagusiak honela labur daitezke:

Joera ezkorrak

Estatuen nazionalismoen berrindartze oso arriskutsua ematen ari da munduan. Joera ideologiko kezagarriak nagusitzen ari dira: gotorkeria, desberdintasun sozioekonomikoen onarpena, xenofobia... Eskubide eta askatasunen murrizketak eta ongizate orokorraren galera, normalitate osoz barreiatzen ari dira munduan zehar. Teknologia berrien balizko eragin askatzailea ahultzen ari da, kontrol sozialera bideratutako erabileraren mesedetan.

Munduan Euskal Lurraldeek duten ikusgaitasuna mugatua da, atzeritarrek euskal lurraldeen, euskal herriaren identitate berezitua nekez ikusten dute.

Europar Batasuna euskal herritarrengandik urrun dago eta ezezaguna da. Europar Batasunak ez du bereziki sustatzen herritarren parte hartzea eta ondorioz, Europari buruzko informazio falta eta ezjakintasun handia dugu.

Egungo nazioarteko harreman sisteman mugatua da euskal lurraldeen kanpo ekintzarako eta erabakitze gaitasuna. Euskal Herriko beharrak Europako instituzioen aldetik aintzat hartuak izateko eta euskal ordezkariak Europako erabakietan zuzenean parte hartzeko apenas dago tresna eraginkorrik. Gaitasun hori ez edukitzea gaurko mundu globalizatuan arazo da, baita euskal lurraldeen arteko harremanak egituratzeko ere.

Estatuen jarrera zentralizatzaileak eragin zuzena du euskal lurraldeen erabakitze gaitasunean. Aniztasunaren kontrako



erasoak nabariak dira; izan ere, estatuen inboluzio ideologiko bat gertatzen ari da. Nazio-estatuen “hipernazionalismoaz” mintza genezake une honetan.

Espainiaren kasuan prozesu birzentralizatzailea gertatzen ari da eta horrek bereziki Hegoaldeko euskal lurraldeetan dagoen erabakitze gaitasunaren ahuleziaren sintomak agerian uzten ditu: berme falta, euskal zuzenbidearen ahultzea, erakunde gaitasun politikoa murriztea eta finantza autonomia higatzea. Horren guztiaren ondorioz, euskal demokratizazio prozesua geldiarazteko arriskua dago.

Ipar Euskal Herrian, berriz, Euskal Hirigune Elkargoa zeharkako zilegitasun demokratikoz osatzen da –hautetsiak ez dira zuzenean hauteskunde bidez hautatzen, baizik eta tokiko erakunde bidez–, eta bere erabakitze gaitasuna mugatua da.

Joera baikorrak

Europar azpimarratu diren joera larri horien aurreko kezka hedatzen ari da eta sendoak dira giza garapenaren ildotik doazen soluziobideen aldeko jarrerak. Erreforma garaiak dira Europan, eta lehiatila horretatik nora irtengo garen ez dago alde aurretik idatzita.

Erabakimenari lotutako aipatutako defizit horiek indartu egiten dute egungo euskal lurraldeek “estatus politiko berezia” izateko eskakizun historikoa, eta bide hori egungo euskal lurraldeen instituzionalizatzeko maila desberdinetatik abiatu behar dela partekatzen da.

Ipar Euskal Herrian, behetik goragoko prozesu demokratizatzaile bati esker, erakundetze mailan aurrerapausoak ematea lortu da, Euskal Hirigune Elkargoa eratuz.

Hegoaldean, berriz, estatus politiko berri baterako aukerak zabaldu dira eta, legitimotasun historikoa eta demokratikoa

uztartuta, gizarte akordio zabalak erdiesteko modua atzematen da. Nafarroaren berezko aniztasuna aintzat hartzeko hartu diren neurritan, nekez egingo da atzera, dena delakoa izanda ere etorkizuneko norabide politikoa.

Begi onez ikusten gaituzte munduan: euskal markak salmenta ona du. Zenbait esparrutan eredugarritzat jotzen gaituzte: esperientzia kooperatiboagatik ezagutzen gaituzte, gure ehun industrialak baloratzen dute, gatazkak gainditzeko gaitasuna, kultura propioari eusteko gaitasuna...

Euskal Komunitate globalaren edo diasporaren berraktibazio moduko bat somatzen da.

Euskal Lurraldeen kanpo harremanei buruz diagnostikatutako egoerak hainbat galdera planteatu ditu, euskal lurraldeen kohesioan eta elkarkidetzan sendotzen jarraitzeko orduan: Nola kokatu munduan? Eta nola parte hartu ahal dute Europar Batasunaren baitan hartzen diren erabakietan eta nola Europa sendotzeko eztabaidan? Zer nolako erabakitze gaitasuna behar dute euskal lurraldeek euskal komunitate globalarekin harremanak sendotzeko? Nola eta noraino da egokia Espainia eta Frantziarekin euskal lurraldeetako erabakitze gaitasuna partekatzea? Euskal lurraldeen arteko kohesioa eta elkarkidetzaren sendotu dadin, zein baldintzetan gertatu behar da partekatze hori?

Agertokiak

- **Euskal lurraldeak munduan kokatzeko aukera.** Hau da, munduan Euskal Lurraldeek duten ikusgarritasunean sakontzeko aukera agertoki bideragarria izan daiteke. Zenbait indargunetan sakondu –kooperatibak, ehun industrialak, kultura...–, eta eredugarri izan gaitzek horietan saiatu: ongizatearen kudeaketan edota bizitza kalitatean.

Euskal lurraldeen territorioak:
kohesioa eta identitateak
(Donostia, 2017-01-14).



- Europar Batasunaren ereduaren inguruko eszenatokiak ezbaian. **Etorkizuneko Europako eredu zehaztu gabe dago** eta agertokiaren inguruko kezka nabarmena da, Europako Liburu Zuria, adibide. Izan ere, Europar Batasuna krisi momentu batetik igarotzeak –krisi ekonomikoa, Brexit-a, norabide ideologiko ezkorrak...–, eragiteko eta erronka berriak planteatzeko aukera zabaltzen du; hots, aukera irekitzen da Europarako eredu berria eraikitzeko. “Europa”, gai bezala, euskal eztabaida politikoaren erdigunean kokatzeko aukera dago: agertoki guztiak zabalik daude.
- **Euskal lurraldeen eragina Europan sendotzea** da erronka, eta, aldi berean, posible den agertokia. Euskal lurraldeek Europan duten parte hartzea eta eragina sustatzea da helburua, Euskal Herriko beharrak Europako instituzioen aldetik aintzat hartuak izateko.
- **Espainiar eta frantziar estatuekin euskal lurraldeek dituzten harremanak aldatzeko aukera** agertoki argia da epe ertainean. Hegoa eta iparraldeko euskal lurraldeen egoera instituzionalak eta Espainian eta Frantzian zabalik dagoen eztabaida territorialak, harremanak modu orekatuagoan garatzeko abagunea zabaltzen dute.
- **Euskal lurraldeen arteko harreman politikoak sendotzeko aukera** agertoki argia da epe laburrean. Euskal lurraldeen arteotasuna sendotzeko aukerak bi norabidetatik datoz: Batetik, Europako markoak eskaintzen dituen aukera instituzionalak egon badaude –Euroerregioa, besteak beste–, eta bestetik, Estatuaren aldetik harreman horiek modu demokratikoan garatzeko betidanik jarri diren mugak gero eta ahualagoak dira.

Agenda

Aipatutako agertokiak garatzeko eta erronkei aurre egiteko hauek dira planteatutako ildoak:

- **Munduan ikusgarritasuna irabazte aldera.**
 - Kanpo harremanetarako estrategia partekatu bat garatzeko proposamena egin da: nola goazen kanpora, zein markarekin, zerk bereizten gaituen. Aliantzak sortzeko aukerak baliatzeko, kanpora begirako gutxieneko kokapen adostua behar da.
 - Euskal markaren garapenerako eztabaida zabaltzeko proposamena, gobernantza eredu berritzailearen baitan: erakunde publikoak, gizarte eragileak, enpresak eta herritarrak elkartuz.
 - Euskal komunitate globala (diaspora) aktibatzeke ekimenak bultzatzeko proposamena: Batzen, hezkuntza-sistema, gizarte sareak, etab...
- **Euskal Herria Europan kokatze eta eragina sakontze aldera.**
 - Europaren etorkizunera begirako eztabaidan parte hartzeko beharra aintzat hartu da. Europako erakundearen demokratizazioan sakontzeko proposamenak gurean lantzeko eta luzatzeko ekimen partekatutak proposatzen dira: estatalitatera demokratikoki heltzeko “argitasun” direktibak adostea, besteak beste.
 - Estatuaren Europaren aurrean, herrien papera indartzeko proposamena. Legegintzarako eskumenak dituzten Europako Nazio politikoaren estatusa onartzeko proposamena eta honekin batera Europako erakundeetan partehartzeko eskubidea aitortzea.



Euskal lurrak: eremu fisikoa eta lurralde garapena (Donostia, 2017-01-28).

- Europako integrazioa eta balioen defentsara bideratutako politika publikoak sendotzeko proposamena, bereziki: etorkinentzako harrera planei, ongizate sistema unibertsalari eta gazte europarren arteko harremanen sendotzeari dagokienean.
- **Frantziarekin eta Espainiarekin harreman berriak ezartze aldera.**
 - Hegoaldeko euskal lurraldeen eskumen eremua bermatze aldera, EAEn eta agian aurki Nafarroan zabalik dauden Estatus politiko berrirako proposamena(k) agendaren erdigunean kokatzeko proposamena.
 - Euskal Hirigune Elkargoa garatzeko hausnarketari ekitea, berau demokratizatzeko asmoarekin: ordezkarien zuzeneko hautaketaz mintzatzeko proposamena.
 - Indarrean dauden Euskal Erabaki Sistemak garatzeko eta berriak sortzeko proposamena luzatzen da. Gai esanguratsu batzuk aipatzen dira: hezkuntza, ezagutza, eta komunikazio sistema; sistema judiziala, etab. Honekin batera, euskal estatalitatearen beharraz hausnartzeko proposamena luzatzen da.
- **Euskal lurraldeen arteko harremanak sendotzeko asmotan.**
 - Europak euskal lurraldeen arteko harremanak sendotzeko eskaintzen dituen aukerak lantzeko edota indartzeko proposamena: euro eskualdetik, mugaz gaindiko harremanetarako egungo egituretara.
 - Euskal lurraldeen lankidetzari ahalbidetzeko nazioarte mailan dagoen beste zenbait tresna aztertzea eta bultzatzea: nazioarteko itunak, etab.

6.3. Euskal lurraldeen demokratizazioa

Euskal Lurraldeetan ditugun erabakitze sistemak buruz hausnartzen da atal honetan; gobernantza eredu desberdinez, egun ditugun sistemen nahikotasun demokratikoaz eta horiek hobetzeko edota berriak eraikitze eman beharrek urratsei buruz. Hala, Euskal Lurraldeen demokratizazioari buruz, honako ideiek osatu dute diagnostikoa:

Joera ezkorrak

Gaur egun erabaki-guneak urruntzen ari dira eta erabakitze gaitasuna ere higatzen ari da, bai globalizazioaren eraginez eta bai Estatuaren birzentralizazio prozesuaren eraginez. Horrek ez du uzten balio sistema propioaren arabera berezko ongizate eredia garatzen.

Apatia politikoa sumatzen da orokorrean. Adierazpen askatasunerako esparrua geroz eta murriztagoa sumatzen da, eta horrekin batera, demokratizazioaren bidetik, komunikabideek bete beharrek funtzioaren krisia nabarmena da: informazioaren gardentasuna eta sinesgarritasuna kolokan dago, iritzi publiko demokratikoaren kaltetan.

Gainera, ongizatea eta eskubide eta askatasun sistema osoa kolokan daudela adierazi da. Botere banaketaren lausotze bat gertatu dela aipatu da ere eta zuzenbidezko estatu batek eskaini beharrek eskubideen bermea ez dago ziurtatuta. Botere judizialaren egoera aipatu da, adibide gisa.

Herritarren hitza eta erabakia kontutan ez hartzea joera kezagarri gisa aipatzen da. Gabezia demokratikoa mahai gainean jarri da, batik bat, ordezkarietako sistema demokratikoa delako nagusi eta ez delako herritarren iritzia behar bezala aintzat hartzen.



Euskal Lurraldeen artikulazio gabezia, eta lurralde bakoitzak interes propioak eta antolakuntza administratibo propioa izateak arduratzen ditu herritarrak, haien arteko lankidetzak egituraturik ez delako somatzen.

Erabaki politikoaren kudeaketari buruz, demokraziaren kontrola eragile politiko edo ekonomikoen eskuetan soilik egotea kezagarri da. Hots, alderdi politikoen eskuetan egotea erabaki publikoen monopolioarekin lotuta, “bandoen kultura” kontzeptua aipatu da, gainditu beharreko gai bat bezala. Gainera, merkatuari men egiten dion gobernantza publiko-privatua auzian jarri behar dela adierazi dute.

Joera baikorrak

Euskal lurraldeetan kultura politiko berezitua hautematen da eta orain dugun berezitasun juridiko-politiko ahalegin kolektibo iraunkorraren emaitza izan da. Hala, euskal lurraldeek beren erabaki esparru propioak garatu dituzte, ondorioz, gaur egun dugun erakundetze maila ez da nolana hikoia: euskal erabaki sistemak osatu dira, mugak-muga.

Herri gisako hausnarketa zabal eta partekatuak burutzeko baldintzak sortu dira berriki, gatazka ziklo luzearen amaieraren eskutik.

Erabakitze eta agintea kudeatzeko kultura berria eraikitze abagune aiposean gaude, herritarren borondatea eta ongizatea ardatz hartuta. Gobernantza partekatu berrien inguruan gogoeta egiteko aukera dago, azken hamarkadetakako esperientzia instituzionala aintzat hartuta.

Giza garapen ereduaren inguruko eztabaida irekia eta publiko egiteko baldintzak egon daitezke.

Diagnostikatutako egoerak hainbat galdera planteatu ditu, besteak beste, nola indartu ahal da euskal lurraldeen erabakitze gaitasuna? Nola bermatu? Nortzuk parte hartu behar dute erabakitze prozesuetan eta nola? Nortzuk eta nola parte hartu behar dute erabaki publikoak hartzeko orduan, beti ere, euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzak sendotzeko? Zeintzuk dira tresna egokiak erabakiak hartzeko euskal lurraldeen garapen orekatu eta partekatuari begira?

Agertokiak

Liburu Berdetik eratorritako goragoko diagnostik abiaturak, herritarren mahaitik eta gizarte forotik planteatzen diren agertoki aukerak hauek dira. Lau multzotan sailkatu ditugu:

- Batetik, herritarren ahalduzko politiko, herritarren ahots propioa eta erabakitze gaitasunean sakontzea aukerazko agertokia da. Hau da, jarrera demokratizatzaileak hedatzea, eta gizarte ahalduzko eta kontzientziatu bat eraikitzea posible da; **kultura demokratikoa** sustatzea, alegia.
- Bestalde, modu zehatzago batean, herritarrok parte hartzeko ditugun aukerak hedatuko dituen agertokia ere bideragarria jotzen da. Bereziki, demokrazia parte hartzaile eta zuzenekoan sakontzea lehentasuneko erronka da, hau da, herritarren parte hartzea sustatu eta **inteligentzia kolektiboa** indartuko duen demokratizazio prozesu sakon baten aldeko hautua egiteko baldintzak daude.
- Ongizate orokorraren bermean oinarrituko den euskal sistema politiko da etorkizuneko agertoki posible eta desiragarria. Gobernantza eredu herritartasun zabalenaren eta berdintasunaren mesedetan antolatu nahi da.



Landa eremuak, ba al
dute etorkizunik?
(Barkoxe, 2017-02-24).

- **Nortasun politiko amankomun** baterako kontsentsu politikoak eraikitzea litzateke hurrengo agertokia. Egungo banaketa administratiboak errespetatuko dituen herri gisako prozesu parte hartzaile sakon baten nahia nabarmentzen da.
- Amaitzeko, **gobernantza demokratiko berrian**, erabaki publikoak hartzeko unean herritarren, erakundeen eta gizarte eragileen borondateak uztartzeko aukera azpimarratzen da joera bideragarri bezala.

Agenda

Aipatutako agertokiak garatzeko eta erronkei aurre egiteko hauek dira planteatutako ildoak:

- **Demokratizazioan sakontzeko lerroak: ahalduntzea eta erabakimena.**
 - Kultura demokratiko baterako ezinbestekoak diren balio edota printzipioak bultzatzeko ekimenak; batik bat: gardentasuna, informazioa, norbanakoaren erabakimena, elkarlana, eta konpromisoa.
 - Herritarren ahalduntze politikak eta programak bultzatzea, hezkuntza sistemaren eta komunikabide publikoen bitartez, besteak beste.
 - Gazteen erabakimen politikoa areagotzeko neurriak: adibidez, ordezkartzazko erakunde desberdinetan gazte kuotak ezarri.
 - Ongizate eredia ardatza da demokratizazioan sakontzeko eta herritarren ahalduntzerako: pentsio eta soldata duinak bermatzeko erabakimena eskuratu edota sendotzea proposatzen da. Herritartasuna sendotzearen bidetik, berdintasuna da bultzatu beharreko balioa: bai arlo sozioekonomikoan zein generoari edota kulturari dagokionean.

- Herritarren parte hartzea errazteko modu berriak azaldu dira. Mundu digitalaren abantailak baliatu: e-demokrazia tresnak ezagutarazi eta sendotu.
 - Epe luzera begirako erabaki estrategikoak modu parte hartzailean bideratzeko tresnak ezarri beharko lirateke. Aldi berean, erabakien errebisioa bideratzeko moduak landu beharko lirateke, belaunaldien arteko aliantzak ziurtatuz.
 - Zuzeneko demokraziaren arloan, galdeketen tresna aintzat hartzea gomendatzen da, izan informatiboak nola lotesleak, baita diagnostiko eta aurrekontu parte hartzaileak ere. Tresna parte hartzaile hauek guztiak, logika deliberatzailean ardaztu beharko lirateke.
- **Adostutako nortasun politiko komuna eraikitzen.**
 - Bertako eta kanpoko esperientzia eredugarriak kontuan hartzea proposatzen da: Ipar Euskal Herriko gobernantza eredia (Garapen Kontseilua/Lurralde Elkargoa) edota Eskoziako Liburu Zuriaren prozesua, esaterako.
 - Etorbizuneko balizko euskal estatu baten ereduari buruzko eztabaida konstituziogilea bultzatzeko aukera aintzat hartzea proposatzen da.
 - Euskal lurraldeen arteko harremanak sendotze aldera, politika publiko partekatua burutzeko organo komun egonkorak sortzeko proposamena. Eta maila desberdinen arteko koordinazioa hobetzeko ekimenak.
 - Euskal lurraldeen etorkizunera begirako hausnarketa partekatua bultzatzeko aukera aztertzea proposatzen da: Euskal lurraldeen RIS3 dinamika komun bat abian jartzeko proposamena luzatu da.
 - Euskal Herri mailako Garapen Kontseilua sortzeko aukera aintzat hartzea proposatzen da.



- Gazteek burututako foroan, Euskal Herri mailako Gazte Kontseilua sortzea proposatzen da.
- **Gobernantza demokratiko berria: eredu partekatuak.**
 - Hiru planoen elkarlana: norbanakoak, eragileak eta instituzioak elkarrekin lan egitea beharrezkoa da. Elkarren arteko errespetuan eta aitortzan oinarritutako gobernantza tresna partekatu berriak abian jartzea proposatzen da.
 - Subsidiaritate printzipioaren potentzialtasuna aintzat hartzea proposatzen da. Tokiko erakundearen gaitasunak sendotuz eta eskualdeen nortasuna balioetsiz.
 - Ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren eragina demokratizazio prozesutan ezinbestekoa den neurrian, herri ekimena aintzat hartzeko eta sustatzeko neurriak hartzea proposatzen da.
 - Euskal Herrian historikoki garatu diren zenbait egitura eta ohitura politikoei begiratzea proposatzen da –kontzeju, batzarrak, auzolan kooperatiboa...–, komunaren kudeakaterako eredu gisa.

Kronikak

1.3.



1. Geroa Elkar-Ekin prozesua

2013an bere xedea zehaztu ostean, Eusko Ikaskuntzak hausnarketa-prozesua abiatu zuen gure Herriak XXI. mendean dituen erronka nagusien gainean. Diziplina anitzeko azterketa-eta ikerketa-taldeak sortu ziren, bost eremu estrategiko lantzeko: etorkizuna irudikatzea, euskara etorkizunaren aurrean, errealitate soziokulturala, eredu sozioekonomikoak eta egitura soziopolitikoak.

Geroa Elkar-Ekin izeneko prozesuaren baitan, 2016an eta 2017an laneko bilerak, foroak eta mintegiak egin ziren, bost arlo handi horiei hainbat ikuspegitik heltzeko. Zehazki:

- Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea
- Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5)
- Euskal gizartea: kultura eta identitatea
- Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa
- Gobernantza demokratikoa

Egin diren berrogeita hamarretik gora topaketetan, aditu eta herritarrek sektorekako diagnostikoak egiten jardun zuten, eta arlo bakoitzeko gako estrategikoak zehaztu zituzten. Guztia “Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Berdea”-n jaso zen,

herritarren mahaietan aztertu eta sakondu ostean, bai eta 2018an zehar deitu ziren gizarte-foroetan ere.

Parte-hartzean oinarritutako metodologia dinamiko bat baliatuz, gurariak, beharrak eta galderak finkatu ziren gai hauen inguruan:

- **Nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea**
 - Etorkizuneko foroa: «Bizitza luzearen erronkak eta aukerak»
- **Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5)**
 - Gizarte foroa: «Etorkizuneko eszenarioak diseinatzen: zure ikuspuntutik eta ametsetatik, euskaraz garatu nahi duen komunitateak zer, nolako eta zenbat aktibo nagusi beharko lituzke kapital bakoitzean 2040an?»
 - Gizarte-foroa: «Arkitektura estrategikoaren diseinua: 2040. urterako irudikatutako kapital (aktiboen) konstelazioa eraikitzeko, zein ekinbide gako definitu ditzakegu?»
- **Euskal gizartea: kultura eta identitatea**
 - Herritarren mahaia: «Gure jendea: gizartea eta kultura»
 - Gizarte foroa: «Gure jendea: aniztasuna eta kohesio-bideak»



- Gizarte foroa: «Hedabideak eta kohesioa»
- **Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa**
 - Herritarren mahaia: «Euskal Herriko etorkizun sozioekonomikoa»
 - Gizarte foroa: «Gizarte-ongizateko geure eredu baterantz»
 - Gizarte foroa: «Lurralde-estrategiak eta iraunkortasuna»
 - Gizarte foroa: «Enpresa-ereduak eta lan-harremanak»
- **Gobernantza demokratikoa**
 - Herritarren mahaia: «Gobernantza demokratikoa, euskal lurraldeen kohesioa eta elkarkidetzaren ardatz hartuta»
 - Gizarte foroa: «Gobernantza demokratikoa»

Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria elkarlanaren emaitza izan zen, hain zuzen espezialisten, eragile sozial eta politikoen eta gizarte zibileko kideen elkarlanarena, eta beraren oinarriak Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren barruan aurkeztu ziren.

2. Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria: laburpena

2016. urtean abian jarritako **Geroa Elkar-Ekin** prozesuan eta 2018ko Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan bildutako diagnostiko, hausnarketa eta proposamenak laburbildu ziren Liburu Zurian. Berrogeita hamar orrialdetan egituraturik, atal hauek hartzen ditu: Egindako ibilbidea; Testuingurua; Jendartea: nortasun anitza; Lurralde-dinamikak: atomizaziotik lankidetzara, iraunkortasunaren bidean; Ongizate-eredua: bizitza zaindu, aberastasuna sortu eta banatu, eta Gobernantza: demokratizazioa ardatz.

Atal bakoitzean, abiapuntua eta etorkizunerako helburuak finkatzen dira, bai eta proposamenak euskarritzen dituzten balioak zehaztu eta ongizatearen eta gobernantzaren gizarte-eta lurralde-ordenan zer nolako eredu nahi den zehaztu ere. Etorkizuna aldakorra delarik, arkitektura eta ibilbide-orri zehatzak proposatu dira epe laburrerako politika publikoetan garatu ahal izateko; beste planteamendu batzuek, berriz, epe ertain-luzera begiratzen dute, konfiantza sortuz eta sareak eta harremanak finkatuz, hainbeste espero dugun etorkizuna (**Geroa Elkar-Ekin**) helburutzat harturik.

2.1. Egindako ibilbidea. Testuingurua

Egindako bidea eta egungo agertokia aztertuz abiatzen da Liburu Zuria. Hauxe nabarmentzen du: «ziurgabetasun-garai batean bizi gara» eta, mehatxuak izan arren, «aukeraz beteta dago». Euskal Herriak baliatu egin behar ditu aukera horiek, «testuinguru globalean, baina geure hausnarketatik abiatuta». Helburua da etorkizunerako herrialde-proiektu bat eraikitzea, eta, horretarako, «ez gara hutsetik abiatuko».

2.2. Jendartea: nortasun anitza

Etorkizuneko Euskal Herriaren aniztasuna eta kohesioa nola kudeatu aztertzerakoan, joera negatiboak eta positiboak antzeman dira. Agertokirik egokienean, immigrazioaren erronka gizarteratzeko aukera moduan hartuko duen herritarren eredu berria hezurramitza aurreikusten du Eusko Ikaskuntzak. Ezberdinen indarrak batzeko aukera emango duen gizarte-kontratu berria aldarrikatzen dugu, eta uste dugu horretara bideratu behar dela hezkuntza, aniztasunaren kudeaketa inklusibora, hain zuzen ere.

Atal horretan bertan, esparru honetan nahi ditugun komunikabideak eta agertokia aztertu dira. Egungo zatiketa gainditu behar du euskal komunikazio-sistemak, eta



euskara lehenetsi. Bestalde, euskal lurraldeak espazio digital global batean kokatu behar ditu. Horretarako, herrialde osorako komunikazio-plan estrategiko bat landu behar da.

Atal horretan, halaber, euskara normalizatzearen gaineko proposamen ugari egiten ditu Liburu Zuriak. Jarduerak eta neurriak aurkezten dira, jendea, gizartea, kultura, egiturak, ekonomia eta politika euskara erabiltzearen inguruan sendotzeko, besteak beste: baliabideak handitzetik hezkuntza-sistema eraldatzeraino, hizkuntza-nahikotasuna bermatzeko, eta euskara komunikazioaren arlo guztietara eramango duen estrategia digital bat sustatzea.

2.3. Lurralde-dinamikak: atomizaziotik lankidetzara, iraunkortasunaren bidean

Liburu Zuriak, lurraldeko dinamikak erreparatzeaz gain, atomizaziotik lankidetzarako bidea jasangarritasuna oinarri hartuta egiteko eman beharreko urratsak finkatzen ditu. Horretarako, hainbat baldintza bete behar dira: lurraldeen artean oreka lortu, landa-eremuen eta hiri-eremuen artean erabateko osagarritasuna erdietsi, iraunkortasunaren alde jokabideak aldatu eta ekonomia dibertsifikatuz aberastasuna banatu.

Aldi berean, euskal lurraldeen eta komunitatearen gainean baterako imajinario bat osatzea eta lotura-elementuak sustatzea proposatzen da. Xede horretarako, baina, partekatutako egiturak eraiki behar dira Euskal Herri osorako, eta finantza-tresna propioak sortu lurralde-kohesioaren alde. Iradokitzen da landa-inguruaren balioa azpimarratzea, babestea eta lurralde guztietan ongizaterako sistema bat bilatzeko hausnarketa-prozesu bati ekitea. Bizitako gatazken ondorioetatik ikasteko gomendioa ere egiten da.

2.4. Ongizate-eredua: bizi zaindu, aberastasuna sortu eta banatu

Liburu Zuriaren arabera baterako proiektu bat da ongizatea, eta hauek hartzen ditu barne: baliabideak birbanatzea, sarrerak bermatzeko sistema sendo bat, kalitatezko enplegua, zerga-sistema aldatzea eta gizarte-zerbitzuak hobetzea.

Gako batzuk adierazten dira, ordena honetan: nagusien esperientziari balioa ematea gizartean, norberaren autonomia sustatzea, gazteak aukerez akuilatzea eta familiaren alorreko politikak sustatzea. Era berean, laneko harremanetan ere hainbat aldaketa egitea komeni dela ondorioztatu da.


2.5. Gobernantza: demokratizazioa ardatz

Gobernantzarena eta demokratizazioarena da aztertutako azken ardatza. Kanpoko esperientziak eredu hartzea proposatzen da, betiere bertako nortasunari eutsiz, munduan kokatu eta ordena globalean posizio aitzindari eta lehiakorra hartzeko.

Euskal lurraldeak dagokien lekuan kokatzeko eta Europan duten eragina areagotzeko, kanpo-harremanetarako estrategia partekatu bat proposatzen da, bai eta euskal markari buruzko eztabaida sortzea eta diaspora aktibatzea ere. Planteatzen da Espainiarekiko eta Frantziarekiko harremanak aldatzea, adostutako nortasun bakar bat eraikitzea eta ahalduntzearen eta erabakitze gaitasunaren alde lan egitea.

3. Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua urriaren 5etik azaroaren 23ra bitartean egin zen, **Geroa Elkar-Ekin / El futuro que nos (re)une / Notre futur ensemble** lemapean, Baionan, Gasteizen, Iruñean, Bilbaon, Donostian eta Oñatin.



Hausnarketarako eduki trinko eta zabala eraman genuen bertara, profesionalen, adituen, gizarte-eragileen, politikari eta ekonomialarien, herri-erakundeen eta gizarte zibilaren partaidetza bildu zuen urte askotako programari esker.

Bost arloetako bakoitzean adostutako diagnostiko eta proposamenetan oinarritu zen Kongresuko eztabaiden esparru teorikoa, eta, ondoren, haien edukia aberastuz joan zen. Lehenengo helburua izan zen Euskal Herriak aurrean dituen kezka eta erronkei erantzuteko agertoki-aukerak aurkeztea, eta, gero, konpromiso sozio-instituzional bat lortzea, taldean ikertu eta jorratzeko arloetan sakontzen jarraitzeko.

Itxiera-saioan, Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Zuria aurkeztu zen, eta lehenago aipatu ditugun bost eremuetako bakoitzean sortutako edukiak laburbildu zituen.

1918ko lehenengo Kongresuan abiarazitako ildo historikoarekin bat, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuak euskal komunitateen garapen orokorrerako ekarpen positibo eta aurreratua eskaini nahi izan zuen, horixe izan baitzen orain dela mende bat Eusko Ikaskuntza eratzeke arrazoa.

Irekiera ekitaldia: Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea. Baiona (Udal Antzokia eta Maison des Associations), 2018.10.05

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua urriaren 5ean, ostiralez, inauguratu zuten, Baionan, Yves Ugalde Baionako Udaleko kultura-zinegotziak (hiriko alkate eta Euskal Hirigune Elkargoko presidente Jean-René Etchegarayren ordezkarietan), Iñaki Dorronsoro Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, Eguzki Urteaga Ipar Euskal Herriko lehendakariordeak eta Xabier Alkorta Batzorde Antolatzaileko lehendakariak.

Partaideek gorazarre egin zioten Jean-Michel Larrasqueti, 2008tik urte-hasieran hil zen arte Eusko Ikaskuntzaren Ipar Euskal Herriko lehendakariorde izan zenari. Bi hamarkadatan baino gehiagotan Eusko Ikaskuntzaren zutabeetako bat izan zen, bai zuzendaritza-organoetan zuen inplikazioagatik, bai zientzia-ekoizle eta ezagutza-akuilu gisara. Larrasquet zuzendari zientifikoa izan zen Kongresuko lehen jardunaldian gaitzat hartu zen **Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea** proiektuan.

Goizean zehar, Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua osatzen zuten bost saioetako edukiak aletu zituzten bost arloetako arduradunek eta zuzendari zientifikoek. Josune Etxanizek eta J. Inazio Marko Juanikorenak **Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5)** gaiaren programa eta eztabaidagaiak aurkeztu zituzten; Beatriz Akizuk eta Julen Zabalok beste horrenbeste egin zuten **Gizartea: aniztasuna eta kohesioa** gaiari buruz; Arrate Arinek eta Angel Toñak **Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa** saioan eztabaidatuko ziren galderak aurreratu zituzten; eta, amaitzeko, Beatriz Akizuk eta Mario Zubiagak **Gobernantza demokratikoa** taldearen lanen xehetasunak eman zituzten.

Etorkizuna irudikatuz: nahi dugun gizartea, izango dugun gizartea gaiaren sarrera moduan, Osasun eta Gizarte Erakundeek buruzko Prestakuntza eta Ikerketa Institutuko (IFROSeko) sortzaile Jean-Pierre Claverannek hitzaldia eskaini zuen, «Lurraldea globalizazioaren eta munduaren mutazioen aurrean» izenburupean. Claverannek defendatu zuen, lurraldea leku aproposa dela gaur egungo erronkei aurre egiteko eta etorkizuneko belaunaldiak batera mundu solidario baterantz jotzeko.

Arratsaldean, azken bi urteetan egindako lanaren gakoak, metodologia eta emaitzak zehaztu zituzten **Etorkizuna**



irudikatuz proiektuaren arduradun Koro Murok eta Javier Castrok. Prozesu horretan, joerak deskribatu, agertokiak irudikatu eta proposamenak egin ziren, hiru dinamika estrategiko hauen inguruan: biztanleria, lurraldea eta ezagutza. Aurkezpenaren ondotik, eztabaida irekia abiatu zen planteatutako hainbat gairen inguruan.

Amaitzeko, Juliette Bergouignan, Michel Berhocoirigoien, Ane Bustinduy eta Javier Echeverría Ezponda adituek mahai-ingurua egin zuten, herri txikien lurraldetasunari, ezagutzari, zahartzeari eta etorkizunari buruz, Iban Lizarralde moderatzaile zutela.

Bigarren saioa: Euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzen (e5). Gasteiz (Salburua eraikina), 2018.10.19

Salburua eraikinak, izen bereko parkearen sarreran dagoenak, hartu zuen Kongresuaren bigarren saioa. Arabako diputatu nagusi Ramiro Gonzálezek eta hiriburuko alkate Gorka Urbaranek ireki zuten, Eusko Ikaskuntzako lurralde-lehendakariorde Anjeles Iztuetaekin eta Kongresuaren Antolaketa Batzordeko lehendakari Xabier Alkortarekin batera.

Jardunaldian, 2016an Eusko Ikaskuntzak abiatu zuen **e5 (Euskararen Etorkizuneko Eszenarioak Elkarrekin Eraikitzen)** proiektuaren emaitzak aurkeztu zituzten. Erabilitako metodologia berritzailea azpimarratu zuten; izan ere, hizkuntzan bertan ipini beharrean arreta, datoen hamarkadetan euskararen aldeko gizarte-mugimenduak (euskalgintzak) eta euskal komunitateak izango duten garapenari erreparatu zitzaion.

Proiektuaren testuinguruaren berri emateko, Mikel Irizar Intxaustik («Euskalgintzaren testuingurua: irakurketa soziopolitiko») eta J. Inazio Marko Juanikorenak («e5

proiektuaren aurkezpena: irakurketa teoriko-metodologikoa») esku hartu zuten.

Goizeko saioan ideiak eta proposamenak bota ziren, azaltzeko komunitateak zer aktibo dituen edo izan behar dituen euskaraz bizi, garatu eta munduratu ahal izateko, proiektuak hartzen dituen sei kapitaletan: pertsonak eta kultura, politika eta ekonomia, eta (azpi)egiturak eta gizartea. Hurrenez hurren, Jone Goirigolzarrik, Ana Urkizak eta Olatz Olasok aurkeztu zituzten atal horietako bakoitzean egindako azterketen emaitzak. Jarraian, proposamenen txanda izan zen; hauek izan ziren protagonistak: Petra Elser, Paula Kasares, Joanmari Larrarte, Joseba Barandiaran, Paul Bilbao, Garbiñe Mendizabal, Josu Waliño, Xan Aire eta Gorka Espiau. Era berean, Ane Zugaza, Edurne Azkarate, Iban Larrandaburu eta Maddi Sarasua (18 eta 26 urte bitarteko 4 gazte) gonbidatu genituen, euskaraz garatu nahi duen komunitatearen etorkizuna nola ikusten duten azaltzeko eta helburu hori lortzeko ekimenak proposatzeko.

Bigarren jardunaldi horretan poster-erakusketa bat ere egin zen, Libe Álvarez, Joseba Fernández de Landa, Beñat Garaio eta Aitor Montesek ekarpenekin.

Arratsaldeko saioan, Amhersteko University of Massachusettseko irakasle Jacqueline Urla aurkeztu zuen Iñaki Martínez de Lunak. «Hiztunean ardaztutako hizkuntza-plangintza helburu» izeneko hitzaldia eman zuen. Mintzaldiaren ondoren, elkarrizketa sortu zen hizlariaren eta kongresukideen artean.

Azkenik, Kike Amonarrizek eta Beñat Garaioek **e5 Kongresuaren Adierazpena** ezagutarazi zuten. Euskararen aldeko gizarte-mugimenduetako ehun pertsonak baino gehiagok sinatu zuten eta Eusko Ikaskuntzen XVIII. Kongresuaren Liburu Zurian txertatu zen.



Hirugarren saioa: Gizartea: aniztasuna eta kohesioa. Iruñea (Civican), 2018.10.26

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua Iruñeko Civicanen egin zen, urriaren 26an. Caja Navarra Fundazioaren presidente Javier Mirandak, Iruñeko alkate Joseba Asironek, Nafarroako Gobernuako Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollo Hualdek eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsorok ireki zuten jardunaldia. Eusko Ikaskuntzak 2016an abiarazi zuen **Gure jendea: aniztasuna eta kohesio-bideak** programaren emaitzak aurkeztu ziren.

Especialistek egindako hausnarketetatik abiatuta, dibertsitateaz, bizikidetzaz eta kohesioaz eztabaidatu zuten kongresuko parte-hartzaileek. Esaterako, gizarte- eta lurralde-kohesioaz jardun zuten Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Salvador Cardús irakasleak («Zer esan nahi du eta zer baldintzatzaile ditu gizarte-kohesioak, gizarte ireki eta pluraletan?») eta Nafarroako Unibertsitateko David Thunder irakasleak («Nola kohesionatu hainbat komunitatek osatutako lurralde bat»). Euskal Herriko Unibertsitateko Txoli Mateos irakaslea, berriz, bizikidetzaren kontzeptuaz aritu zen, eta horren gestioaz eta hezkuntzaren bidezko transmisioaz («Begiradak osatzen»).

Arratsaldean, Kongresuak hedabideak aztertu zituen euskal lurraldeen kohesiorako faktore gisa. Eztabaida elikatu zuten Ramón Zallo soziologoak («Gure kultura- eta komunikazio-sistemaren egokitasunik eza eta atzerapena esparru digitalean: erakitze-bidean dagoen euskal-nafar identitaterako erronkak»), Mirentxu Purroy kazetariak («Informazioa: eskubide publiko bat errealitatea leialki erakusten edo faltsutzen dutenen eskuetan») eta Argitxu Camusek («Euskal Diaspora, kidesun partekatuaren adibide?»). Kongresukideek eta hizlariak ondoren egin zuten eztabaidak ideia- eta proposamen-truke aberasgarri bat ekarri zuten.

«Komunikazioz ere egiten da Euskal Herria?» izeneko mahai-ingurua egin zen, Argitxu Camus, Andoni Aranburu (EITBko estrategia- eta komunikazio-zuzendaria), Ana Oregi (Eusko Legebiltzarreko parlamentaria) eta Txema Mauleon (Nafarroako Gobernuako kidea) bilduta.

Laugarren saioa: Garapen sozioekonomikoa: euskal gizartea eta enpresa. Bilbao (Iberdrola dorrea), 2018.11.09

Bilbaon egin zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren laugarren ekitaldia. Juan Mari Aburto Bilbaoko alkateak; Teresa Laespada Enplegua, Gizarte-inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Saileko foru-diputatuak, eta Rosa Miren Pagola Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko lehendakariordeak eman zieten ongiatorria kongresukideei.

Hasierako hitzaldia Nafarroako Gobernuako lehendakariorde Miguel Laparrak eman zuen, XXI. mendeko ongizate-estatua gaia hizpide harturik.

Hiru gai landu ziren, nagusiki: ongizate-estatua Euskal Herrian, lurralde-estrategiak eta iraunkortasuna, eta enpresa-ereduak eta lan-harremanak. Joseba Zalakain, Imanol Esnaola eta Tomas Arrieta arduratu ziren eztabaidarako taldeak eratu aurretik gaiok aurkezteaz. Taldeotan enpresetako, erakundeetako eta irakaskuntzako ordezkariak eta espezialistek hartu zuten parte.

Ondorioen artean, hauek nabarmendu zituen Kongresuak: ongizate-estatuaren eta ekoizpen-eredu sendo baten arteko mendekotasun-harremana; gizareratzea ahalbidetzeko, kalitatezko enplegua lehenestea eta aberastasuna banatzeko mekanismoak ezartzea; Euskal Herriaren barne-kohesioa eta artikulazioa gauzatzekotan gizartea babesteko eredu zabal, eraginkor eta jasangarri baten beharra, eta belaunaldien arteko solidaritatea.



Lurralde-estrategien alorrean nabarmendu zen herrialde erresiliente eta jasangarri bat egituratzekotan beharrezkoa dela lurraldeen arteko lankidetzeta eta osagarritasuna, eta horrek eragin zuzena du landa-eremuek eta hiri-eremuek duten harremanean.

Gure garaiko erronka handien aurrean, Eusko Ikaskuntzaren Kongresuak agerian utzi zuen Euskal Herria eredu izan daitekeela balio sozialetan eta ekintzaile-kulturan oinarrituz emandako erantzunean, nahiz eta ez izan tamaina eta garrantzi kualitatibo nahikoa, eraldatzen ari den mundu honetako joera handietan zuzenean eragin ahal izateko.

Bosgarren saioa: Gobernantza demokratikoa. Donostia (Tabakalera), 2018.11.16

Gipuzkoako ahaldu nagusi Markel Olano, Donostiako Udaleko Euskarako zinegotzi Miren Azkarate eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsoro arduratu ziren Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren bosgarren saioa abiatzeaz.

Bi zati izan zituen programak. Batean aztertu ziren eskualdeek Europako integrazio-prozesuan duten eginkizuna eta eskualdeak, lurralde kosmopolitizatuetako gobernantza eta erabakitzeko eskubidea aintzatesteko politika proaktiboagoak bideratzeko aukera.

Bestean, berriz, gai hauek landu ziren: demokratizazio-prozesuak eta lurralde-kohesioa, subiranotasunaren printzipio demokratikoak, harremanak areagotzeko eredu eta tresnak, eta lurraldeen arteko lankidetzeta.

Osoko eztabaidek eta talde-lanek hausnarketa kolektiboa eragin zuten hiru alderdi garrantzitsuren gainean; hauek dira alderdiok: euskal lurraldeen harremanak munduarekin, Europarekin eta Estatuarekin (espainolarekin eta frantsesarekin), euskal lurraldeen demokratizazioa eta euskal lurraldeen kohesioa.

Kongresuaren bosgarren saio horretako ondorioetan, demokratizazioan oinarritutako gobernantza-eredu berri baten beharra azpimarratu zen, borondate partekatuak bideratu eta gatazkak era eraikitzailean kudeatzeko.

Ondorioen saioa. Oñati (San Migel eliza), 2018.11.23

Urriaren 5aren eta azaroaren 16aren artean euskal hiriburuetan egindako bost saio horien ostean, Oñatik hartu zuen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren itxiera-ekitaldia, ehun urte lehenago aitzineko harekin egin zen moduan.

Oñatiko alkate Mikel Biainek eta Eusko Ikaskuntzako lehendakari Iñaki Dorronsorok ongietorria egin ostean, Kongresuko analisi, diagnostiko, hausnarketa eta proposamen nagusiak (Liburu Zurian laburbilduak) aurkeztu ziren goizean zehar. Hamar kongresukidek ondorioak azaldu zituzten, lau multzotan banatuta. Ibon Zugastik abiatu zuen jardunaldia, «Mundua: joera globaletatik tokian tokiko agertokietara» gaiaren inguruan. Segidan, **Jendartea: nortasun anitza** alorreko bozeramaile ziren aldetik, Julen Zabalok («Aniztasuna eta kohesio-bideak»), Josu Amezagak («Hedabideak eta kohesioa») eta Mikel Irizarrek («Euskaraz garatu nahi duen komunitatea») emaitzen eta proposamenen berri eman zuten.

Ongizate-eredua: bizitza zaindu, aberastasuna sortu eta banatu blokean, Joseba Zalakain («Ongizate-eredu bat»), Ane Bustinduy («Belaunaldien arteko solidaritatea») eta Tomas Arrieta («Enplegua, enpresa-ereduak eta lan-harremanak») izan ziren hizlariak. **Gobernantza: demokratizazioa ardatz** alorreko ondorioak Amalur Alvarezek («Euskal lurraldeak munduan, Europan eta estatuetan»), Iruñe Lasak («Oreka eta kohesioa euskal lurraldeetan») eta Antton Mayak («Demokratizazioa euskal lurraldeetan») landu zituzten.



Itxieran, gaur egungo gizarteak 1918koarekin alderatuta dituen ezberdintasun handiez mintzatu zen Batzorde Antolatzaileko lehendakari Xabier Alkorta. Azpimarratu zuen orain, lehen bezala, dagokion lekuan dagoela Eusko Ikaskuntza, Herriari elkarguneak eskaintzen eta ezagutza sortzen.

Amaitzeko, Iñaki Dorronsorok, Eusko Ikaskuntzako lehendakariak, hauxe esan zuen: «Hementxe amaitzen da orain hiru urte abiatu genuen proiektua. Baina ez guztiz. Izan ere, hasiera-hasieratik Eusko Ikaskuntzaren ehun urtetik gorako bizitzaren bihurtzetatik jo genuen Kongresu hau». Eta, hitzaldia biribiltzeko, hauxe gaineratu zuen hunkituta: «Eusko Ikaskuntza hementxe dago: 1918an bezain baliagarri eta garrantzitsu sorburu duen gizartearentzat. Indarberrituta eta «Asmoz eta Jakitez» lema laburtzen duen espirituari eutsiz».

Eduki hori guztia Muxote potolo bat taldeak egindako infografia batean jaso zen.

Era berean, saioaren egoitza izan zen San Migel elizaren klaustroan argazki-erakusketari interesgarria egon zen Eusko Ikaskuntzaren Kongresuei buruz, Oñatiko Artixa kultura-elkarteak antolatuta.

Eusko Ikaskuntzen XVIII. Kongresuko ekitaldiei amaiera emateko, Oñatiko monumentuak ezagutzeko bisitaldi gidatua eta *Hamaika amaren seme (alaba)* antzerkiaren estreinaldia egin ziren.

4. Eusko Ikaskuntzaren Mendurrena (1918-2018)

Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako foru-aldundiek bultzatuta, Eusko Ikaskuntzaren sorrera (1918ko abenduan) euskal kultura-modernitatearen hasiera izan zen. Nortasun kolektiboan sakondu nahi zuten eragileak biltzea lortu zuen erakunde berriak, eta zientziaren eta kulturaren garapena,

gizarte-koheretia eta Euskal Herriko komunitateen lurralde-egituraketa bultzatzea zen xedea.

Giza oinarri zabaleko elkarte osatu zuten, bikaintasun gorenko pertsonak, ikertzaileak eta euskalariak, eta ikasleak, pentsalari nekazariak eta herrizaleak bilduta. Guztiek bat egin zuten Euskal Herriaren aurrerabidearekiko konpromisoan. Era berean, emakumeak euskal kulturaren eta zientziaren eremuetara ekartzegatik nabarmendu zen Eusko Ikaskuntza.

Sorrerako misioa bideratu eta eguneratzen dihardu Eusko Ikaskuntzak, gaur egungo gizarte global, teknologiko eta konplexuaren testuinguruan. Partekatutako ezagutzaren balioa abiapuntu dela, jakintzak eta esperientziak lotzen ditu, eta adituen, herri-erakundearen eta gizarte zibilaren arteko elkarrizketa sustatzen du, guztiek batera etorkizuna eraikitzeko lanari ekiteko.

Mezu horixe helarazi nahi izan zuen erakundeak 2018ko (lehen mendea bete zuen urteko) ospakizunetan.

4.1. Mendurrenaren aurreko ekitaldiak

Martxoaren 14an ireki zen Mendurrenaren urtea, Bizkaiko Foru Aldundiaren jauregian ekitaldi ospetsua eginez. Gure erakunde sortu zuten lau instituzioetako ordezkariak Eusko Ikaskuntzarekiko konpromisoa berriro zuten, Adierazpen Institutuzional bateratu baten bidez, alegia: Unai Rementería Bizkaiko diputatu nagusiak, Ramiro Gonzalez Arabako diputatu nagusiak, Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak eta Ana Olo Nafarroako Gobernuako Herriarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak.

Ekainaren 2an etorri zen urteko bigarren une garrantzitsua, oraingoan barruko ekitaldi baten bidez. Entitatea 1978an birfundatzen lagundu zuten pertsonen omenaldia egin zitzaion, Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren Batzar Nagusiaren baitan. Belen



Moreno artistak beren beregi diseinatutako pieza jaso zuten opari.

Segidan, 1918tik erakundeak izan dituen zazpi lehendakariak omendu zituzten: Julian Elorza (1918-1936), Jose Miguel de Barandiaran (1978-1991), Gregorio Monreal (1992-1996), Juan Jose Goiriena de Gandarias (1997-2002), Javier Retegui (2003-2008), Joxe Mari Muñoa (2008-2012) eta gaur egungo Iñaki Dorronsoro. Lehendakaritza bakoitzaren epealdiari errebasoa egin ondoren, Eusko Ikaskuntza zuzentzeko ardura hartu zuteneko sasoiak eta inguruabar historikoak nabarmendu ziren, bai eta bakoitzak egindako ekarpenak ere.

4.2. Mendeurrenaren kronika

Azaroaren 24an, larunbatez, bere sorreraren Mendeurrena ospatu zuen Eusko Ikaskuntzak Oñatin, 1918an Eusko Ikaskuntzen lehen Kongresuaren egoitza izan zen hartan.

Eguerdia baino minutu batzuk lehenago, Oñatiko Foruen plazan sartu ziren Eusko Jaurlaritzako lehendakari Iñigo Urkullu, Nafarroako Gobernuako lehendakari Uxue Barkos eta Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegaray. Han zituzten zain Eusko Legebiltzarreko lehendakari Bakartxo Tejeria; hiru lurraldeetako (Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako) ahaldun nagusiak, hurrenez hurren Ramiro Gonzalez, Unai Rementeria eta Markel Olano; Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakari Eider Mendoza eta haren homologo arabarra, Pedro Elosegui; Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu-ordezkarikari Jesus Loza, eta Oñatiko alkate Mikel Biain.

Ospakizun historiko horretan ez zuten hutsik egin nahi izan, halaber, Euskal Herri osoko bizitza politiko, instituzional, sozial eta kulturalerako ordezkariak.

Eta, lehen Kongresu hartan bezala, Soka Dantza egin zen plazan. Oier Araolazak berariaz moldatu eta Oñatz Dantza

Taldeak jokaturako dantzara, agintariak, bazkideak eta Euskal Herri osoko udaletako hautetsiak batu ziren. Ohorezko aureskua bazkide zaharrenetakoari, M. Luisa Azurmendiri, eta gazteenetakoari, Alvaro Castillori, eskaini zitzaion, gaur egun Eusko Ikaskuntza osatzen duten guztien ordezkarietan.

Oñatiko Udaleko aretoetan ekitaldi instituzionala abiatu baino minutu batzuk lehenago, lehen mailako agintari politikoei nork bere sinadura txertatu zuten Eusko Ikaskuntzaren Mendeurrena dela eta argitaratutako liburuaren ale batean. *Euskaldunon Mendea, 1918-2018: Eusko Ikaskuntza 100 urte da liburua.*

Ostean, San Migel parrokiaren elizak, mukuru beteta, eremu paregabea eskaini zion Mendeurrenaren zeremoniarik. Donostiako Orfeoak *Eusko Hizkuntza* kantatzen zuelarik sartu ziren ordezkari instituzionalak. Arlo musikala, abesbatza prestigioetsuz gain, Joxan Goikoetxea, Jurdana Otxoa eta Maider Zapirain, Oinkari Taldea eta Gontzal Mendibil kantaria arduratu ziren.

Ekitaldiaren gidari jardun zuen Ane Pedruzok ongiatorria eman zien agintariei eta bertaratuei, eta esku-hartzeen txanda irekitzeko gonbita luzatu zion Oñatiko alkate Mikel Biaini. Horren ostean, Eusko Ikaskuntzako eta Mendeurrenaren Antolaketa Batzordeko lehendakariak, Iñaki Dorronsorok eta Xabier Alkortak, alegia, Euskal Herriak etorkizunean dituen erronka handiei erantzuteko ahaleginean jarraituko dutela azpimarratu zuten.

Ekitaldi horretan bertan, **Eusko Ikaskuntzaren adierazpen instituzionala bere mendeurrenean** agiria irakurri zen. Euskal Herriaren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta egiteaz gain, dagoeneko mende bat bete duen Eusko Ikaskuntzak egin dituen eta aurrerantzean egingo dituen



ekarpenak ekarri zituen gogora adierazpenak. Argitxu Etchandy, Ana Urkiza eta Sho Hagio bazkideek irakurri zuten. Hiru lagun horiek aukeratuz, lurralde-, belaunaldi- eta genero-aniztasuna ez ezik, Eusko Ikaskuntzak herritarrei eta beraien ahotsari aitortzen dien garrantzia ere nabarmendu nahi izan ziren.

Horrela, agintari nagusien, herritarren eta gizarte-eragileen aurrean eta Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuan lortutako ondorioetatik abiatuta, 1918an agindu zioten misioan sakontzen jarraitzeko borondatea adierazi zuen Eusko Ikaskuntzak, alegia: Euskal Herriaren garapenera bideratutako ikuspegi orokorra eta epe luzekoa lantzen, jarduketa publikoak nahiz dinamika sozialak argitzeko asmoz.

Adierazpen instituzionala irakurritakoan, Donostiako Orfeoia hunkitu egin zituen berriro ikusleak, Gontzal Mendibilekin batera berorren *Bagare* ezaguna kantatuz.

Segituan, Euskal Hirigune Elkargoko lehendakari Jean-René Etchegarayk, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Iñigo Urkulluk hartu zuten hitza, eta Urkulluren parte hartzeak amaiera eman zion jardueraren zati instituzionalari.

Irteeran, eta agur gisara, Donostiako Orfeoia *Agur Jaunak eta Andreak* (EHUK kanta herrikoari egindako bertsiio eguneratua) kantatu zuen, 1918an Eusko Ikaskuntzaren I. Kongresuan aurkeztu zena.

Mendeurrenaren jardunaldia Foruen plazan itxi zen, Baztandarrak Dantza Taldeak Arizkungo Mutil Dantza eginez, ehun urte lehenago beste baztandar-talde batek egin zuen legez, beraien dantza berezi hori Nafarroatik kanpo erakutsi zuten lehen aldian.

5. XVIII. Kongresua eta Mendeurrenaren inguruan

XVIII. Kongresuaren aurkezpena

Eusko Ikaskuntzaren egoitza nagusi den Miramar Jauregian aurkeztu zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresua, maiatzaren 22an. Horri esker, komunikabideek Kongresuaren programa ezagutarazi zuten, bai eta Geroa Elkar-Ekin prozesuaren emaitza izan zen “Euskal Herriko lurralde(ar)en Liburu Berdea” ere.

Kongresuaren kartela, Angel Blanco Egoskozabal artista grafikoak egin, lehen aldiz erakusteko ere balio izan zuen ekitaldiak. Sinbologia bikoitza du irudiak: garuna ezagutza kolektiboaren metafora da eta soka lotzeko, lanerako eta tentsiorako bitarteko tradizionala; baturatik eta lankidetzatik ezagutza sortzen da, eta sokaren zazpi muturrek lurraldea eta aliantza iradokitzen dute, argi eta garbi.

Aintzatespena erakunde babesleei

Eusko Ikaskuntzak irailaren 13an bildu zituen, Donostiako Kutxa Kultur Plazan (Tabakalera) urte garrantzitsu honetan babesa eman dioten erakunde eta entitateak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Gobernua, Espainiako Gobernua, Euskal Herriko Hirigune Elkargoa, foru-aldundiak, udalak, erakunde eta -fundazioak, enpresak eta erakunde publiko eta pribatuak. Testuinguru horretan aurkeztu zen Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuaren behin betiko programa.

Mendeurrenaren liburua

Mendeurrenaren harira, *Euskaldunon Mendea, 1918-2018: Eusko Ikaskuntza 100 urte* liburua kaleratu zuen Eusko Ikaskuntzak.



Erakundearen jatorria eta garapena jasotzeaz gain, Euskal Herri modernoa egituratu duten alderdiei buruzko hamaika azterlan bildu ditu, bai eta Eusko Ikaskuntzak kulturaren, zientziaren eta arteen alorretan egindako ekarpen zehatza ere.

2019ko urtarrilaren 22an, Kutxa Kultur Plazan (Tabakalera) aurkeztu zen, mahai-inguru batean. Juan Aguirrek, argitalpen-arduradunak eta liburuaren lehen zatiaren egileak, jardun zuen moderatzaile-lanetan, eta zati analitiko hamaika artikulugiletatik hiruk hartu zuten parte: Itziar Alkorta, Rosa Miren Pagolak eta Joseba Agirreazkuenagak.

EUSKALDUNON MENDEA, 1918-2019 EUSKO IKASKUNTZA 100 URTE

Aurkezpena. Iñaki Dorronsoro

I. Eusko Ikaskuntza, 1918-2018. Juan I. Aguirre Sorondo Sarrera

1. Mende baten atarikoak
2. Lehen garaia: 1918-1936
3. Bi kulturak, 1936-1975
4. Bigarren garaia: 1976-2018
5. Eranskinak

Hiru idatzi mende baterako
Eusko Ikaskuntzaren argitalpenak
Eusko Ikaskuntzaren sarien irabazleak
Eusko Ikaskuntzari buruzko bibliografia
Aitortzak eta sariak

II. Mende bete zientziaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren garapenean

Aurkezpena

1. Euskal Unibertsitatea. Itziar Alkorta Idiakez
2. Hego Euskal Herriko Lehenbiziko Estatutua. Eusko Ikaskuntza, 1931. Gregorio Monreal Zia
3. Argi-ilunak euskarak bizi izan duen menderik emankorrenean. Rosa Miren Pagola
4. Zientzia Historikoak, 1918-2018. Eusko Ikaskuntzako eta Historia saileko ekarpenak Zientzia Historikoen esparruan. Joseba Agirreazkuenaga
5. Mende bete Antropologia, Etnografia eta Folklore Euskal Herrian (1918-2018). José Ignacio Homobono Martínez
6. Zuzenbide publikoa eta pribatua Euskal Herrian. Eusko Ikaskuntzaren ekarpena, 1978-2018. Gregorio Monreal Zia
7. Arteak eta Letrak:
 - Arte eta Ondare Historiko-Artistikoa. Edorta Kortadi Olano
 - Eusko Ikaskuntzaren lana musikaren arloan (1918-1936 eta 1979-2013). Jon Bagüés. Itziar Larrinaga
 - Literaturaren ikerketa eta zabalkuntza Eusko Ikaskuntzan. Jon Kortazar
8. Aldatzen ari den mundu aldatua. Ibilbide didaktiko azkarra lau belaunaldietan zehar. Juan José Etxeberria
9. Kultura eta identitatea. Argitxu Camus Etchecopar

Antzezlanak

Eusko Ikaskuntzaren XVIII. Kongresuko ekitaldien programan, azaroaren 23an, *Hamaika amaren seme (alaba)* antzezlanak estreinatu zen Oñatin. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi zuen eta Arrasateko Doke Antzerki Taldeak antzeztu, Vene Herreroen



zuzendaritzapean. Oñatiko estreinaldiaren ostean, hainbat euskal herritan antzeztu zen, eta Eusko Ikaskuntzaren historia deskribatzen du, euskal gizarteak azken mendean izan duen bilakaeraren parean.

Bira

- Oñati, Santa Ana antzokia, 2018ko azaroaren 23a eta 24a
- Arrasate, Amaia antzokia
- Bilbao, Arriaga antzokia, 2019ko urtarrilaren 26a
- Donostia, Principal antzokia, 2019ko otsailaren 2a
- Gasteiz, Felix Petit antzokia, 2019ko otsailaren 16a

Fitxa teknikoa

Testuaren egilea: Josemari Velez de Mendizabal

Zuzendari artistikoa: Vene Herrero

Zuzendaritza musikala: Larraitz Arriolabengoa

Musikaren egilea eta moldatzailea: Sabin Salaberri

Antzerki-taldea: Doke Antzerki Taldea - Arrasate

Antzezleak: Mariasun Pagoaga, Maider Alzelay, Xabi Latorre, Izaro Aretxaga, Miren Aretxaga, Miren Altuna, Teresa Arriolabengoa, Idoia Asurmendi, Leire Elejalde eta Maia Villalba

Esenografia eta kartela: Iñigo Arregi

Produkzio-laguntzaileak: Gregorio Gallego, Arizmendi Ikastola, Aramaio Udal, Arrasateko Udal eta Joxe Otaduy

Zuzendaritza teknikoa: Alaine Arzoz Diez

Obraren ekoizlea: Eusko Ikaskuntza

Ekoizpenaren arduraduna: Doke Antzerki Taldea

Eskerrak, bereziki, Bernardo Atxaga eta Mariasun Landa idazleei, Gorka Knörr abeslariari eta Papargorri Abesbatzari.

Dokumentala ETBn

Kongresuaren itxiera-ekitaldiarekin eta Mendeurrenaren ekitaldiarekin bat etorritik, Eusko Ikaskuntza, 100 urte. *Asmoz ta Jakitez.* dokumentala bota zuen ETBk bi kanaletan. ETBk eta Eusko Ikaskuntzak ekoitzi zuten, eta Alberto Santanak idatzi eta zuzendu; errealizadorea, berriz, Josu Veneno izan zen.

Film laburra

Eusko Ikaskuntza, % 100 da sozietateak bere berri emateko eta XVIII. Kongresuko edukiak aurkezteko ekoiztutako film laburraren izenburua. Gidoia Koro Murorena da, eta Arantza Cuestarekin batera zuzendu zuen. Jatorrizko soinu-banda, bestalde, Txus Aranburuk sortu zuen.

Aintzatespenak eta jasotako sariak

2018an zehar, hainbat erakunde, entitate eta kolektibok aintzatespenak zuten Eusko Ikaskuntza, ibilbide historikoagatik eta euskal kultura ikertzen, zabaltzen eta sustatzen egindako lanagatik (parentesi artean ageri dira aintzatespenaren data eta lekua).

Aintzatespen instituzionalak

- Arabako Domina (Gasteiz, 2018.04.28)
- Donostiako Urrezko Domina (Donostia, 2018.11.29)
- EHUren Urrezko Domina (Donostia, 2019.01.25)

Sariak

- Radio San Sebastianen Bikaintasun Saria (Donostia, 2018.06.21)
- Euskal Kazetaritza Saria 2018 (Bilbao, 2018.11.07)



-
- Orreaga Fundazioaren Nafarroako Pedro Mariskala Saria (Iruñea, 2018.12.03)
 - Argiaren Merezimenduko Saria (Usurbil, 2019.01.25)
 - Ibilbideari Elkar Saria (Andoain, 2019.05.09)

Beste batzuk

- Musikaste 46, Eusko Ikaskuntzari eskainitako igandeko jardunaldia (Errenteria, 2018.05.20)
- Armeria Eskolaren «Ondo egindako lana» aintzatespena (Eibar, 2018.06.19)
- ONCEren kupoi berezia, 2018ko azaroaren 24koa –larunbata–, Mendeurrenaren harira ateratakoa.